

Goienkaria

2006ko irailaren 22a > Egubakoitza > VI. urtea > 257. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Ariketa mentalak sendagaiak bezala dira alzheimerre dutenendako"

Agustin Sagasta
Neurologoa > 09



G2a

Liburu dendak, irakurzaletasuna bultzatzen > 43

HIRUATXEN PROIEKTUA
Sebastian Uribetxeberria aretxabaletarra, Kolonbiara > 15

KIROLA
Bi talde dituen futbol kluba sortu dute Bergaran, BTLS izenekoa > 28

LEINTZ GATZAGA
Taxi-busa eta asteburuko autobusa datorren astean hasiko dira > 39

EKONOMIA > ZABALETAKO MERKATARITZA-GUNEAREN PROIEKTUA

Merkataritza-gunea dela eta, batu egin dira dendariak

KEZKA Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarako dendariak kezkatuta daude eta indarrak batu egin dituzte

BATZARRAK Idatzi bat kaleratu dute, eta udal ordezkariekin hainbat batzar egingo dituzte orain hurrengo

AURKA EZ Proiektuaren aurka ez daudela diote, baina euren hobe beharra kontuan har dezala eskatzen dute > 04

EUSKARA > IKASKETAK

Euskara ikasteko aukera asko

Udal Euskaltegiek ikasturte berriko eskaintza aurkeztu berri dute > 05

HIRIGINTZA > BIDEGORRIAK

Bi herriren lotura ia gertu dago

Eskualdeko bidegorri sareko zati garrantzitsu bat ia gertu dago: hain zuzen, Aretxabaletan, Foru Aldundiak bukatu du zati bat, eta lehendik Udalak egindakoa bazegoenez, biak lotzeko zatia bakarrik falta da. Hori datorren urtean gertu egongo da.

Lotura hori asko erabiliko dela aurreikusten da. > 07

POLITIKA > IBAETA

Ibaetako agiria, udaletara

Astlehenean aurkeztuko dute agiri hori Arrasateko osoko bilkuran > 06

Mojategiko kirol instalazioak udaberrirako gertu egongo dira

Arrasateko kirol instalazio berrien lanak aurreikusitako epean doaz aurrera, eta 2007ko apirilera gertu egongo direla aurreikusten da. Aste honetako osoko bilkura berezian onartu zuten 1,5 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua instalazio berrien ekipamendurako.

Urtarrilean adjudikatuko dituzte hainbat lan, atletismo pistako zorua, adibidez. > 18



LANEAN Instalazioetako harmailak prestatzen dihardu langile batek.

XABIER URTZELAI

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08

Elkarrizketa > 09

Iritzia > 10-11

Gutunak > 12

Herriak > 15-39

Kirola > 40-41

Kultura > 45

Sailkatuak > 46

Eskelak > 47

Denbora-pasa > 48

Gazteak > 50

Telebista-Irratia > 52

Komunikazioa > 53

Non-zer > 54-55

Audi A3 Sportback
Automobil hutsa baino gehiago.

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Kalitatezko ametsak

bede

Koltxoi dendak

Zatoz Bergarako denda berrira eta zure poltsikoak atseden hartuko du

Arrizuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 76 25 91
Zarugalde 25 / ARRASATE
Tel.: 943 77 18 35

ETXEBIZITZA > KANPOKO IKASLEAK GUREAN BIZI IZATEN

Pareko prezioa eta kalitatea dituen etxea aurkitzea zaila dela diote ikasleek

DESOREKA Bizi-kalitatea eskatzen dute ikasleek -berogailua, banakako gelak...-, eta hori prezio onean aurkitzea zaila izaten dela diote

WEBGUNEAK Mondragon Unibertsitatearen webgunean iragarkiak jar daitezke; horrez gain, lagunen bidez aurkitzen dute gehienek etxebizitza

ETXE-AGENTZIAK Etxebizitza bila dabilzan askok jotzen dute etxe-agentzietara, baina etxe-jabe oso gutxi; hilean bat edo bi eskaintza bakarrik egoten da

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko unibertsitate zentroetako ikasle gehienek datoren astean hasiko dute ikasturtea, hilaren 26aren inguruan. Hainbat ikasle Debagoienekoak bertakoak izango dira, baina kanpoko beste asko datoz urtero Arrasateko Goi Eskola Politeknikora, Oñatiko Enpresa Zientzien fakultatera eta Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatera. Horieta askori, ikasturte aurreko hila-beteek buruhaustea dakarkiete: etxebizitza bilatu behar dute.

Hainbat ikaslerekin, etxe-jabekin eta etxe-agentziarekin berba egin eta gero, ondorioa da arazoak egon badaudela, batez ere prezioa eta kalitatea ez datozelako beti bat; baina, bestetik, azkenean ikasle gehienek aurkitzen dutela bizilekua unibertsitate-tik gertu, eta eurek ere gutxieneko baldintza batzuk ipintzen dituztela: bizi-kalitatea nahi dute.

ETXE-AGENTZIETAN ERE BAI

Etxebizitzak errentan ematen edo eskatzen iragarkiak ikastetxeetan bertan ipintzen dituzte

askok; azken urteotan, Mondragon Unibertsitatearen webgunean (www.mondragon.edu/zerbitzuak/ostatua helbidean) tarte berezi bat dago eskatzaileek eta eskaintzaileek iragarkiok jar ditzaten. Jende askok modu hori erabiltzen du; eta oso sarri erabiltzen den beste bidea da bata besteari esatea: etxebizitza uztera doan edo bete nahi duen ikasleak lagunei esaten die. Gehienak apiril edo maiatz inguruan hasten dira etxebizitza bila; baina irailean ere oraindik egoten dira premian dauden batzuk.

Normalean, etxe-agentzietara ez dute jotzen, etxe-jabeek; bai, ordea, ikasleek. Hala, Deba Garaia etxe-agentziako Antxon Arregik dioskunez, "oso etxe-jabe gutxi etortzen dira gure bidez iragartzera, hilean bat edo bi izaten dugu; hona etortzen direnek ez dute nahi izaten ikasleak hartzea. Etxebizitzek 550 eta 700 euro arteko alokairua dute, hiru logelakoak dira eta unibertsitate-tik gertu egoten dira". Arregik dioenez, etxeak "nahiko ondo" egoten dira, baina "behar-beharrezko" ekipamenduarekin.

Etxe-agentziek diotenez, alokairua 550-900 euro bitartekoa izaten da, baina 1.000 euro ingurukoak ere egoten dira

"Dezente begiratu behar da etxe egokia aurkitzeko, eta gehienak zaharrak dira, berogailurik gabe, eta garestiak", dio ikasle batek

Ekos etxe-agentziara ere urtero joaten dira ikasleak etxe bila, hango arduradun Gema Baltzategik dioenez. Irailerako, gutxi joaten dira, logela bila ez bada. Egunotan, bi etxebizitza dituzte eskaintzeko. Alokairua 600 eta 900 euro bitartekoa izaten da. Baltzategiren esanetan, "etxebizitzak nahiko berriak izaten dira, eta ikasleak ere ez dira edozer gauzarekin konformatzen, badakite zer nahi duten: berogailua, ikasteko mahaia eta egongela eskatzen dituzte".

Etxe-agentziek berme batzuk ere eskaintzen dizkiote errentariari, etxe-jabeari: hala, fidantza eurek kudeatzen dute, eta ohar-tarazten diete maizterrei etxea zaindu behar dutela. "Inoiz izan da apurketa handiren bat, baina normalean ondo zaintzen dute etxebizitza", dio Baltzategik.

"ZAHARRAK ETA GARESTIAK DIRA"

"Etxebizitza aurkitzea ez da zaila; baina bai gustukoa aurkitzea", dio Naiara Errondosoro 20 urteko donostiarrak. Bera Arrasaten bizi izango da ikasturtean zehar. Bere ustez, badago nahi-



IRAGARKIAK Unibertsitatean edo Interneten iragartzen dira.

koa eskaintza, eta eurak ohi baino beranduago hasi baziren ere -uztail inguruan bila zebiltzan oraindik-, azkenean aurkitu dute non bizi. Hiru lagun bizi izango dira etxebizitza horretan, eta gustura daude. "Prezio ona du, eta etxea ere ondo dago", esaten du.

Kalitate bila ere ibili da Idoia Aizega hernaniarra, hura ere Arrasaten ikasle. Eta horixe da, hain justu, faltan igartzen duena etxebizitza gehienetan: "Dezente begiratu behar izan dugu egokia aurkitzeko. Gehienak etxe zaharrak izaten dira, berogailurik gabe, eta garestiak:

Autobusez joan-etorria egiten dute ikasle askok, egunero edo astero

Mondragon Unibertsitateak bi laguntza mota eskaintzen die ikasleei: bata webguneko iragarki zerbitzua da; baina asko erabiltzen den beste zerbitzua garraioa da. Hori astean barrena Debagoienean bizi direnek ere erabiltzen dute: hala, Oñatira Azpeititik eta Zornotzatik eta bueltan daude autobusak egunero. Aukera bat da asteleheneko etorrera eta egubakoitzeko buelta bakarrik egitea. Adibidez, Azpeititik joan-etorria eginez gero, 312 euro kostatzen da aukera hori. Azpeititik egunero joan eta etortzen denak 1.300 euro ordaindu beharko ditu.

Arrasatera joateko, Pesaren autobusak daude Donostiatik eta Gasteiztik; eta Eibarbus-Arkatzen enpresarenak Ermutik. Azkenik, Eskoriatzara joan-etorriak antolatzen dituzte Apaolaza eta Zubiate enpresek, Zumarragatik eta Durangotik, hain zuzen. Eskaintza guztien gaineko informazioa dago www.mondragon.edu/zerbitzuak webgunean.

Debagoieneko ohiko errentak eta Donostiakoak nahiko parekatuta daude

Donostia da, Euskal Herri osoan, etxebizitza-merkatu garestienetakoa duen lekua. Ikasleendako alokairuko etxebizitzetan ere horrela gertatzen da; baina Debagoieneko prezioak ez dira haien oso desberdinak.

Hala, Donostian, hiru logelako etxebizitza bat 750 eta 1.000 euro bitarteko alokairuan egoten da; gurean, 600 eurotan dago beheko muga, eta milakoak gero eta ohikoagoak izaten dira. Erresidentzien artean, denetarik dago: 800 eurotik 986 eurora bitarteko prezioak dituzte.

Debagoienean zein Donostian, prezioen eta errenten eboluzioa oso antzekoa izan da, hau da, oso urte gutxian igoera handia izan dute. Hala, Donostian, azken bost urtean, norberaren gutxieneko errenta %30 igo da: 2001en 210 bat euro ziren, eta gaur egun, 300 euro da gutxienez.

Hori bai: Debagoienean, jende gutxi konformatzen da ikastetxetik urrutiko bizi izatera. Donostian, aldiz, prezioak agintzen du gehiago.



zen dira etxebizitza edo bizilaguna behar dutenak. Argazkian, Oñatiko fakultateko bi ikasle eskolako iragarki-oholari begira.

L.K.

di-da batean

Leire Kortabarria

Bata edo bestea aukeratu behar

Ikasleen etxebizitzek idazterakoan, neure ikasle garaia datorkit burura, eta badirudi egoera gutxi aldatu dela: etxebizitza onak, eta oso onak ere, badaude, baina zaila da horiek aurkitzea. Norberaren etxean logela errentan ematen dutenek, adibidez, badute kalitate berme bat, baina besteetan, kasu bakoitzari erreparatu behar zaio.

Ikasleek ere etxe duina behar dute bizi izateko, baina prezioa neurritz kanpoko da askotan -zer espero daiteke, salmenta prezioak ere ikaragarriak direnean?-. Bata edo bestea aukeratu behar denean, kalitatearen alde egiten dute gehienek, baita kostua balioa baino altuagoa denean ere.

NORBERE KABUZ EZARTZEN DIRA

Arazoak eta arriskuak ager badaitezke ere, kontua da gazte gehienek nahiago izaten dutela euren kabuz bizi izatea erresidentzian baino. Hala ere, aukera hori kontuan hartzekoa da ere: Arrasaten, Biteri ikastetxe nagusia dago, 278 lagunendako, bakarreko, birendako edo hirurendako logelekin. Iaz, hiruko logela bat 4.186 euro zen pertsonako eta ikasturte osorako. Leku gehienak, ez guztiak, hartuta egoten dira.

Oñatin, bestetik, Larraña egoitza dago fakultatearen ondo-ondoan, 60 lagunendako lekuarekin. Hor, birendako logelan egoitea 4.275 euro kostatzen da; bakarrendako, 4.660. Hor lekuen erdiak daude orain hartuta, eta hor ere normalean leku batzuk libre geratzen dira.

merkeena 600 eurotan uzten dizute, gastuak aparte, eta 1.000 euro ere eskatu izan digute". Azkenean, Arrasateko lagun baten bitartez aurkitu dute leku on bat.

Prezioaren eta kalitatearen arteko aldea da kexu hedatuena. Jone Golvano bilbotarra ere Goi Eskola Politeknikoan dabil, aurreten hirugarren urtez. Ekainean

aurkitu zuen etxebizitza hiru lagunekin. Guztiz konforme ez dira geratu, ordea: "Konturatu gara arazo batzuk dituela, urihesak dituela; baina hantxe geratuko gara". Golvanoaren iritziz, euren kasua ez da ezohikoa: "Jabeek ez dituzte etxeak ondo prestatzen, eskaera handia dagoelako. Eta garestiak dira: aurreten,

lau lagun gara eta bakoitzak 200 euro ordainduko dugu hilean. Hori bai, handia da eta unibertsitate bost minutura dago".

Etxe-jabeei dagokienez, Gema Baltzategi etxe-agentek dioenez, "jende gehienari berdin zaio ikasleak errentan ematea". Arrasateko Felix Mari etxe-jabea Bañez Doktorea kalean duen etxebizi-

tza erakusten dabil egunotan. Bost urtean izan ditu ikasleak edo irakasleak etxebizitzan, eta "orain arte, ondo, arazo barik" ibili dela diosku. "Errenta puntual ordaintzen didate, eta ez dute kexurik izaten. Gustura egoten naiz". Etxe-jabe gehienei bezala, Felix Mariri ikasle askok deitzen diola esaten digu berak.

MILAR ELKORO

Eta orain ere... **SUKALDE ALTZARIAK!**
- Eskatu aurrekontuak konpromiso barik.
- Neurritara egindako finantzaketa.



Milar Elkoro Olarte, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86



Aprobetxatu
renove plana!

~~774 €~~
75 € Renove plana
699 €

ENERGIA KLASEA: A
ARRASTOEN AURKAKO TITANIOA
NO FROST

COMBI BALAY 3 KFL 7650

ENERGIA KLASEA: A +
GARBIGAILUA AEG L5212



Garbigailua
~~450 €~~
75 € Renove plana
375 €



LEKUA Kokapen zehatza ez dago erabakita, baina Arrasateko Hiper Eroskiren ondoan, Altzibar eta Ibaiondo baserrien inguruan (argazkian), egin nahi dute merkataritza-gunea.

XABIER URTZELAI

MERKATARITZA > ARRASATEN MERKATARITZA-GUNE HANDIA ERAIKITZEKO ASMOA

Zabaletako merkataritza-gunearekin kezkatuta daude ibarreko merkataria

Proiektuan jasotzen da 28.000 metro koadro izango dituela guneak; 200 dendarendako lekua

Ibarreko merkatarien elkarteetako ordezkariak alderdi politikoen iritziak jaso nahi dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Arrasate kanpoaldean, Zabaletan, merkataritza-gune handi bat egiteko proiektua dago. Merkataritza-gune hori gaur egun Eroski dagoen inguru horretan egongo da. 28.000 metro koadroko azalera izango du, eta horietatik, 18.000 metro koadro eraikita. Hau da, 200 dendaren azalera gutxi gorabehera.

Bada, proiektu hori dela-eta, Debagoieneko dendariak kezka azaldu dute, herrietako denda txikietan izan dezakeen eraginarengatik.

Arrasateko Ibai-arte, Aretxabaletako Aretxarte, Oñatiko Txanda eta Bergarako Bedelkar elkarteetakoek zera diote: "Zer gertatuko litzateke Arrasate eta Debagoieneko beste herriekin?

Zer gertatuko litzateke gure herrietako dendekin, gertukoekin, konfiantzazkoekin, betikoeekin? Garbi dago merkataritza-gune handi hori zabalduz gero, merkataria askok gure dendak itxi beharko genituzkeela eta, ondorioz, gure herriko kaleak hutsik geratuko lirakeke, bizitza gabe".

DENDARIAK ELKARTUTA

Kezka azaltzeaz gain, Debagoieneko lau merkataria elkarteetako ordezkariak zenbait bilera izan dituzte. Horrelako gune batek Arrasaten ez ezik Debagoieneko beste herrietako merkataritzan ere "izugarritzako kalteak eragingo litzateke" uste dute. "Eibar, Irun eta Errenterian garatu diren

ereduak gure eskualdean aplikatzea galaraziko luke, hau da, herriko erdigunean bertan azoka, denda txikiak, marka ospetsuak eta aisialdia elkartzea", diote dendari txikien ordezkariak.

Datozen egunetan alderdi politikotako ordezkariak hitz egiteko asmoa dute. Proiektu horren aurrean bakoitzaren ikuspuntua zein den ezagutzeko eta, ondoren, hartu beharreko neurriak zein diren zehazteko.

IRITZIAK

Merkatarien artean ere askotariko iritziak daude. Aretxarteko presidentek esan digunez, "oraingoz informazio gutxi daukagu eta ez dakigu zehazki zer ipi-

niko duten merkataritza-gune berrian. Negoziaren arabera ere kaltea ezberdina izango da. Beharbada arropa dendetan eragingo du gehien. Merkataritza-gunea ez ezik aisialdi-gunea ere baldin bada, ez da hain kaltegarria izango, horrela ibarretik jendea ez delako hainbeste joango Gasteizera, esaterako, eta gurean ere kontsumituko duelako".

Ibai-arte presidentek, Angel Alonsok, azaldu du ez dardela proiektuaren aurka, "baina oso kezkatuta gaude. Merkataritza-gune bat egiteari ez deritzogu gaizki, baina herri erdian egitea hobe litzateke. Jendeak aisialdia eskatzen du eta ez dendak bakarrik dauden leku bat".

I A A R D C L Z M U S I K A B M O C P O I A A R D C L Z P L I
L R S E C E T R E L I B H E V G O I N A L R S E C E T R E L I
P A A I S O E L K A R Z R E A R O Ñ D E P A A I S O N C N B C
A S R T V P T Q B Ñ T D H E H L M N Q Q A S R T V P T Q B Ñ T
L N D L I B U R U A K E K V E O E T N O L N D T N A T R R Q H
V S H T E L K A R F M S S B Ñ D V L A I S I A L D I A A R F M
V S H Ñ I N L S N E A B A R A O B M I V V S H Ñ I N L S N E A
Z H K U L T U R A A Ñ R I G S S A A R R A S A T E N E P E A Ñ
T E H H Q L F P T A A Q E H L H Z F R C T E H H Q L F P T A A
E T V D L E T E S C Z M Z L A Ñ D A A M E T V D L E T E S C Z
I S Ñ V R F I H R T A N L U H L R Ñ K U I J O K O A K H R T A

Kultura eta aisialdian gura duzun guztia

Erdikokale, 14 - ARRASATE

ekar
elkar ezagutzen dugulako

www.elkar.com

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

UDAL EUSKALTEGIAK > IKASTURTE BERRIKO PROGRAMA AURKEZTU DUTE

Eskaintza zabala eta ordutegi malgua dute udal euskaltegiek ikasturte berrian

Astlehenean hasiko dituzte eskolak, eta izena ematen dutenen artean matrikula bat zozketatuko dute

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Ikasturte berria hastera doaaz ibarreko udal euskaltegiak, eta egun hauetan aurkeztu dute euren programa: eskaintza eta ordutegi malgua dira ikasturte berriaren ezaugarri. Eguneroko beharretara egokitu dute eskaintza eta ordutegia udal euskaltegiek, eta, horregatik, betiko eskolak ez ezik, askotariko sektoreetara egokitutako eskolak eta Internet bidez etxetik jarrai daitezkeenak ere eskainiko dituzte ikasturte berrian, besteak beste.

ETORKINENDAKO ERE BAI

Ikasle motari ere erreparatu diote udal euskaltegiek eskaintza zabaltzeko: "Ikaslearen adina igotzen doa batetik, 40 urtetik gorakoak dira gehienak", dio Maria Dolores Letek, Bergarako Udal Euskaltegiko zuzendariak. "Bestetik, etorkinak ere baditugu herrian eta horiei ere eskaini nahi diegu Aisa izeneko programa", dio Alex Labaienek, Bergarako euskaltegiko irakasleak.

Arrasateko Udal Euskaltegian ere erakusten diete euskara etorkinei: "Azken bizpahiru urte hauetan, ume etorkinei zuzendutako eskolak ematen ditugu", dio Amaia Aranek. Leintz euskaltegian ere dagoeneko eman dute izena etorkin batzuek: "Taldea sortzen ez bada ere, beste ikasleekin batera sartuko ditugu eta errefortzua emango diegu, orain arte moduan", azaldu du Karmele Agirregabiria zuzendariak.



AURKEZPENA Ikasturte berria aurkeztu du asteon Bergarako Udal Euskaltegiak.

O.E.

EUSKALKIA IKASTEN

"Hemen ere ikasle asko 40 urtetik gorakoak dira. Gazteak etortzen dira EGA edo bestelako tituluak ateratzeko edo baita euskal-

kia ikastera ere", zehaztu du Amaia Aranek, Arrasateko Udal Euskaltegiko irakasleak.

Begarako Udal Euskaltegian ere bertako euskara lantzeko ikas-

taroak emango dituzte, Udaleko Euskara Zerbitzuak lagunduta. Horrez gain, egokitutako ikastaroak eta Internet bidez etxetik ikasi ahal izateko aukerak ere eskaintzen dituzte Bergaran. Arrasaten ere badituzte ordenagailuak eta Leintz euskaltegietan datorren urtean jarriko dituzte.

DIRULAGUNTZAK MATRIKULARAKO

Udal euskaltegietako matrikula ordaintzeko dirulaguntzak ere badaude. Adibidez, izena ematen duten ikasle guztien artean matrikula bat zozketatuko dute. Bergaran, gainera, beste matrikula bat zozketatuko dute bertako ikasleen artean. Horrez gain, eskolen %85era joanda, matrikulako zenbateko bat itzultzen dute ikasturte bukaeran eta bekak ere ematen dituzte.

Arrasateko Udal Euskaltegiak 25 urte

Arrasateko Udal Euskaltegiak 25 urte bete ditu aurten. Eskola profesionala gela txiki baten hasi ziren orduko irakasleak eskolak ematen eta urtebetera oraingo eraikinerara pasa ziren. Miren Arregik 24 urte daramatza irakasle Arrasateko Udal Euskaltegian, eta ondo gogoratzen da urte haietaz: "Ez genuen apenas materialik euskara irakasteko. Euskaraz irakurtzeko ere oso aldizkari gutxi zeuden. Baina orduko ikasleak eta gaurkoak ez dira berdinak. Lehen beste giro bat bizi genuen, beste militantzia bat genuen guztiok. Afari asko egiten genituen ikasleekin eta benetako praktika orduak izaten ziren haiek", dio Arregik.

Zilarrezko ezteiak ospatzeko ekitaldiak ikasturtean zehar egingo dituzte. Bestalde, Bergarako Udal Euskaltegiak 24 urte bete ditu aurten eta Leintz Udal Euskaltegiak, 21.

> ENPRESAK

AEBak dira Orbearen atzerriko lehen merkatua

MCC barruan dagoen Orbea enpresak gero eta gehiago saltzen du Ameriketako Estatu Batuetan. Joan den urtean, kooperatibaren salmenta guztiaren %22 han egin zuten eta aurten %32ra iritsi nahi dute. 2005ean 48,5 milioi euro fakturatu zituen Orbeak, horren %62 atzerriko salmentetatik.

> JAIK

Oñatiko jaien gehigarria banatuko du GOIENKARIAK

Oñatiko San Migel eta Errosario jaien inguruko gehigarri berezia banatuko du GOIENKARIAK datorren martitzenean. 24 orriko gehigarria izango da eta jaien gaineko hainbat albiste ekarriko ditu, egitarauaz gain. Gehigarria etxeko postontzian jasoko dute oñatiar guztiek.

> HEZKUNTZA

Idazle Eskolak zabaldu du izenemate epea UNEDen

Idazle Eskolak ikasturte berriko programa aurkeztu du aste barruan Donostian eta matrikulatzeko epea zabaldu du aldi berean. Idazle Eskola UNEDen eskaintza berriena da eta ikastetxe horrek Bergaran duen erakinean emango dituzte eskola horiek. Idazle Eskolak bermatu gura du edozein lanetan euskaraz idazteko gaitasuna, eta euskara ohikoa ez den alorretan erabilgarria izateko baliabideak eman gura ditu, bide batez.

Matrikulazio epea asteon zabaldu dute eta irailaren 30ean itxiko dute.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ALDERDI EGUNA > MILAKA JELTZALE BATUKO DIRA DOMEKAN FORONDAN

Bergarakoek bakarrik ipiniko dute aurten karpa Alderdi Egunean

Irailaren 24an, domeka, egingo du ospakizuna EAJk Forondan

Arrasatekoek aurten lanik egin gabe jai giroan ospatzea erabaki dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
EAJ alderdiak Alderdi Eguna ospatuko du domekan, irailaren 24an, *Euskaldunon hitza* lelopean. Gasteizen, Forondako zelaian izango dira ospakizunak. Eta Debagoienak ere izango du ordezkari jai giroan ospatzen den egun horretan.

Goizean goiz hasiko dira ekitaldiak: 10:00etan ongietorria egingo diete herrietatik Forondara iritsitakoak eta 10:30ean meza izango da hizlarien tribuna aurrean. 11:15ean agintarien eta udal erakundeen desfilea egin eta 12:00etan Ikurrina altxatu ostean etorriko da eguneko ekitaldi

nagusia: ekitaldi politikoan, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Euzkadi Buru Batzarreko presidentek, Josu Jon Imazek, egingo dute hitzaldia. Horren ostean herri kirol saioa dago iragarrita 13:15erako.

Bazkalorduan bakoitzak nahi duen karpa edo txosna aukeratu du. Izan ere, hainbat herri-tako ordezkariak ipini ohi dituzte jantokiak euren aterpeetan. Arratsaldean, berriz, jai giroa izango da nagusi.

Txikiendako ere izango da gune berezi bat, *Esadazu euskara* izeneko. 4 eta 14 urte bitartekoendako karpa da, eta, beste-

ak beste, arratsaldean disko festa eta txokolate-jana egongo dira. Haur parkea ere gertatu dute.

ARRASATEKOEK TXOSNARIK EZ

Ibarreko EAJko ordezkariak ere Forondan izango dira domekan; batzuk lanean eta parrandan besteak.

Arrasatekoek orain artean txosna eta karpa gertatu izan dituzte, baina aurten ez ipintzea erabaki dute: "Aurten 111 urte bete dira alderdia sortu zela eta lanik egin gabe jai giroan ospatzea erabaki dugu. Beste urte batzuetan 250 lagunendako bazkaria gertatu izan dugu, eta sukaldetan, tabernan zein mahaiak zerbitzatzen lan handia egin behar zen. Gurera Oñatikoak, Aretxabaletakoak, Aramaiokoak... etortzen ziren bazkaltzera", esan digute Arrasateko batzokian.

Arrasatek zenbat lagun joango diren esatea zaila dela gaineratu digute; izan ere, nor bere autoetan joaten dira Alderdi Eguneran.

BERGARAKO KARPAN 110 BAZKARI

Bergarakoek, urteroko ohitura-ri jarraituz, aurten ere ipiniko

dituzte txosna eta karpa: "110 lagunendako bazkaria zerbitzatu da gurean, *catering* batetik ekarrita. Txartel gehienak saldu daude dagoeneko. Oñatitik talde handi bat etorriko da gurera bazkaltzera, baita urtero etorri ohi diren Amarako lagunak ere", esan digute batzokian.

Txosnan ere, urtero bezala, pintxoak, salda eta edariak edukiko dituzte: "Lanean, txandak eginez, 60 lagun inguru ibiliko gara egunean barrena".

Bergarakoek Forondara joateko autobusa antolatu dute. 09:00etan irtengo da 55 lagunekin geltokitik. Gainontzekoak autoetan joango dira.

EGUBAKOITZETIK KANPALDIA

Hori guzti hori domekan izango bada ere, irailaren 22, 23 eta 24rako kanpaldia antolatu du alderdiaren gazte erakundeak, EGIk, *Bide berriak, helburu bakarra: independentzia* lelopean. Gazteek zapatu eguerdirako bazkaria, Etxe Bakarlarriaren emanaldia, disko jaia Joseina Etxeberriarekin, abentura parkea... antolatu dituzte kanpaldiko ekintzen artean.



ERAGILEAK Arrasaten agiria sinatu dutenen ordezkari batzuk, euren helburuak azaltzen.

GOIATZ ARANA

IBAETAKO AGIRIA > PRESOEN ESKUBIDEAK

Ibaetako Agiria, osoko bilkurara

Arrasaten astelehenean bozkaturiko dute presoena eskubideen aldeko mozioa

Herritarrei eskatu diete nork bere inguruan salatzeke preso politikoek bizi duten egoera

I.A. > ARRASATE

Euskal preso politikoaren eskubideak bete daitezkeen eskatzeko dokumentu bat sinatu zuen iaz, azaroan, hainbat eragile sozialek eta sindikalek Ibaetan.

Uda bitartean dokumentua herritarrei zabaltzen jardun dute Portaloira topaguneko kideek, eta hainbat ekintzatan herritarren babesa jaso zuten: Jon Agirrerren askatasuna eskatzeko lanuztean, elkartasun egunean...

Besteak beste, kultura, lan, irakaskuntza, euskalgintza eta kirol arloetako norbanako eta taldeek azaldu dute atxikimendua.

PRESOEN ESKUBIDEAK BETETZEKO

Orain, jasotako atxikimenduekin, udaletxera jo dute, dokumentua Udalak ere babes dezan. Horretarako mozio bat aurkeztu dute, eta asteleheneko osoko bilkuran bozkaturiko da.

Ibaetako Agiriaren bidez eragileek eskatzen dute honako eskubideak betetzeko: "Tratu duin eta begirunezkoa jasotzekoa, osasunarena, komunikazioarena, hizkuntzarena, hezkuntzarena, amatasun eta aitatasunarena, askatasunarena eta kolektibo gisa Euskal Herrian eta elkarrekin bizi izateko eskubidea".

Arrasateko Udalera ez ezik gainontzeko udaletara ere eraman nahi dute mozioa, zera eskatzeko: "Inguruan egoera salatzeke eta mobilizazioetan parte hartzeke; batez ere hileko azken egubakoitzetan egiten diren bilkuretan". Udaletzeko balkoian *Euskal presoak Euskal Herrira* ikurra ipintzeko ere eskatu dute.

0 km

ESKAINZA BEREZIAK

- C-Max Focus TDCi

- Fiesta TDCi

- Mondeo TDCi

- Fusion TDCi

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

Servimasa

Sukalderako altzariendako osagarriak

FAGOR



etxetresna elektrikoak

- Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
- Baldintza ezin hobekak

Tel.: 943 76 19 95
BERGARA



BIDEGORRIA Bizikletan nahiz oinez estreinatuko du jendeak bidegorriaren zati berria.

MIRARI ALTUBE

BIDEGORRIA > ARRASATE ETA ARETXABALETA ARTEKO ZATI BAT BUKATU DUTE

Eskualdea bidegorriekin lotzea, gero eta gertuago

Arrasate eta Aretxabaleta datorren urtean lotuko dituzte eta Aretxabaleta eta Eskoriatza bidegorriekin lotzeko proiektua martxan dago

OIHANA ELORTZA > ARETXABALETA

Arrasate eta Aretxabaleta ia lotuta daude bidegorriekin. 190 metroko bidegorria egin dute Arrasaten auto kontzesionarioak eta elikagai denda batzuk dauzen tokitik Aretxabaleta sarrean dagoen lehen industria pablioiraino. Gipuzkoako Aldundiak egin du zati hori. Aretxabaletako Udalak 400 metroko beste bidegorri zati bat eginda zuen aurretik eta bien artean dagoen zatia egitea falta da orain. Erdiko zati horrek 206 metro ditu eta Aretxabaletako Udalak onartu du proiektua hango bidegorria egiteko. 2007aren hasieran hasiko ei dituzte lanak eta datorren urtean, beraz, bidegorriekin ere erabat lotuta egongo dira Arrasate eta Aretxabaleta.

baletako Udalak onartu du proiektua hango bidegorria egiteko. 2007aren hasieran hasiko ei dituzte lanak eta datorren urtean, beraz, bidegorriekin ere erabat lotuta egongo dira Arrasate eta Aretxabaleta.

BERGARATIK LANDARAINO

Asmoa da Debagoiena osoa zeharkatuko duen bidegorria egitea eta horren pauso bat da Arrasate eta Aretxabaleta bitarteko zatia.

Aretxabaleta eta Eskoriatzaren arteko ere martxan dago.

"Aretxabaleta barruan 1.800 metroko bidegorri urbanoa egin dugu, lurreen seinaleak jarrita: urrian hasiko gara egiten Santutxutik Errotabarrira eta handik Eskoriatzako industria-guneraino Aldundiak egingo du gero", azaldu du Jose Mari Segoviak, Aretxabaletako Udaleko Hirigintza teknikariak.

LKSk Landatik Bergararainoko bidegorri sarearen proiektua du eginda: "Zati bakoitzak bere baldintzak ditu eta proiektua gauzatzea kosta egiten zaie. Eskoriatza eta Landako zatian Bidegi, Mankomunitatea eta Aldundia daude eta Arrasatetik Bergara aldeko zatia tranbiak baldintzatzen du", azaldu du Marco Segurok, LKSk teknikariak.

HISTORIA > ARIZMENDIARRIETAREN BIZITZA ESPIRITUALA JASOKO DUTE

Arizmendiarrietaren ahotsaren grabazioa aurkitu dute eta DVD baten sartuko dute

Azaroaren 29an, 30 urte beteko dira Jose Maria Arizmendiarrietari hil zela, eta ordurako kaleratu gura dute DVDa

O.E. > ARETXABALETA

Jose Maria Arizmendiarrietaren bizitza espirituala jasoko duen DVD bat prestatzen ari dira, abade ezaguna kanonizatzeko prozesua ireki dutela aprobetxatuta.

Horretarako, haren irudiak eta ahotsa lortu gura zituzten, DVD baten sartzeko, eta lortu dituzte.

Filmotekako irudi batzuk eta argazkiak ere badituzte lanerako. Ahotsa lortzeko, hainbat irratitara eta inguruko medioetara jo dute laguntza eske eta herriar batek 1972ko udazkenean Arrasaten grabatu zuen Arizmendiarrietaren hitzaldiaren grabazioa utzi die erabiltzeko. Orain, haren ahotsaren antz handia duen lagun bat aurkitu gura dute DVDan sartzeko, eta abadearen ahotsaren ezaugarriak aztertzen ari dira orain.



ABADEA Jose Maria Arizmendiarrietari.

kontsumoa



Liburuetan eta materialetan 170 euro gastatzen da batez beste. I.A.

Eskolarako itzulera familiendako %7 garestiagoa da ikasturte berrian

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Kontsumitzaile Independenteen Elkarteak azterketa egin du, eskolarako itzulera familiendako zenbateko gastua dakarren jakiteko. Horren arabera, ume bakoitzeko, batez beste, 816 euro gastatzen dituzte; aurreko ikasturtean baino %7 gehiago. Gastua ezberdina da eskola publiko kontzertatu eta pribatuetan. Matrikularen kostua 120 euro da, batez beste, kontzertatu eta 240 euro pribatuetan. Jantokiko gastuak hilean 65 eta 150 euro artekoak izan daitezke; eta garraioarenak, berriz, 60 eta 120 euro artekoak. Arropa eta uniformeetan 135 eta 300 euro artekoak izan ohi da batez besteko gastua. Liburu eta materialaren kasuan, mailaren arabera aldatu egiten da kostua, baina, batez beste, 170 euro gastatzen dituzte familiak ume bakoitzeko. Kontsumitzaile elkarteek dirua aurrezteko emandako gomendioa da liburuak erostean eskaintza bereziak eta deskontuak baliatze eta markako arropak ahalik eta gutxien erosteko.



Gasolioaren eta gurpilen prezioa garestitu egingo da

Espainiako Gobernuak gasolioari eta gurpilei dagozkien zergak igo egingo ditu las-ter; zentimo bat erregai litroaren kasuan, eta bi euro autoen gurpilean. Erregaiaren igoera Bruselaren aginduak betetzeko egingo du; gurpilena, aldiz, birziklapena finantzatzeko. 1,28 euro igoko da motorren gurpil bakoitzaren prezioa; automobil arruntena 2 euro, 4 euro 4x4 ibilgailuena, 12 euro pasa kamioiena eta 40 euro arteko igoera gurpil handien kasuan. Igoera hori urrian aplikatuko dute.



Urrian hasiko ditu hegaldiak Clickair konpainiak

Iberia partaide den Clickair konpainia hasi da hegaldi merkeetarako txartelak saltzen. Urriaren 1etik aurrera egingo dituzte bidaiak: Bartelonatik Genevara, Sevillara, Lisboara eta Zurichera; Valentziatik Parisera eta Erromara; eta Sevillatik Parisera. Asmoa da beste hiri batzuetarako hegaldiak eskaintzea aurrerantzean. www.clickair.com helbidean hegaldi guztietarako 100.000 plaza ipini zituzten salgai domekan, bost eurotan. Horri gehitu behar zaizkio aireportuko tasak.

gure artekoak

JAKION > Produkzioari irtenbide bat emateko baserriarrek sortutako elkarte da. Debagoieneko nekazaritza produktuak gertatzen dituzte enpresan eta produktu tradizionalak merkatura atera ere.

Susana Aiaštui

"Makinak ditugu, baina gure lana %90ean artisau lana da"

I. AGIRREAZALDEGI > LEINTZ-GATZAGA
Baserrietan egin ezin daitezkeen eraldaketak egiten dituzte Jakionen. Baserriarrek batutako produktuak zuzenean bertara eramaten dituzte eta eskuz eta modu naturalean lantzen dira enpresan.

Nolatan sortu zenuten Jakion?

Orain dela hamar urte behar bati erantzuteko sortu genuen. Baserrietan, batez ere udan, produktu asko alferrik galtzen zela ikusi genuen. Bestalde, gero eta emakume gehiagok etxetik kanpo lan egiten duenez-eta, denbora laburragoa dago jatekoak gertatzeko; hala ere, denoi gustatzen zaigu bertako produktuak jatea. Merkatuan baziren gertatutako gauzak, baina ez baserrikoak. Beraz, soberan zeuden produktuak poteetan sartu eta jendeari eskura ipintzea pentsatu genuen.

Zein produktu estimatzen dituzte gehien jendeak?

Denetarik. Jendearengandik hain gertu egonda, zuzenean esaten digute zer duten gustuko; eta guri errentagarri ez zaizkigunak baztertu egiten ditugu.

Nora zabaltzen dituzue?

Euskal Herrian denda txikiei ematen diegu lehentasuna. Gure produktuak kontserbagarririk



Tere Herrasti, Eguzkiñe Alberdi eta Susana Aiaštui, Jakioneko langileak. MIRARI ALTUBE

FITXA TEKNIKOA

> PRODUKTUAK

Frutekin egindako marmeladak, zatitutako barazkiak (aza, lekak, zerbak, kalabaza, porruak, tomateta...) eta azukrerik gabeko fruten pureak dauzkate.

> OTARRAK

Oparitarako otarrak gertatzen dituzte; tartean Jakioneko produktuak sartzen dituzte.

> BASERRIAK

Urte osoan barazkiak eta fruituak zortzi baserriatik jasotzen dituzte.

gabekoak eta bertako lehengaiekin eginak dira eta informazio hori modu egokian azaltzen dute dendariak. Merkataritza-etxe handietan ere aurki daitezke.

Eskuz egiten duzue lan guztia?

Makinatxo batzuk sartu ditugu, baina %90 artisau lana da.

Aurrera begira zein asmo duzue

Plan estrategikoa egin nahi dugu. Eskerak gora doaz, baina lokala txiki geratzen ari da. Beraz, azterketa egin nahi dugu produkzioaren eta salmentaren gainean.

etxeke leihotik



Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

Euskarazko telebistak eskualde guztietan

Euskarazko Tokiko Telebistak sortzeko taldea aurkeztu dute hainbat komunikazio enpresak. Ongi etorri! Albiste pozgarria, zalantzarik barik, telebisten artean, baita tokikoen esparruan ere, erdarazkoak direlako nagusi eta asko geure gertuko errealitateari uko egiten diotenak direlako. Horregatik, euskarazko tokiko telebistak ahal den toki guztietan sortzea beti da komenigarria.

Gainera, batu diren komunikazio taldeen atzean, ideologia, estrategia eta ikuspuntu ezberdinekoak daude. Izan ere, besteak beste, *Berria*, *Deia*, *Gara* eta Noticias taldeko egunkariak argitaratzen dituzten enpresek sortu dute. Hau berria da eta itxaropena sortzen du.

Badaukat kezka bat, hala ere: une honetan lanean eta emititzen diharduten GOITB moduko euskarazko tokiko telebistak batzen dituen elkarte, Tokiko, ez da enpresa berri horretan inon ageri; ez dute aintzat hartu, nahiz eta hasierako bultzagile, akuilu eta bitartekari izan. Espero dut etorkizunean begirune handiagoz jokatzea, bereziki geurean 15 urtetik gora lanean diharduen telebista batekiko, eta ez dezatela errekadutarako bakarrik erabili.

> 40 urte egin ditut oraingo astean. Txiki-txiki nintzela hasi nintzen gurasoen eta anai-arreben eskutik Agorrosingo igerilekue-tan; alabekin ibili naiz plisti-plasta asteburuan Agorrosin berrian.

> Danbaka ate joka dago. Aurten ere ez dut hutsik egingo. Disfrutatzera! A, finalerako Delorean ekarriko nituzke. Sekulako kontzertua egin zuten Bergarako gaztetxean zapatuan.

"Euskarazko tokiko telebistak nonahi sortzea beti da oso komenigarria"

begi-bistan



Driron elektratresna (Arrasate) 2006/09/21

Argazkia: Fagor.
Testua: Irati Agirreazaldegi.

Argazkian agertzen den hozkailu itxurako tresna Fagorrek merkaturatu berri duen Driron elektratresna da. Edozein arropa garbitu ostean, bertan sartu eta lehortuta eta lisatuta atera dezakegu.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Ivan Vaz

MODA DISEINATZAILEA



Aitor Uriarte

MUSIKARIA



Pablo Mongelos

MCC-KO ZUZENDARIA

Aretxabaletarrak Devota y Lomba markarendako egindako jaka bat aurkeztu du Cibelezen. Aurrez marka horrendako Vazek egindako soineko bat Veronica Blume modeloak jantzi zuen Madrilen. Egunerako, berriz, Gasteizen erakutsi zituen bere diseinuak.

Oñatiarra abeslari duen UNE (Une Nare Eza) taldeak diskoa argitaratu du Oihuka disko-etxearekin hilaren bukaeran. Hamar abestiz gain, bi bideo-klip (*Bihozkadak* eta *Hemen* kantuenak) eta CD-ROM berezi bat izango ditu lan berriak. Rocka eta metala nahastuko dituzte.

MCCko Promozio Zentroko zuzendari arrasatearra izango da Lagun Aroko zuzendari berria. Euskadiko Kutxara joan den Elias Atutxa ordezkatu du. Enpresa Zientzietako ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean eta Fagorren egin du lan jarduna.

Atzo, eguena, alzheimer gaixotasunaren nazioarteko eguna ospatu zuten eta Afagik, alzheimer gaixoen familien elkarteak, lelo hau aukeratu du: *Orain ez nauzu ezagutzen, baina bada- kit nor zaren; alzheimerra duenak ondoan zein duen ez ezagutu arren, ondokoak bestea zein den badakielako. 4.000 gipuzkoarrek baino gehiagok dute alzheimerra.*

Agustin Sagasta > Neurologoa

"Ariketa mentalak medikamenduak bezala dira alzheimerra dutenendako"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Agustin Sagasta arrasatearra Gesalibarko Aita Menni ospitaleko neurologoa da azken bederatzi urte hauetan. Alzheimer gaixotasunaren aurrean zer egin daitekeen azaldu du martitzenean Monterronen egindako hitzaldian.

Nola antzematen da alzheimer gaixotasuna?

Hasierako sintomak dira, adibidez, gertatu berri diren gauze-kin ahaztea, oroimen falta, izaeran aldaketak izatea edo norma-lean egiten zituen gauzak egiteari uztea. Askotan ingurukoak ere ez dira konturatzen lehenengo sintoma horiekin.

Noiz hasi behar dute ingurukoek arduratzen eta nola lagun diezaioke alzheimer duenari?

Normala ez den zerbaitez konturatzen diren bezain laster. Beti ez da alzheimerra izaten, depresioa ere izan liteke, adibidez, baina onena da medikua- rengana joatea ahalik eta azkarren.

Ze pauso jarraitu behar dira alzheimerra duen gaixo batekin batera bizi izateko?

Kasu bakoitza partikularra da. Lehen fasean errazagoa da gaixoa zaintzea, gertutik zaindu behar badute ere, baina gaixotasuna hazten doan neurrian, etxetik kanpoko laguntzak ere behar izaten dituzte senide askok: instituzioen laguntza edo medikamenduena, adibidez. Orientazio faltagatik, gaixoak ez daki zer egin behar duen eta kontrol arazoak izan ditzake: etxetik alde egin dezake edo izaera bortitza har dezake, eta hori ere arazo bihur daiteke ondokoendako. Aurrerago, mendeko bihurtzen dira eta beste modu batera lagundu behar zaie, askotan 24 orduz behar dute eta laguntza.

Zenbat fase ditu?

Alzheimerra ezin da faseka zenbatu; luzea eta motela da.

Ze adinetik aurrera dator alzheimerra?

Hirugarren adinarekin lotuta dagoen gaixotasuna dela pentsatu dugu beti. Egia da orain lehen baino gazte gehiagotan atzematen dutela gaixotasun hori, baina hori da alzheimerra hobeto ezagutzen dugulako eta gero eta lehenago joaten garela-ko medikuarengana.



Alzheimerrari buruz hitz egin du Agustin Sagastak Monterronen.

O.E.

65 edo 70 urtetik gorakoek dute gehienbat eta zenbat eta zaharrago, orduan eta arrisku handiagoa izateko.

Sexu edo herrialde bereizketarik egiten du alzheimerrak?

Badirudi emakumeek gizonak baino gaixotasunari gehiago sufritzen dutela, baina gai hau asko eztabaidatu izan da. Izan daiteke emakumeak gizonak baino urte gehiago bizi direlako, baina ikerketa batzuek diote alzheimerrak lotura duela estrogenoekin, hormona batzuekin, eta horregatik izaten dutela gehiago emakumeek.

Herrialdeei buruz, berriz, ikusi dute gaixotasunari gehiago kostatzen zaiola agertzea gune urbanoetan landa inguruko herrietan baino. Horregatik esaten dute landa inguruan bizi direnei kaletarrei baino errazago etortzen zaiela gaixotasun hori. Baina horren arrazoia ez da landa ingurua kaltegarria dela, bai-

FAMILIA

"Gaixoa hobetzea izaten da guztion ardura, baina familiak ere sufritzen du alzheimerra"

SENDABIDEA

"Oraingo aukera terapeutikoak mugatuak dira, baina ikertzen jarraitzen dute"

SINTOMAK

"Oroimena galtzea eta ohiko gauzak egiten uztea dira lehen sintometako batzuk"

zik inguru horretan bizi den jendeak maila kultural txikiagoa izan duela eta buruko ariketa gutxiago egiten dituela.

Noraino heldu dira sendatzeko ikerketak?

Aurreikuspen handiak daude: gaixotasuna motelduko duten sendagaiak edo tratamenduak laster aurkituko dituztela uste dute. Ez dakigu gaixotasunaren jatorria zein den, eta, beraz, ez dago sendabiderik, baina bizpahiru urtean aterako dituzten tratamenduek gaixotasuna motelduko dutela uste da, hiesarekin egin duten modura, adibidez.

Hala ere, medikamendu horiek kaleratu arte, aukera terapeutikoak mugatuak dira, egia esan. Bizi kalitate maila hobetzen laguntzen dute, baina mugatuak dira, bai.

Aurten 100 urte bete ditu alzheimerrak. Askok edo gutxi?

Orain 100 urte izen hori jarri zioten, baina gaixotasuna betidanik egon da. Adinari lotuta dago eta agian lehen ez zuten gaur beste ezagutuko, orduko pertsonak ez zirelako gaur beste urte bizitzen batez beste.

Zergatik oroitzen dira hain ondo haurtzaroz alzheimer gaixotasuna dutenak?

Azkena ikasi edo ikusi dute-azken ahazten dira lehenengo eta poliki-poliki oroimena galtzen doaz gero. Haurrak bezala pentsatzen dute gero, eta esaten da haurtzarora bueltatu direla.

Zergatik kontrazten dizkiete txanponak gaixoei?

Gaur egun ez dago gaixotasuna gelditzeko tratamendurik eta moteltzen duten sendabide alternatiboak bilatzen dira horien lekuan. Ikusi dute zenbat eta adimen landuagoa izan orduan eta geroago agertzen zaiela alzheimerra. Ikerketa batzuetan egiaztatu dute horrelako ariketak egun erabiltzen diren medikamendu askoren parekoak direla.

Noiz hasi behar dute egiten ariketa horiek?

Gaixotasunaren hasieran egitea da ona. Horregatik, senideei ere aholkatzen diegu horrelako ezagutza ariketak, buruko gimnasiak, eginaraztea gaixoei.

Familiak ere gertutik sufritzen du alzheimerra?

Bai. Gaixoa hobetzea izaten da guztion ardura, baina lehenago edo geroago familia osoak sufritzen duela esango nuke nik. Bukaeran, gainera, gaixoa ez da kontziente zer gertatzen zaion edo non eta norekin dagoen eta sufrimendu handiena sendikoek, gertukoek, izaten dute.

Zertarako balio dute nazioarteko egunek, zure ustez?

Gaixotasun horrek oihartzun handia du mundu guztian. Kontzientiazioa sortu gura dute horrelako egunek, gaixotasuna ezagutzera eman eta ahalik eta informazio gehien zabaldu.

Ezkutatzen dira oraindik horrelako gaixotasunak?

Ez lehen beste. Batzuetan, ordea, gaixoak ez du hasieratik esaten alzheimerra duenik, oroimena galtzen ari zarela konturatzeko oso gogorra delako. Gero, ordea, ezin daiteke ezkutatu.



zabalik

Andoni Urtzelai

Matematiketan... zero

Badut tabernaria den lagun bat. Beno, tabernaria zen lagun bat, hobeto esanda, itxi egin baitu negozioa. Ez zion tabernak, antza, bizitzeko lain ematen. Txundituta begiratu nion lagun tabernari horri albistea entzun nuenean. "Nola da posible?", galdetu nion, "bezeroz gainezka egoten duk taberna!". "Ez zagok dirurik", erantzun zidan, "jendeak ez dik deusik kontsumitzen".

"Hara", jarraitu zuen, "matematika hutsa duk, kontuak ez dituk ateratzen: auto modernoak zeuzkeagu, oporretara gero eta leku exotikoagoetara joaten gaituk eta ia hilero arropa berriak erosten dizkiagu...".

"Gehituok guzti horri kristolako hipotekatzarra ordaindu beharra, eta gero esaidak ea nola demonio heldu haitekeen hil bukaerara".

"Jesus!", arbuiatu nion, "ez duk horren zaila. Itota baldin bahago auto txikiago bat erosi eta fuera. Oporrak, berriz, ba kanpinean. Eta arropa, iazkoa jantzi eta hor konpon!". "Hola balitz!", esan zuen lagunak, "itxurakeriaren gizartean bizi gaituk, motel!".

"Planta hutsa duk dena! Jendeak ez dik norberarentzat gatzatzen, besteentzat baizik. Akaso ez dituk inoiz zine, antzerki edo kontzertuetara joango, ez ditek euro bat CD edo liburutetan gatzatuko, baina auto erraldoi baten barrenean, etxe berri puska batean eta boladako arropekin jantzita ikusiko dituk guztiak!".

Nire lagun horrek taberna itxi duenetik etxean ematen dituk orduak eta orduak, imaginatzen dudun moduan, gainontzeko europarrak bezala. Atzo bakarrik hitz egiten hasi nintzen. Beste taberna baten bila hasi naiz.

"Oporretara gero eta leku exotikoagoetara joaten gaituk..."

"Planta hutsa duk. Jendeak ez dik norberarentzat gatzatzen, besteentzat baizik"

AGORROSIN GUNEA

Igerileku berria egin dute Bergaran; tamaina dezentekoa izan arren, sakonera ez dela oso handia esan digu irakurle batek eta jakin nahi du hori zergatik den.

Udaleko Kirol teknikari Unai Asurmendik eman digu galdera horren erantzuna. Kirol instalazio berriak egiteko orduan, irisgarritasuna oso kontuan hartu dutela kontatu digu hark. Eta igerilekuko sakonerarik ezaren arrazoia horixe dela argitu digu: "Igerilekuak dauka 1,20, 1,60 eta 1,40 metroko sakonera, toki ezberdinetan. Hori horrela, jende gehienak lurra zapaltzen du igerilekuaren leku gehienetan".

ARETXABALETA ETA ARRASATEREN ARTEKO BIDEGORRIA

Artetxabaletatik Arrasatera egiten ari diren bidegorriak itxura polita badu ere, badago zati bat oso-oso estua dena, lehendik dagoen porlanezko bidetxoa, hain zuzen ere. Ez dakigu hori horrela utziko duten edo zabaltzeko asmoa duten; benetan penagarria litzateke egin den lana egin eta gero zatitxo hori horrela uztea. Irakurle batek kontatu digu hori, eta jakin gura du zertan geratuko den.

herritarrak galdezka

teke egin den lana egin eta gero zatitxo hori horrela uztea. Irakurle batek kontatu digu hori, eta jakin gura du zertan geratuko den.

Aretxabaletako Udaleko Hirigintza teknikari Jose Mari Segoviak jakinarazi digu zati hori konpondu egingo dutela: "CVL lantegia eta orain egin berri den bidegorria arteko zati horren gaineko proiektua idatzita dago eta Aretxabaletako Udalak onartuta ere badago.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

Diputazioko Errepide Sailarekin zehaztutako aurreikuspenak betetzen badira, obra hori 2007ko urtarrean egingo dute.

MODU EFIZIENTEAN GIDATZEKO IKASTAROA

Arrasateko irakurle batek zera idatzi digu: "Interes handia nuen ikastaro hori egiteko, modu efizienteangidatzen erakusten duena. Baina nahastu egin naiz eta izenemate epea galdu dut. Posible da egunean bertan joatea?"

Ikastaro hori Udaleko Ingurumen Sailak antolatuta du; eta hain justu ere, sail horretara jo dugu, erantzun bila. Esan digutenez, ikastaroa egubakoitz arratsaldetan eta zapatuan egin behar zuten, baina jende gutxi eman du izena, eta ondorioz, egubakoitzean bakarrik egingo dute. Oraingoan, leku guztiak hartuta daudela esan digute, baina interes handia izanez gero, joan dadila diote udal txetetik, norbaitek kale egiten badu haren lekuan ipiniko dutela. Eta besterik ez bada, ikastaroaren alde teorikoa entzun ahal izango duela ere esan digute.

marrakiz

Unai Busturia



Goienkaria

Argiriratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarría **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziorza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jauriaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Busez

Elena Laka

www.goiena.net/blogak/elena

Kotxean bakarrik ibiltzea gustatzen zait. Kotxean sartu, irratia piztu, eta nahiz euri nahiz eguzki, eroso barruan. Etxeko eta bulegoko zereginen artean niretako hartzen dudun tarte eta espazio bat da. Baina pertsona bat-kotxe bat printzipioaren kontra nago. Automobil gehiegi dago leku guztietan, gehiegi erabiltzen ditugu, eta molestatu egiten dit inguru guztiak kotxez beteta ikusteak.

Deba arroko autobus zerbitzu berria pozik hartu dugu etxean. Egunero Bergarako erdigunetik Arrasateko erdigunera joaten da Iñigo, eta ni Eibarko erdigunera. Autobus zerbitzua gure etxerako apropos pentsatuta ematen du, eta lehen egunetik ordutegia isekita dago sukaldeko kortxoan. Zerbitzu kolektiboa erabiltzearen aldeko militante bihurtu gara.

Iñigok aste osoa darama autobusean. Nik gaur egin dut lehen aproba.

Etxetik geltokira, zortzi minutu pausu arinean. Geltokira iritxi eta inolako

informaziorik ez. Ez panelik, ez kartel sistinik be. Autobusen orduak, noiz pasa den azkena, zein datorren hurrengo... ezer ere ez. Etorri da bat, Eskoriatzaruntz zihoan.

Etorri da bigarrena, Bergaran bertan bukatzen zen. Etorri da hirugarrena, Eibarrera-koa. Jarritako ordua baino hamar minutu beranduago. Hiru lagun igo gara, bat barruan zegoen. Bi mutil ikasle itxura-adinekoak, neska gazte bat eta ni. Euro bat hogeitabost zentimo. Ez bonobusik, ez txartelik, banan-banan kobratu behar du gidariak.

plazara

Memoria historikoa berreskuratzeko (eta kasu batzuetan berri-
tzeko edo berraztertze, Espai-
niako eskuinekoen aldetik batez

ere) azkenaldian boladan diren
argitalpenengainean dihardu egi-
leak. Edo, hori aitzakia hartuta,
gure gertuko benetako historia txi-

kiak berreskuratzeko egin diren
eta egin beharko genituzkeen
ahaleginak ditu hizpide Iñaki Gal-
dos EAko ordezkariak.

Iñaki Galdos *

Gure gertuko historia 'txikiak' ezagutarazi

Francok estatu kolpea eman eta, ondorioz, gerra zibila eragin zueneko 70. urteurrenean gaudelako-edo, azken hilabeteetan izugarritzko uholdea izaten ari gara garai haietan eta gerra ondorengo urteetan gertatu zenaren berri ematen diguten liburu, aldizkari, elkarrizketa, pelikula eta abarrena. Gauza gehiegi batera, agian, horiek guztiak luzamendurik gabe aztertu nahi dutenentzat!

Handinahiez sortutako dokumentuak dira gehienak, gertatutakoaren behin betiko azterketa erantzunezin bihurtu nahi dutenak. Bestalde, askoren harridura eta haserretako, Francoren, frankismoaren eta gerra zibilaren irakurketa errebisionista ere modan jartzen ari da zenbait esparrutan, NO-DOaren DVDen banaketa eta guzti!

Horiek guztiak hor daude, nahi dituenak irakurri, ikusi, goza, azter, eztabaida edota arbuia ditzan. Dena etorriko da ondo orduan gertatutakoaren benetako ikuspegi zabala izan nahi badugu.

Baina garai haietara hurbiltzeko, badago beste bide bat ere, nik gaur hemen aldarrikatu nahi dudana eta askotan eraginkorragoa dena: tokian tokiko orduko historiak, sufrimenduak, gertaerak, testigantzak ezagutzearena. Historia txikiak idatzi dut izenburuan, baina ez garrantzirik ez dutelako, euren esparrua txikiagoa delako baizik. Eta zorionez, Debagoiengan badugu gai horretan nondik edan. Ez naiz hasiko hemen Oktubre Taldeak urte luzez egindako izugarritzko lana gogoratzen, oso ezaguna baita gure artean. Ezta



dagoeneko oihartzun zabala lortu duten eta gure bailarako informazio zabala ematen duten beste hainbat liburu gomendatzen.

Ez. Azken hilabeteetan hantzen aurkitutako 136 bitxi aipatu nahi nituzke, ezezagunagoak direlako, baina Debagoiengo herrietako orduko giroaren eta hainbat gizon eta emakumeren sufrimenduen argazki ederra ematen dutelako.

Hasteko, duela hilabete batzuk izugarri liburu interesgarria argitaratu du Bidasoa elkarteak. Bertan, On Jose Migel Barandiaranek 1936-1937an jaso zituen 136 pertsonen testigantzak batzen dira, denak Hegoaldetik Iparraldera ihes egindakoak. Urte luzez lur-

"Azken hilabeteetan izugarritzko uholdea izaten ari gara Espainiako gerran gertatu zenaren berri ematen"

"Tokian tokiko orduko historiak ezagutzea aldarrikatu nahi dut oraingoan hemen"

pean gordeta egon ziren lekukotzak dira eta asko –ez denak– orain arte ezezagunak izan direnak. Bada, Debagoiengo informazio aberasgarria ematen da liburu mardul honetan. Besteak beste, Arrasateko Luis de Arrizabalaga, Juliana Guridi eta Nikolas Uriarte; Aretxabaletako Maximo Alberdi eta Peli Ugalde; Oñatiko Miguel Enparantza eta Bergarako Gabriel Goitia elkarrizketatu zituen On Jose Migel Barandiaranek Iparraldera ihesik iritsi zirenean (Juliana Guridi izan ezik, hau, ihes eginda zegoen semearen ezkontzara joan baitzen).

Berriki ezagutu dugun beste liburua Pedro Barrusok idatzia da, 1936-1945 bitartean Gipuzkoan egon zen errepresio politikoari buruzkoa. Izugarri aberatsa hau ere gure bailarako orduko errealitate gordina ezagutzeko, aipamen asko eta asko egiten baitu, oso ondo dokumentatuak, Debagoiengan izandako jazarpenari buruz. Gure inguruko jendearen oso historia hunkigarriak ezagutzeko aukera eman digu liburu honekin idazle donostiarrak.

Bi adibide besterik ez dira gaur hona ekarriak, baina asko daude. Again, Debagoiengan gero eta komunikabide talde sendoagoa dugun honetan ez litzateke ideia txarra izango historia txiki hauek ezagutaraztea. Azken finean, gure inguru hurbilenean gertatua ezagutzen, ulertzen eta aztertzen ez badugu, nekez uler dezakegulako benetan zer gertatu zen orduan Euskal Herrian.

* Iñaki Galdos EAko Gipuzkoako presidentea da

zer deritzozu?

www.goiena.net

Ikasturte berrirako plan berririk?

BAI	%50
EZ	%50

> TXORRADA BAT

Ez dut planik egin eta txorrada bat iruditzen zait halakoetan ibiltzea urtea hasten den edo udako oporretatik bueltan etortzen garen bakoitzean. Plan gutxiago eta ekintza gehiago
Pepe

> PROIEKTU BERRIAK

Hara bestia. Txorrada bat, zergatik? Urtarua, ikasturtia, urtia... aldatzen dan bakoitzian, gauza berrixei ekitia ez dot uste txorradia danik.
Lorea

> TXINTXOA IZANGO NAIZ

Aspaldixen nebillen asmuarekin eta, azkenien, izena emon dot ingeles akademixan. Nire ingeles mailla eskasa hobetzen hasi gure dot lehenbailleen.
Ikusle

> IGERI EGITERA

Bai. Bergaran piszinak azkenean zabaldu ditxuztela-eta, ni igeri egiten hastekoa naiz udazken-neguhonetan.
Samu

DATORREN ASTEKOA: Lamikiz da Athleticen arazoan errudun?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

- top

Bergaratik irten, autopista hartu, eta hamabost minutu baino lehenago Eibarko Ego-gaineko estaziora iritxi gara. Ez da bidean geratu. Eroso etorri naiz, txoferrak Radio Euskadi ipinita zeukan, bolumen normal batean. Saiatu naiz tartean liburu bat irakurtzen, baina mareatu egiten nintzen. Ego-gainen jexi, eta lau bat minututan bulegoan.

Gustora zerbitzuak ondo funtzionatu duelako. Informazioan hobetu beharra dauka. Autobus barruan ere ez zegoen ez ordutegien ez geltokien informaziorik. Bestela, ba ondo. Mesede egingo digu denoi.

Sartu naiz gurpilean

Usoa Agirre
www.goiena.net/blogak/tuttifrutti

Eta ez diot hori spinninen apuntatu naizelako. Gaur aterata dute azken asteotan herrian espero zen lista famatua: Antzuolako Eguzkia auzoan egingo dituzten 20 etxebizitza tasatuetarako hautatuen behin behineko zerrenda. (...)

Gaur argitaratu dute eta hor nago ni lehenengo postuan, iuju! Etxe tasatua tokatu zait! 30 kilo inguru dira, baina

inguruan dauden prezioekin alderatuta txollo bat da, ez?

Etxetik joateko gogoz nabil aspaldian. Baina, pare bat urte itxoin beharko dut oraindik. Bitartean, zer? Aita eta anaia-ekin geratu edo alokairuan jarri? Lehenengo aukeratu beharko dut; errenta ordaintzen hasten banaiz etxea ordaintzeko ez dut izango-eta!

Bueno, tokatu zait etxea. Orain, hainbeste eta hainbeste jende sartuta dagoen gurpilean sartuko naiz: maileguak, interesak, euriborra... lortuko dut irtetea? Orain, behintzat, Ikeara joateko eskusa bila ibili beharrik ez daukat, ja!

koplak

Jesus Kortabarría 'Kaxeta'

Bakearen nazioarteko eguna

Nazioarteko egunak dira munduan sarri ospatzen. Hogeita bata irailarena ere bakearena zen.

Entzutetsua da izen hori hemen, gure inguruan. Ea ohartzen garen behingoan horrek zer esan nahi duan.

Bost hizki ditu soilik halere mamia eta azala badauzka eta edonork ere gogoan hartu ditzala.

Bakoitzak badu zer ikusia bakoitzak du zer egina. Hobe genuke gu egunero ahaleginduko bagina.

Politikoak ere badabiz Deiar eta orrua. Zerbait nahasten baldin bazaie beti besteen errua.

Beraz, lan egin bakean alde ez egun baten bakarrik. Egun denetan saia gaitzen badago eta beharrik.

Ez gaitzatela engainatu

Zorione Aperribai
Aretxabaleta

Azkeneneko denboraldian hain entzunda egon den Lurraldebus-en ordutegiari buruz zera esan nahiko nuke. Zerbitzu indartu hau martxan dagoela jakin genuenetik astetxo batzuk pasa dira eta ez zait iruditzen erabiltzaile-ontzat diotena bezain mesedegarria denik.

Hasteko, egia da toki ezberdinetara joateko aukeak handitu direla. Hau lortzeko garrantzitsuagoak diren herrietatik, nagusiki Arrasate, linea berri asko sortu dituzte. Berrikuntza hau izan da, antza denez, autobus konpainiak gehien azpimarratu duena bere publizitate kanpaina honetan.

Baina honek Arrasate ez diren beste herriak aukera gutxiarekin uzten ditu. Adierazi nahi dudana da, lehen ez bezala, bidaia asko zuzenean egitea posible izan behar, orain arrasatearra ez den edonori beharrezkoa zaiola gutxienez bi autobus hartu behar izatea. Esaterako, Oñati eta Eskoriatzako ikasleen kasuan (Unibertsitatean bi herritakoak), egunero joan-etorria egin behar dute, lehenengo Arrasatera eta gero hurrengo.

Honek dakartzan erosotasun faltak gutxi balira ere, galera ekonomikoa ez da txikia.

Izan ere, ordutegia ezarri aurretik joan-etorriaren kostua eguneko 2,50 eurokoa zen, eta oraingoa ia bikoiztu egin da.

Beraz, onurak norentzako dira? Herritarrentzako? Edo bailara honetan garraio publikoko enpresa bakarra izanda gutaz aprobetxatzen ari al da?

Besterik gabe, komunikabideek ez zaitzatela engaina. Aukerak denontzat, baina PESA zena "kapitalekoak" ez garenon kontura ez dadila aberastu!

Domekan autobusez Donostiara

Dabid Belategi
Arrasate

Hori zen aurreko domekan lagun batzuek eta nik genuen intentzioa. Goizean 10:30eko autobusa hartu Arrasaten eta Donostiara heltzean Urgull aldetik

Biteri Biterira!

Julia Monge eta Juan Ramon Garai > Arrasate

Orain dela egun batzuk gutun bat argitaratu genuen zenbait egunkaritan. Gutun hartan zera eskatzen genuen: Pedro Biteri arrasatearraren harri irudia plaza berrira eroatea. Esan behar da plaza hori apaintzeko Arrasateko Udalak eskultura lehiaketa antolatu duela.

Oraingo astean, berriz, egunkari batean irakurrita jakin dugu, harriduraz, baina baita pozez ere, Arrasateko alkateak onartu duela Biterik bere tokia merezi duela herrian eta onartzen duela hutsegitea dela San Juan taldean jarraitzea haren harri irudiak.

Zerk eragin du, hortaz, alkatearen erabaki aldaketa? Zer gertatu da bat-batean Biteri ahaztua izatetik onartua izatera pasatzeko?

Uste dugu pertsona askok ikusi dutela begi onez leku aldaketaren proposamena, eta pertsona horiek hala adierazi dute hainbat modutara; besteak beste, erakusketan galdetuaz eta lehiaketarako prestatutako paperetan proposamen honen alde bozkatzuz.

Orain, eta alkatearen adierazpenen ostean, geratzen dira zehazteko epeak eta aldaketa egiteko prozedura.

Horregatik, eta berriro ere ahaztua gera ez dadin, animatu gura ditugu oraindik Monterronetik pasa ez diren guztiak ekimen honen alde agertu daitezela, paperetan jarritz: *Biteri Biterira!*

estropadak ikusi, ondoren bertako giroan murgildu eta gaua heldu aurretik Arrasatera bueltatu, berriz ere autobusez.

Geltokira heltzean ikusi genuen ez ginela ideia hori izan genuen bakarrak, jende dezente baitzegoen, baina sorpresa autobusa betetzean etorri zen. Txoferrak esan zigun berak ezin zuela jendea zutik eraman, bestela isuna bere gain hartu beharko zuela eta gainera ez zeudela autobus gehiago gu eraman ahal izateko, eta horrela utzita alde egin zuen Donostiarantz. Hamabi pertsona geratu ginen Arrasaten eta gero jakin ahal izan nuen beste hainbat Bergaran. Gu autoz joan izan ginen, baina genuen plana guztiz aldatu zitzaigun, estropadak telebistan ikusi behar eta txoferra alkoholik edan gabe arratsalde guztian.

Uste dut ez zela horren zaila izango egoera hori aurreikustea, jakina baita urtero estropadek mugitzen duten jende multzoa; gainera, kontuan hartu behar da domeka honetan De Juana Chaos-en manifa zegoela eta baita Realaren partidua Anoetan.

Ikusten ari naiz azken asteotan izugarriko propaganda Lurraldebus-en zerbitzuen inguruan eta garraio publikoaren erabilera sustatu nahian, baina aurreko asteburuan gertatutakoak autobusa erabiltzeko gogo guztiak kendu dizkit. Uste dut erabiltzaileari ziurtasun bat eman behar zaiola autobusa hartzeko orduan eta ez jende

"gehiegi" egongo denaren beldurrez joan behar geltokira (ez baita antzeko zerbait gertatzen zaidan aurreko aldia).

Amaitzeko proposamen bat: txoferrak esandakoaren arabera 200 euroko isuna jartzen diote zutik doan erabiltzaile bakoitzarengatik. Antzeko isun bat nahiko nuke Pesarendako geltokian uzten duen pertsona bakoitzarengatik, seguru aski interes gehiago jarriko luke beste autobus bat bilatzeko orduan.

Gora, banderadunak!

Mireia Larrañaga
Bergara

San Martin bezperako nagusien danborradan aurten ere jende mordoak parte hartu du; eguraldiak lagundu ez zuen arren, ikusten ere jende asko egon zen. Artatse elkarteak 25 urte betetzen zituenez talde handia irten zen danborradan. Aurten, besteetan ez bezala, soinuarekin ez da arazorik egon. Dena dela, gehien poztu ninduen banderadunak izan ziren. Azkeneko urteetan neskatala oso gazteak joaten ziren nagusien danborradan bandera eramaten, baina aurten emakume talde bat animatu da eta oso ondo egin zuten euren lana. Kontuan hartuta azkenaldian jendearen parte-hartzea krisian dagoela, txalo bero bat banderaduneri.

Bergara Aurrerako hautetsiei, Agorrosinen inguruan

Iñigo Iñurrategi
(Bergarako Aralar
Udal Taldearen izenean)
Bergara

Aurreko astean, Bergara Aurrerako hautetsiek, GOIENKARIAko orri hone-tan, igerilekuei buruz emandako informazioa argitu nahi dugu. Kalean orain igerilekutan hasierako aurrekontuaren bikoitza gastatu dela entzuten da. Faltsua. Emandako datuek benetan kezkatu gaituzte, herritarrek manipulazio gutxiago eta seriotasun gehiago merezi baitute. "Igerilekuak dira PNV eta EA alderdiek, azken agintaldian Aralarren laguntzarekin, Udal Gobernuan burutu duten gestio eskasaren adibiderik garbiena" zioen mezuak, besteak beste proiektu osorako hasierako aurrekontua (ideien lehiaketakoa) 4.500.000 euro izan zela eta dagoeneko 7.800.000 euro gastatu direla adieraziz. Beste inori aurpegia ateratzeko asmorik gabe, datu objektibok emanez herritarrei argibideak eman nahi dizkiegu.

Ez da oso serioa ideien lehiaketarako zifra hori erabiltzea, besteak beste gutxi gorabeherakoa izaten delako. Baina, gainera, tranpa dauka datu horrek, 4.500.000 euro horiek exekuzio materialaren aurrekontua besterik ez baitira, eta besteak beste gastu orokorrrak, irabazi industrialak edo BEZa falta dira. Hori diru gehiegi da salaketa serio bat egiterakoan ahaztuta lagatzeko, eta hori jakin beharko zenukete.

Baina, gainera, 2001eko abenduaren 13an erabaki zen Alvaro Perez de Amezaga eta Jorge Muntañolak aurkeztutako proiektu eta aurrekontua (6.600.000 euro, hortik 600.000 euro futbol zelairako, gehi 451.000 euro arkitektoaren minuta) onartzea.

Beste batzuen artean, Jesus Mari Garitano eta Mikel Eguren abstenitu egin ziren. Beraz, zuek aipatzen duzuen hasierako 4.500.000 eurotik 7.800.000 eurora dagoen diferentziaren arrazoi nagusia erabaki horretan dago. Eta ez zineten kontra agertu.

Aralar Taldea Bergarako Udalean 2003ko udan sartu ginen. Agorrosingo proiektua erabakita zegoen. Gure

aldetik, lehenengo fasearen planteamendurekin (orain inauguratu den zatia) ados geunden eta lehenbailehen exekutatzeko premia ikusten genuen, denbora luzatzen ari zelako eta herritarrok instalazio egoki barik geundelako. Futbol zelaiaren eta inguruko instalazioen planteamendurekin gure desadostasunak ditugu, eta hasieratik Bergara Kirol Elkartearekin adostasun batera iristeko ahalegina egin beharra eskatu izan dugu, eta proposamen ezberdinak jarri ditugu mahai gainean. Baina orain estreinatuta ditugun instalazioen proiektua hasieratik babestu dugu.

Igerilekua eraikitzen jardun duen Construcciones Antzibar S.A.k aurkeztu dituen fakturak esleitutako kopuruen barruan daude. Arkitekto eta gainontzekoen minutak batuta, guztira, 7.867.874,66 euro irteten da. Horri gehitu beharko genizkioke, besteak beste, tarte honetan igerileku txikia egokitu eta mantentzea, futbol aldagelak egokitzea edo Labegaraletan zenbait egokitzapen egitearen kostua.

Badugu kezka bat: kanpoko igerilekua egin gabe dago oraindik, eta berez orain arteko aurrekontuarekin egin beharko litzateke. Azalpena badu horrek, hasierako proiektuan jasotzen ez ziren hainbat gastu egitea erabaki baita (batzuk 2001ean onartutako proiektuan kontuan hartu ez zirelako edo ezuste-koak gertatu direlako, eta beste batzuk proiektua hobetzea erabaki delako). Kontua da denbora aurrera doala eta kanpoko igerilekuak noiz egingo diren ez dakigula.

Uste dugu orain arte egindako lana ondo egin dela eta esleitutako lanak kostu eta denbora aldetik egoki bete direla. Instalazioak ere, neurrikoak eta funtzionalak direlakoan gaude. Arazoak, edozein proiektutan gertatzen den bezala, izan dira. Lanak ondo joan izanaren meritua, batez ere, proiektua koordinatu duten zenbait udal teknikarirena izan da.

Hau guztiau argituta, Bergara Aurrerako hautetsiek jakingo dute zergatik eta zertarako zabaltzen dituzten era horretako mezu nahasi eta nahastaileak.

Bai zuekin, eta bai edozein beste alderdirekin elkarlanerako prest izango gaituzue, baina errespetuz jokatu. Agorrosinen oraindik hainbat lan geratzen da egiteko eta zuek hala nahi izanez gero gustura jardungo dugu elkarrekin.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13




Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Plan Bat

aurrezki-plana beraientsat




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Etxeko gazteenen plana

Euskadiko Kutxaren Plan Bat aurrezki-plana 0 urtetik 18 urtera bitarteko gazteei dago zuzenduta. Formula horri esker, hilean 30 €-tik hasita, diru bat aurreztuko duzu pixkanaka zure seme-alabak handitzen direnerako: haien ikasketetarako, haien proiektuetarako, haien ilusioetarako...

Segurtatu haien etorkizuna

Haien lehenengo plana seguruena izatea nahi dugu, Euskadiko Kutxan. Plan Batekin lasai egongo zara zuri zerbait gertatuz gero babestuta egongo direla jakinda; izan ere, bizi-asegurua duenez, zure ordezkari ordaintzen jarraituko du, zure seme-alabek 18 urte bete arte.

Planak etekina emango du bizitza osoan

Plan Batek gutxieneko errentagarritasun bat bermatzen du irauten duen bitartean. Eta horri aparteko errentagarritasun bat gehitu behar zaio.

eta hasteko, motxila

hau opari

Orain, Euskadiko Kutxaren Plan Bat egiterakoan, motxila praktiko bat oparituko dizugu, eta baita pintura-estutxe bat ere, bere irudimena askatu dezaten.



Zure ametsetako trajea dugu...

Aukerarik zabalena
festarako soineko,
barruko moda
eta osagarrietan.

Maritxu Kajoi
2006

Casa Ceciaga

Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxa: 943 79 12 62

Hizkuntza gehiago denontzat haur, gazte, helduentzat

txinera - frantsesa - alemana - ingelesa - italiara

Beste zerbitzu batzuk

- itzulpengintza eta interpretaritza
- ikastaro trinkoak
- murgiltze ikastaroak
- atzerriko ikastaroak
- ikastetxeko irakasgaietarako laguntza-eskolak

matrikula epea zabalik

Klaseak:
Aramaion, Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan, Oñatin



Arrasate
Araba Etorbidea 4 ■ Tel.: 943 71 20 55
mlarrasate@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com

Oñati
Olakua 14 ■ Tel.: 943 71 60 00
mloinati@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Mojategiko kirol instalazio berriak udaberrirako gertu izango dituzte > 18



> **BERGARA**
Aukeratu dute kilometroak 07 ospakizunerako irudia > 24



> **ARETXABALETA**
Triskantzak egiten dabil luhartza izeneko zomorroa ortuetan > 32



> **ANTZUOLA**
Etxe tasatuen behin-behineko zerrenda argitaratu dute > 36

ARETXABALETA > SEBASTIAN URIBETXEBERRIAREKIN BERBETAN

Beste hiru urterako Kolonbiara, San Clemente proiektuan jarduteko

33 URTE

Sebastian Uribetxeberriak 33 urte egin ditu han

LANA BUKATZEAR

Hiru urteotarako doa berriro, hasitako lana amaitzeko asmoarekin

ESKOLAN GIDARI

Besteak beste, 650 ikasle dituen eskola bateko zuzendari izan da, 24 urtez

A.A./U.M. > ARETXABALETA

Hiru urtean behin, Sebastian Uribetxeberria aretxabaletarra etxera dator Kolonbiatik. 33 urte daromatza han, gobernuz kanpoko Harreman erakundeak bideratutako San Clemente proiektuan. Gaur arte (egubakoitzea) gurean izan dela aprobetxatu, eta Arrasate Irratian izan da proiektua zertan den kontatzen.

LAN OSAGARRIAK EGITEKO

"Hirugarren fasean dago proiektua. Lehenengoan eraikuntza landu genuen eta makineria eraman, azpiegiturak izateko. Bigarrenean lantegietako eta eskolako granjako lana abiarazi genuen. Eta hirugarrenean, hiru lan osagarri egingo ditugu: granjan bi berotegi antolatzen gabilta; puntako teknologia sartu gura dugu, beharrezkoa delako eta hangoak hasi direlako orain arteko teknologia bereganatzen (teknologia biguna). Berotegi bat izango da mailukiak edukitzeko eta bestea tomateendako. Haiek ureztatzeko kloro bako ura behar dugu, eta euri-urak batu eta banatzeko biltegi bat ere eraiki behar dugu".

Bigarren lan osagarria da esnekien lantegia kooperatiba moduan eratzea. Eta harakintza kooperatibarako frigorifikoko hantzi bat ere behar dute (gela bat).



LEHIAKORRA Helburua da nekazaritza lehiakorra bultzatzea; argazkian, Sebastian Uribetxeberria (ezkerretik bigarrena) Kolonbian eraikitako lantegi batean. HARREMAN GKE

KONTROL HANDIA

Hori guztia ordaintzeko diruaren zatirik handiena Debagoienetik bidaltzen dute. Uribetxeberriak kontatu digu bera zuzenean arduratzen dela dirua Kolonbiako banketxe batera bideratzeaz: "Orain arte ez dugu arazorik izan, baina hango gobernuak askotan zaintza handia egiten digu, pentsatzen

duelako diru hori diru beltza izan daitekeela. Banketxeke gerentea askotan joaten da San Clementera, zer egiten dugun ikustera, eta azkenean esaten du dena ondo dagoela; ez dagoela arazorik".

AZKENEKO 'ESKUPEKOA'

Horren harira, esan digu pentsatzen duela azkeneko aldiz ipini

beharko duela orain dirua Harremanek: "Esandako osagarriak lortuz gero, hemendik aurrera geuk bakarrik antolatu eta aurrera egingo dugu". Hori lotzeko, gure ibarreko ideia kooperatiboa Kolonbian ezarri gura izan dutela kontatu digu: "Hemengo ideia han ere badugu. Nire kezka handiena da eurei zela eman hezkun-

tza ona eta liderrak edo gidariak lortzea, aurrera egiteko eta gauzak ondo egiteko. Nik uste dut hezkuntza emanez gero eta kooperatiba eta elkartasun kontua bereganatzen badute, dena joango dela ondo".

Hain justu ere, datozen hiru urteotan bere lana horretara bideratuko duela kontatu digu: "Erretiratura etorri naiz. Orain arte izan naiz zuzendari San Clemente institutuan, 24 urtean. Hemendik aurrera aholkulari kooperatiboa izango naiz. Eskolak hartu ditut horretarako Otalan eta Kolonbian. Eskolan proiektu txiki batzuk ere egin beharko ditut. Hortik aurrera nire lana bukatu egingo da eta eurek arduratu beharko dute guztiarekin".

Bukatzeke, orain arte egindakoaren datu batzuk eman dizkigu: "Eskolan 650 ikasle daude, 27 irakasle eta administrazio langileak. Eskolako granjan dira bi. Eta esnekien eta haragi kooperatibaren 40na bazkide, besteak beste".

DEBAGOIENETIK KOLONBIARA, ELKARTASUN ITURRIA

Erakunde, enpresa eta 200 partikular baino gehiagoren laguntzarekin

1997an abiarazi zuen Harreman erakundeak San Clemente proiektua. Kolonbiako erdi-mendebaldean kokatuta dagoen Risaralda probintzian abiarazi zuten hezkuntza eta ekonomia oinarri dituen proiektu hori. Honako helburua zuten: "Gazteak eta helduak heztea nekazaritza industrialean; hau da, euren lursailak sistema egokiek zela landu eta eskuratutako produktuak behar bezala zela prestatu erakustea, gero prezio egokietan saldu ahal izateko". Edo, bestela esanda, nekazaritza lehiakorra bultzatzea.

Hori oinarri hartuta, 1997tik 2005era arte honako faseak garatu dituzte San Clemente proiektuan:

esnekien lantegi bat eraiki; harakintza lantegi bat eraiki; hiltegi bat eraiki; ur-biltegi bat eraiki eta nekazaritza ekologikoa lantzen duen baxetxea sortu.

San Clemente proiektuan dagoeneko 360.000 euro inbertitu ditu Harreman erakundeak. Diru hori erakunde, lantegi eta partikularren elkartasun eta eskuzabaltasunari esker lortu dute. Besteak beste: Eusko Jaurlaritza, Arrasateko Udala, Euskadiko Kutxa, Fagorren hainbat lantegi, Ekide, Lagun Aro, Ikerlan, Auzo Lagun, Ahizke, Eroski, Athlon, Alecop eta JMA. Horrez gainera, Arrasateko 200 lagunek baino gehiagok lagundu dute proiektu horretan.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 23	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Domeka, 24	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Astelehena, 25	Zabola	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Martitzena, 26	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Eguaztena, 27	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguena, 28	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Egubakoitza, 29	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39

BERGARA

Zapatua, 23	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Domeka, 24	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Astelehena, 25	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 26	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 27	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguena, 28	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Egubakoitza, 29	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05

OÑATI

Zapatua, 23	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 24	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 25	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Martitzena, 26	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 27	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 28	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 29	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

ARETXABALETA

Zapatua, 23	Fraille	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 24	Fraille	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 25	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 26	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 27	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 28	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 29	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 12 64
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udaltzaingoa	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 53 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67

Kiroldegiak

Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53

Udalak

Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurrao, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietia, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
07:50	08:05	
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:00
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezerperan deitu: 629 54 59 23


eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 23

Egubakoitzeko eguraldiaren antzerakoa egingo du zapatuan. Haizeak hegotik joko du eta zerua garbi samar izango da. Oro har, giro polita izango dugu.




Domeka, 24

Egunean zehar nahiko ateri izango da, baina iluntzerako aldaketatxo etor daiteke, haizea aldatu eta mendebaldetik joko du-eta.

EUSKAL HERRIAN

Hego haizea izango dugu nagusi asteburuan, baina samur-samur ibiliko da. Horri esker, zeruak garbi samar izango ditugu, laino bakanak izango diren arren, batez ere, domeka iluntzean. Haizea mendebaldetik sartuko zaigu domeka gauetan edo astelehenean eta horrek okertuko du eguraldia.



oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Oinarrizko zeramika ikastaroa, laster

Oinarrizko zeramika ikastaroa emango dute urritik ekainera bitartean, Zabalotegiko dorrean. Izenematea zabalik dago 626 92 04 14 eta 943 20 65 01 telefonotan.

ELGETA

> Nafarroa Oinezera joango da talde bat

Urriaren 15ean Nafarroa Oinezera joango da elgetar talde bat, han lan egitera, eta horretarako gertu dagoen jendea behar dute. Izenematea zabalik dago Haizean edo Espaloian hilaren 24ra arte.

ARRASATE

> Zeramika ikastaroan izena eman daiteke

Zeramika ikastaroa antolatuko du Loixe elkar-teak, eta izenematea zabalik dago Gazte Bulegoan (943 77 00 65).

ARRASATE

> Guraso eskolan izena emateko mugaeguna

Gaur, egubakoitza, bukatzen da guraso eskolan izena emateko epea. 0-14 urte bitarteko gurasoendako da. Argibideak: 943 25 20 07.

ARRASATE

> Sanatana Dharmaren yoga ikastaroa

Yoga eskolak emango ditu Sanatana Dharmak urriaren 2tik aurrera. Astelehen eta eguazteneko eta martitzen eta egueneko txan-

dak antolatuko dituzte. Argibideak: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

BERGARA

> Jolasleku ibiltaria frontoian izango da

Jardunen Jolasleku Ibiltaria frontoian izango da gaur, egubakoitza. 6-12 urte bitarteko umeendako da.

BERGARA

> Aranzadiko ikasleen poteoa eta bazkaria

Aranzadi ikastolan batxilergoa egin dute-nek batera bazkalduko dute bihar, zapatua. 12:00etan batuko dira ikastolan; 12:30ean, triki-poteoa egingo dute, eta 14:30ean bazkalduko dute.

BERGARA

> Margo eta marrazketarako ikastaroa

Ume eta gazteendako margo eta marrazketarako ikastaroa antolatuko du Beart elkar-teak, urriaren 7an hasita. Izenema-

tea: 653 71 53 82 (Mayra) edo 665 70 31 75 (Oihana).

ARRASATE

> Gudari Egunerako autobusak, eta beste

Bihar, zapatua, Aritxulegin ospatuko dute Gudari Eguna, eta autobusa antolatuko du Arrasateko ezker abertzaleak. Izenematea Iratin da. Bestetik, Gudari Eguna hilaren 27an ospatuko dute Arrasaten, plazan, 19:00etan.

BERGARA

> Udal Euskaltegian izena eman daiteke

Udal Euskaltegian zabalik dago izena emateko epea. Zabalotegi kaleko 13. zenbakian dago. Argibideetarako, deitu 943 76 44 53 telefonora.

ARRASATE

> Katekesi eskolak hasten Santa Teresan

Santa Teresako lokaletan katekesia emango dute. Lehenen-

TENPERATURAK

MINIMOA

Egubakoitza, 15

11 °C

MAXIMOA

Martitzena, 19

27 °C

ASTEKO

EURIA (l/m²)

57,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 13	22 °C	17 °C	8,1 l/m²
Eguena, 14	16 °C	15 °C	16,4 l/m²
Egubakoitza, 15	16 °C	11 °C	24,6 l/m²
Zapatua, 16	15 °C	14 °C	8,5 l/m²
Domeka, 17	24 °C	14 °C	0,2 l/m²
Astelehena, 18	25 °C	14 °C	- l/m²
Martitzena, 19	27 °C	12 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA IRAILEAN

Ilbehera 14	Ilberri 22	Ilgora 30	Ilbete 7

go mailako izenematea hilaren 25ean eta 26an egingo dute, 17:00-18:00 orduetartean.

BERGARA

> Guraso eskolan izena eman daiteke

Hilaren 27an bukatuko da guraso eskolan matrikulatzeko epea. Argibideak, 943 77 91 26 telefono zenbakian.

OÑATI

> IT txartela ateratzeko azterketa izango da

Informazioaren teknologien erabiltzailer txartela ateratzeko azterketa egingo dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 09:00-11:00.

DEBAGOIENA

> Baserriko plastikoen batuko dituzte

Baserrian erabilitako plastikoen batuko ditu Deba Garaia landa garapen elkar-teak hilaren 26an, martitzena. Argibideetarako, deitu 943 76 25 47 telefonora.

ARRASATE

> San Frantzisko Xabierkoen afaria

San Frantzisko Xabier ikastolan ikasi zuten 1966. urtean jaiotakoek, hirugarren promoziokoek, afaria egingo dute. Izena emateko harremanak: Nerea Garai (943 79 90 94), Regina Heriz (943 79 34 23), Ana Villar (avillar@arizmendi.ikasitola.net) eta Aitor Elizaran (aelizaran@arizmendi.ikasitola.net).

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Zein iritzi duzu autobus zerbitzu berriaren gainean?



Esther Telleria
Langilea
Elgeta

Autobusa ez dut askorik erabiltzen, irten ere ez naiz-eta askorik irteten. Donostiara joateko noiz-behinka hartzen dut, baina inguruko herrietara autoz joaten naizenez ez daukat zerbitzuaren berri.




Enrique Morales
Langilea
Elgeta

Zerbitzuan aldaketak egin eta autobus gehiago ipini dituzten arren, oraindik nahiko urria dela uste dut. Ni autoan ibiltzen naiz, baina emazteak ez du gidabaimenik eta haren ustez eskasa da zerbitzua.



Beatriz Urriola
Langilea
Elgeta

Ez dut autobusik erabiltzen ez Bergarara ezta Eibarrera joateko. Bergararako zerbitzua ongi dagoela uste dut, baina nik Eibarrerako joera dut, eta gutxi daude. Hala ere, autoz mugitzen naiz.



Ramon Zabala
Erretiratua
Elgeta

Aldaketa batzuk egin dituzte, baina autobusak egon badaude. Hala ere, kexatu egiten gara eta gero gu gara ibiltzen ez garenak. Lehengoan ere Bergaratik etorri zen autobusetik inor ez zen jaitsi.



Libe Telleria
Langilea
Elgeta

Donostiara edo Bilbora doazen autobusen berri badugu, baina gainontzeko zerbitzuen gainean ez dakit askorik. Eibarrera joateko ere badaude, baina hori ez da zerbitzu berrien barruan sartzen.

5 galdera...

Ekaitz Vazquez

Tourline Express
Arrasate

1. Mezulari izanda, zenbat kilometro egiten dituzu automobilean?

Gutxi gorabehera 500 kilometro egunean; izan ere, probintziatik kanpora joaten naiz askotan.

2. Hori horrela, iaz egin zuen modu efizientean gidatzeko ikastaroa erabilgarri izan da zuretzako?

Dirutan lortu dut aurreztea: hamar euro inguru erregai-depositu bakoitzeko. 900 kilometro inguru egiteko gaitasuna dauka eta neuk 1.000 edo 1.100 egitea lortzen dut; 200 kilometro gehiago, beraz. Gutxi gorabehera gastatu ditut bost litro 100 kilometroko. Horrela, hamar litro aurrezten ditut, hamar euro.

3. Zeintzuk dira ikastaroan eman zizuten aholku garrantzitsuenak?

Batez ere, minutuko birak kontrolatzea, hau da, ahalik eta martxarik luzeena erabiltzea. Nik lehen itopuntuan ipintzen nuen beheranzko aldapetan, baina horrela ere kontsumitzen du erregai. Hala, orain, ahalegintzen naiz 1.500 bira minutuko ez gainditzen. Gasolina erabiltzen duten automobiletan gehiago luzatu behar da hori.

4. Esan genezake gidatzeko modu efizientea ez datorrela bat gu ohituta gauden gidatzeko erarekin?

Horrela da. Autoeskoletan erakusten dizute aldatzen minutuan 2.500-3.000 biratan, betiere automobil motaren arabera. Baina ikastaroan erakutsi ziguten zenbat eta bira gutxiago eman, orduan eta gutxiago *nekatzen* dugula automobila.

5. Hori horrela, gidatzeko modu hori bat dator puntuetan ez galtzeko gidatzeko erabili beharko genukeen moduarekin...

Hori da. Lehen pentsatzen genuen aspergarria zela gidatzeko modu hori; baina orain ezin gaitzke horren bizkor ibili; beraz, modu efizientean gidatuz gero, polikiago goaz eta, gainera, aurreztu egiten dugu.



txaloak eta txistuak



Autobus zerbitzu berria, okerrera Oñatin



Oñatiko irakurle bat autobus zerbitzu berriarekin haserre dago. Geltoki bakarra dago orain, Postetxean. Bestalde, 08:00etako Zumarragarako autobusa 08:30era atzeratu dute, 07:55ekoa Bergarara 08:15era pasatu dute, eta horrela Donostia edo Iruñera joatea zailagoa dela dio.

asteko datua

156.000

Oñatiko Udalak 156.000 euroko aurrekontua bideratu du aurtengo San Migel eta Errosario jaiak antolatzeko. Hilaren 28an hasiko dira ospakizunak, urriaren 2ra arte. Aurtengo jai-egun guztiak jarraian tokatu dira; horrenbestez bost egun iraungo dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Irailean abiarazi dute
Mojategiko obren
bigarren fasea

Zelaietan belar
artifiziala ipintzeko
lanak esleituko dituzte

Udalaren asmoa da
urtarrilean hasia lan
horiek egiten

UBANE MADERA > ARRASATE

Datorren urteko udaberrian estreinatu ahal izango ditugu Musakolako kiroldegiko instalazio berriak. Obrak hasi zituztenean iragarri zuten 2007ko apirilera bukatuko zituztela eta badirudi bete egingo dutela esandakoa. Obren arduradun Izaro Agirrek, behintzat, esan digu garaz dabilzala.

Hain justu ere, oraingo aste-ko osoko bilkura berezian onartu dute 1.524.802,87 euroko aurrekontua bideratzea instalazio berrien ekipamendurako. Besteak beste, futbol eta errugbi zelaietarako belar artifiziala ipintzeko lanak esleitzeko prozesua zabaldu dute; halaber, atletismo pistan zorua ipintzeko lanak haiekin batera esleitu dituzte. Hain zuzen ere, enpresek urri amaierara arteko astia dute Udalarari proiektuak aurkezteko. Izan ere, Udalaren asmoa da lan horiek hasia, beranduen jota, urtarrilean.


HAMAIIKA INSTALAZIO BERRI

Bien bitartean, Musakola-Mojategi inguruetan hasi da bistaritzen kirol instalazio berriek izango duten itxura. Esaterako, errugbi eta futbol zelaien arteko harmailen eraikina ikus daiteke dagoneko. Haren azpiko aldean, berriz, kirolariendako aldagelak egokitzten dabilzta. Horrekin batera, bi zelai horiendako zorua prestatzen dabilzta eta tenis eta padel pisten egurrezko estalkia ere bistan dago, kiroldegiaren eraikin nagusiaren ondoan.

Oro har, hamaika instalazio gehituko dizkiote Musakolako kiroldegiari: futbol eta errugbi zelaiak; errugbi zelaiaren bueltan atletismoko pista eta haren ondoan luzera-jauzia egiteko beste bat; tenis eta padel pista bina; skate

OBRAK > KIROL INSTALAZIO BERRIAK MUSAKOLAN

Mojategiko kirol instalazio berriak udaberriko gertu



- 1- Futbol zelaia
- 2- Harmailak
- 3- Errugbi zelaia
- 4- Atletismoko pista
- 5- Tenis eta padel pistak
- 6- Skate eta patinatzeo gunea



ESPARRU BERRIA Antoña eta Mojaitegi baserrien artean eraikiko dituzte instalazio berriak. Goian, luzera-jauzia egiteko pista; erdian skate parkea eta behean, harmailak.

LKS

parkea; patinaje pista eta autotelegidatuendako beste pista bat.

HERRITAR GUZTIENDAKO

Instalazioen erabilerari dagokionez, AUKEA erakundea arduratuko da haien kudeaketaz. Hala, AUKEAko arduradun Iratxe Aranburuk argitu digunez, asmoa da herritar guztiak izatea kirol instalazioak erabiltzeko aukera: "Daude hiru talde: eskolak, klubak eta herritarrek. Instalazioak guztiendako izango dira. Hori bai, erabileraren ordutegia zehazterakoa lehentasuna izango dute klubek. Baina gainerako herritarrek ere posible izango dute instalazioak alokairuan hartzea. Dena den, oraindik guztia zehazteko dago".

INSTALAZIO BERRIEN GAINEKO EZAUGARRIAK

> ERRUGBI-ZELAIA

115x73 neurtuko du, banda eta guzti. Belar artifiziala izango du eta Antoña baseritik gertu izango da.

> FUTBOL-ZELAIA

106x64 neurtuko du. Errugbi-zelaiaren ondoan izango da. Honek ere belar artifiziala izango du.

> ATLETISMO PISTA

Errugbi-zelaiaren bueltan eraikiko dute. Zortzi kale izango ditu; motzenak 400eko soka izango du.

> KONTROL DORREA

Atletismo pistaren izkina batean ipiniko dute, helmuga zaintzeko.

> HARMAILAK

Bi zelaien artean; 1.000 lagunek eserita egoteko lekua izango dute.

> LUZERA-JAUZIA

Atletismo pistaren eta harmailen artean egokituko dute. Bestalde, errugbi-zelaiaren berdegunearen zati bat egokituko dute pisu-jaurtiketa praktikatua ahal izateko.

> TENIS PISTA BI

Oraingo kiroldegiaren eraikinaren jarraian. Estalitakoak izango dira, egurrezko estalkiarekin. Zorua, berriz, ez da izango ez belarrezkoa ezta lurrezkoa ere; erretxina moduko bat izango du.

> PADEL PISTA BI

Tenis pisten ondoan. Hormigoizko paretekin eta estalkiarekin.

> SKATE-GUNEA ETA PATINAJEA

Zigorrolako eskolaren ondoan eraikiko dute, Institutura igotzeko bidearen ondoan. Estali bakoa izango da, hormigoiez egindakoa eta skaterako elementu bereziekin hornituko dute. Haren ondoan gunea lau bat egokituko dute, patinatzeo.

> AUTO TELEGIDATUENDAKO

Estalitako pista bat eraikiko dute, auto telegidatuak ibiltzeko. Zoladura izango du; eta zirkuituren bat marraztea aztertuko dute.

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



Lilura
OIHALAK

Irudi berria duen denda honetan diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa, prezio ezin hobean. Gainera, poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72



ABAROA Zaharren egoitza dagoen lekua (Abaroa) egokitu egingo dute, Iturbide egoitzarendako.

IKER BARANDIARAN

OBRAK > ITURBIDE EGOITZAREN BERRIKUNTZA

Iturbideko lanak urte amaieran esleitu gura dituzte, obretan hasteko

Oraingo asteko osokoa onartu dute Udalaren eta Diputazioaren artean lankidetzaren hitzarmena sinatzea, egoitzako obrak finantzatzeko

UBANE MADERA > ARRASATE

Hitzarmen horri esker, Diputazioak 2.285.371 euro emango ditu Iturbide egoitza berritzeko. Udalak, berriz, 885.371 euro ipiniko ditu.

Gainera, lankidetzaren hitzarmena onartu ostean, obrak esleitzeko prozesua abiaraziko dute. Urte bukaeran gura dituzte adjudikatu eta datorren urtearen hasieran

hasi gura dituzte lanak. Hala adierazi digu Udal Gizarte Zerbitzuen arduradun Iñigo Garitanok. Gaineratu digunez, besteak beste, honako lanak egingo dituzte: gela guztietako komunak berritu, teilatua aldatu, Abaroaren lokala egokitu egoitzarendako (bulegoak, fisioterapia gela eta askotariko gela egokituko dute han) eta argindar sistema berritu.

UDALA > OSOKO BILKURA

Datorren asteko ohiko osoko bilkuran aztertuko dute Gelmaren hitzarmena

Hitzarmen horretan zehazten duten 4,5 milioi euroko berme fondoaren gaineko zenbait zalantza argitu gura dituzte

U.M. > ARRASATE

Oraingo asteko bilkura berezia hasi baino lehenago erabaki zuen Bozeramaileen batzordeak Gelmaren gaia datorren aste-rako lagatzea. Alkatearen argibideen arabera, zalantza tekniko juridikoak sortu zaizkie puntu batekin: "Berme-fondo bat, 4,5 milioi eurokoa, 2020ko urtera arteko epearekin, eta horrek ziurtatzen du Gelma enpresa mantentzea Arrasa-

ten, Udalak egindako proposamenaren arabera, eta hori bete ezean, langileentzat izango litzateke berme hori" Lakuntzaren esanetan, ondo zehaztu behar dira bermearren nondik norakok, "anbiguetate" barik. Eta hori egiteko, kontsulta egin behar dute. Dena den, argi utzi du ez dagoela bestelako eragozpenik Udalaren eta Gelmaren arteko hitzarmena gauzatzeko.

Prentsa ohar baten bitartez, EBk adierazi du bere ustez "barregarria eta inprobisazioa" dela osokoa gertatutakoa.

IBAETAKO DOKUMENTUA

Asteleheneko osoko bilkurari begira, berriz, iragarri digute Ibaetako Dokumentuaren gaineko mozio bat aurkeztuko dutela, dokumentu horrekiko Udalaren babesa lortzeko asmoz.

> ZERBITZUAK

Komun berri bat ipiniko dute Garibai etorbidean, Iturbide egoitzaren aurreko aldean

Seber Altubeko komunaren antzerako bat ipiniko dute Garibai etorbidean, "autobus geralekutik lauzpabost metrora", Obra Sai-leko arduradun Moises Altunak jakinarazi digunez. Leku hura aukeratu dute kontuan hartuta herritarrek dagoeneko ezin dutela Laubideko aparkalekuko komuna erabili, autobus geralekua hantxe dagoela, azoka txikia ere handik gertu egiten dela eta, oro har, "herriaren erdi-erdian dagoelako". Udalak 68.500 euroko aurrekontua bideratuko du horretarako. Hain justu ere, orain proiektuak jasotzeko lehiaketa zabaldu dute eta urriaren 31 baino lehen eraman behar dira proposamenak udaletxera. Asmoa da lanok esleitzea urtea bukaeran edo datorren urtearen hasieran.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MEHER

Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Marixutarako eskaintza zabala
arropa eta osagarrietan.

Txinatar jatetxea
DRAGON
ORIENTAL

Maritxu Kajoi
egunerako
menu bereziak

Deitu eta har ezazu
tokia lehenbailehen!!!

943 79 85 33

Araba etorbidea 3 ARRASATE

GAZTERIA SAILEKO DIRULAGUNTZAK

AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA 2005-2006
IKASTURTEAN BURUTU DUTENENTZAT

- Dirulaguntza: ordaindutako matrikularen erdia.
- Epea: urriak 31.

MUSIKA TALDEENTZAT GRABAZIOAK EGITEKO

- Dirulaguntza: grabaketa edo edizio gastuen erdia, gehienez ere, 800 €.
- Epea: azaroak 30.

Informazioa eta eskabide orriak: gazte bulegoan.
943 77 00 65 • www.gaztebulgoa.com



Arrasateko Udala

■ Gazteria Saila

GAZTEAK > GAZTETXEKO BATZARREKO ANTZERKI TALDEA

Sardina Bakalau, gaztetxeko antzerki taldea, lanean dabil

Egunotan, Udaleko Sexologia Zerbitzuak eskatuta, antzezlan bat prestatzen dabil Sardina Bakalau

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
AGAKOk -gaztetxeko batzarra- Sardina Bakalau antzerki taldea sortu zuen iaz. Eta talde horren helburua da askotariko ekintzak

egitea eta herritarrei gauza berriak eskaintzea.

ESTREINALDIA SAN JUANETAN

San Juanetan *Mondra D'or* ikuskizuna egin zuten, eta oso harre-
ra ona izan zuen. Are gehiago, beste herri batzuetatik ere deitu die-
te: "Oporrei eta Arrasateri barre egiten diegu antzezlanean. Pijoa-
k, makarrak eta agureak batzen ditugu. Desberdinak diren arren,
hiru taldeetako kideek erreakzio berak dituzte egoera antzekoen

aurrean. Umorea eta hausnarke-
ta batzen ditugu", azaldu ziguten
gaztetxeko kideek.

SEXOLOGIAREN GAINEKO LANA

Aspaldian, berriz, beste ikuski-
zun bat prestatzen dabilta. Uda-
leko Sexologia Zerbitzuak Beñat
Zamalloari eskatu zion antzezlan
bat idazteko. Zamalloa horretan
dabil, eta Sardina Bakalau talde-
ak hartu du antzezlan hori egite-
ko ardura. Zapaturo elkartzen
dira gaztetxean, entseatzeko.



UMOREA Herritarrei pentsatzen lagundu gura diete, umorea erabilia.

AGAKO

IKUSKIZUNA > GAUR, EGUBAKOITZA, HERRIKO PLAZAN

Bertsoak eta kabareta batzen ditu 'Emetik' lanak

Bertsoei bestelako elementuak batuko dizkiete hiru bertsolari ezagunek

Horretarako, Silveira, Uranga eta Paya bertsolarien *Zaharrak berri show-a* hartu zuten eredu, eta bertsozaleak ez direnendako ere aproposa den ikuskizuna asmatu zuten.

I.B. > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, Onintza Enbeitak, Iratxe Ibarak eta Oihane Perea *Emetik* ikuskizuna egingo dute Herriko Plazan, 19:00etan.

Emakume Txokoak antolatu du ikuskizun hori, eta, besteak beste, bertsoak eta kabareta batuko dituzte hiru bertsolarietako taula gainean.

Aurtengo martxoan Onintza Enbeita eta Iratxe Ibarra Oihane Perea eta bere ume jaio berria ikustera joan ziren. Hirurak elkartuta, proiektu berri-
ren bat sortzea erabaki zuten: "Konturatu ginen gaur egun neska bertsolari asko dagoela, baina bertsolariaren eskema bera jarraitu dugula. Bazela ordua beste zerbait sortzeko", azaldu ziguten.

IRONIA ETA PROBOKAZIOA


Apirilaren 8an egin zuten estreinaldia Larrabetzuko Hori Bai! gaztetxean, Bizkai-
ko Bertsozale Gazteen egunean, eta oso harrera ona izan zuten. Orduetik hona dozena pasatxo ikuskizun egin dituzte Euskal Herrian. "Herri bakoitzean desberdina izaten da. Egun batzuk lehenago hirurok elkartu eta herri horren gaineko gai batzuk pentsatzen ditugu. Horren ostean, herrian inprobisatu egiten dugu", azpimarratu zuten.

"Tarteka gai serioak lantzen ditugun arren, askotan ironia erabiltzen dugu. Horrez gainera, kabaret edo *variedades* kutsua hartuta, probokazioa lantzen dugu, ikusleak anima daitezen eta giroa sortzeko".

> ERAKUSKETA

Biteriren omenezko eskultura ere jarriko dute Biteri plazan, herritarren ekimen bati esker

Joan den astean herritar talde batek Pedro Biteri Aranaren figura aldarrikatu zuen. "Biterik lan handia egin zuen herriaren eta hezkuntzaren alde, eta kooperatibek baino gehiago merezi du plaza horretan, lehen zuen moduan, eskultura izatea". Horrekin bat eginez, herritar askok Monterrongo erakusketara joan eta Biteriren alde bozkatzen dihardute. Ekimenaren arduradunak pozik daude, baina kanpaina zabalik dagoela jakinarazi dute.



BEDONABE HAURRESKOLA

(0-2 urte bitarteko umeendako)
matrikulazio epea zabalik!

Noizko: Urrian edo azaroan sartzeko

Noiz: irailaren 18tik 29ra

Non: Arrasateko Bedoñabe Haurreskolan (Alfonso VIII kalea, San Andres auzoa)

Tel.: 943 79 76 86

Haurreskola

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 79 78 14
ARRASATE



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Ogitarteko

hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA 2006ko IRAILAREN 16tik - 22ra

Aldaketa eskatzen digu munduak

Arrasatek aldaketa eskatzen digu

Egubakoitza, irailaren 22an

Mugikortasun eta irisgarritasun tailerra

- Irisgarritasuna lantzeko jarduerak eta oztopo ibilbidea
- Adin guztietako neska-mutikoentzat eta helduentzat

- Ordua: 17:00
- Tokia: Seber Altube plaza

Zapatua, irailaren 23an

BIRZIKLETA AZOKA – Bigarren eskuko bizikleta azoka

- Tokia: Seber Altube Plaza
- Ordua: goizez 11:00 – 14:00; arratsaldez 17:00 – 19:30

Domeka, irailaren 24an

Bizikleta ibilaldia herrian zehar

- Ordua: 11:00
- Irteera: Seber Altube Plaza



ALDATU

Guztiok bat eginik, **Arrasate** Klima Aldaketari aurre egiteko gauza izango da. Autoa gutxiago erabiliz. Garraio publikoa baliatuz. Bizikletan ibiliz. Edo oinez. Autoa aparkatzea da kontua. Horixe ari zaigu eskatzen mundua.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y
OBRAS PÚBLICAS



ingurumena.net
Gure elkarrekin,
Están en nuestras manos



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

euskara ikasi

æk ren eskutik



ERDU A EK EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIETAN IKASTARO PRAKTIKOAK

- Metodologia komunikatiboa
- Talde dinamika eta erabilera
- Euskararen teoria eta praktika
- Hizkuntza eskakizunak eta EGA

AURTEN GAINERA BERRIKUNTZA!

4. MAILA IKASTAROA

- EGA edo baliokidea dutenentzat
- Euskara maila zaintzeko eta hobetzeko
- Lanari egokitutako gaitasun komunikatiboa lortzeko
- Laugarren hizkuntz eskakizuna prestatzeko
- Astean 2 egun, egunero 2 ordu eta erdi

Matrikulazio epea: irailaren 4tik 28ra • Ordutegia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00

Garibai, 14-3. • Tel.: 943 77 03 69 • ARRASATE • e-posta: arrasate@æknet.net

ESKUBALOIA > HIRUKO TORNEOA

'Pitxi' Herreroren omenezko torneoa bihar

Bihar egingo dute, 16:30ean Iturripen, Herreroren omenezko bigarren lagunarteko torneoa. Arrasatek bi talde izango ditu; Erromo da hirugarrena

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Denboraldi amaieran hartu zuen Arrasateko eskubaloiak lehenengo albiste pozgarria, Arrasate nazional mailara sailkatu zelako. Orain jakin dute, baina, bigarren taldea ere mailaz igoko dela, joan den urtean bigarren territorialean hirugarren postuan sailkatu eta gero. Hala, nazional mailan lehiatuko den Arrasate eta lehenengo territorialeko Arrasate izango dira bihar, *Pitxi*-ren omenez, aurrez aurre. Eta, hiruko torneo osatzeko Erromoko (Bizkaia) taldea gonbidatu dute, hori ere nazional mailakoa.

Hain zuzen ere, Beñardo Balerdiren eta Fertxu Rodrigue-



LAGUN ARTEKOA Joan den astean Urola hartu zuen mendean Arrasatek. GOIENKARIA

zen mutilendako aurre-denboraldiko azken froga izango da biharkoa, datorren asteburuan hasiko dute-eta, Portugaleteren kontra, denboraldia.

TERRITORIALA, URRIAREN 8AN

Territorialeko taldea, berriz, Asier Vinuesak zuzenduko du, eta haiek urriaren 8an hasiko dute txapelketa.

> XAKEA

Alejandro Franco, Jesus Hernandez eta Aitor Alcaide aurreratu dira, oraingoz, Arrasate Hirian

Hiru xakelari horiek dira lehenengo bi jardunaldietan hiruna puntu erdietsi dituzten bakarrik. Txapelketako estreinaldian sorpresarik izan ez bazen, bigarren jardunaldian ez da gauza bera gertatu. Txema Hernandok ondo egin zion aurre faboritoen artean dagoen Fran Migueli, eta berdindu egin zuten. Alejandro Francok, berriz, seguru jokatu menderatu zuen Tornay, eta zarauztarren arteko derby ere berdinduta amaitu zuten. Gaur jokatuko dute hirugarren jardunaldia, 19:00etan hasita, Altamirako egoitzan.

> MENDIA

Azpeititik Lasturrerako mendi ibilaldia egingo dute domekan, Zezenen Ibilbideko azkena

Domekan, Zezenen Ibilbideko azkeneko etapa egingo dute Besaideko lagunek; Azpeitia eta Lastur banatzen dituzten kilometroak egingo dituzte oinez, hain zuzen ere. Hala, goizean goiz irten go dira Garibaiko autobus geltokitik, 07:30ean, eta goiza mendiko zeharkaldia egiteko aprobetxatu eta gero, Lasturren bertan bazkalduko dute. Arratsaldean itzuliko dira Arrasatera.

Irteera hori izango da iraileko azkena, baina urrirako egutegia beteta dakar Besaide Mendi Elkarteak.

> IZEN EMATEAK

Atletismoko eta eskubaloiko taldeek deia zabaldu dute Arrasateko gaztetxoendako

Gainontzeko taldeak bezala, Arrasateko atletismoko eta eskubaloiko taldeak hasi dira lanean. Maila txikiatarako, baina, jokalaria gazteen bila dabilta. Hala, atletismoa egin gura duten gaztetxoek (10 urtetik gorakoek) Iturripera joan beharko dute, martitzen edo eguen arratsaldean.

Eskubaloian, berriz, 1989-1992 urteen artean jaiotako gaztetxoek ere Iturripera gerturatu beharko dute, 19:00etatik aurrera. Bestela, 669 895 577 edo 660 119 023 telefono zenbakietara deitu.



AG

Amagara

Erdiko kalea 54, behea. Tel.: 943 79 09 09

MARITXU KAJOI 2006

Ederra egongo zara zure beltzaran kolorearekin

Promozio berezia:

6 saio ordu erdikoak + 1 doan
42 euro bakarrik!!!
Irailaren 22tik urriaren 13ra

*Beltzaran-kolore naturala eguzkirik hartu gabe!
Deitu bertara!*

Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen arabera izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sensibilitatearen arabera ere.

bote prontuen

Norber Mondragon > Meneta taberna

"Egixe da Zigorrolan ederto hartu gauela"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Meneta tabernan Mena familixakuek urte mordue egin eta gero, Zigorrolako txoko horrek jabe barrixek dauko, badie-eta pare bat aste Norber eta Aurel lanien dabitze. Eta, Norberrekin egon gare berbetan, negozio barri horretan daukon asmuen gaiñien.

Kamioie kanbixau zeuen tabernako barriengatik. Zergaittik?

Karreteran lan egittie gogorra dalako. Saso baten kamioiekin eta Renault-eko gruakin ibilli nitzen. Gaur egun zirkulaziño haundixe dau, eta erlojuen kontra ibilli biher gitzen askotan, estresaute hara eta hona. Gaiñera, akzidentietara juetie ez da bape agradablie izeten.

Eta, Jai Zale tabernatik Menetara.

Holaxe da, bai. Ixe bost urte egin dot Jai Zale tabernan lanien, eta oin geure negoziue ipiñi dou Zigorrolan. Gaiñera, tabernan ez dou kanbixau haundirik egitteko asmorik. Hau da, Salvak eta Terek horrenbeste urtien egin dauen lanakin jarraitu gure dou, bide beretik.



Eta, ze da bide hori?

Ba, tabernako gorabeherekin batera ardaue saltzen jarraituko dou, aste barruen eguneko menuek emuten, pintxuek, gabetan bokata eta raziñuek... Horrekin batera, aste bukaeretan jana enkargau ahal izengo da.

Eta hori danoi sukaldaritza konbentzionalan barruen.

Bai, betikue, geurie. Txuletoiek, tripakixek, txanpiñoiek... Horreik die geure espezialidadiek.

Esaten daue Zigorrolako txikiteruek oso fidelak diela.

Holaxe da. Hamengo jentie ez da kalera edo beste zonaren batera txikiteuen jueten. Esango neuke Zigorrolan kalien baiño txikiteo haundixae egoten dala. Jentie Zigorrolan geraketan da.

Eta, zelakuek izen die lehenengo astiek?

Oso onak, eta oso pozik geratu gare Zigorrolan zelan hartu gauen ikusitte. Oin arte topera ibilli gare.

bere ustez



Aitor Zabalo

Arrasate turistikoa ote da ba?

Irakurri berria dut Arrasateko hotelak ia % 100ean beteta egon direla uda honetan. Berri ona, duda barik, baina kontatzen zena ez zen hain ona. Nolabait beste lekuri ez zegoelako-edo etorritako jendea omen zen.

Bestalde, nire lagun batek komentatu zidan, Arantzazuko turismo bulegoan inguruan ikus zezakeenari buruz galdeturik, Oñati, Bergara eta Gatzaga aipatu zizkiotela. Eta berak tematu zuen arren, Arrasaten ez zegoen zer ikusirik.

"Zaragozako lankide batek askotan errepikatu digu inguruan dagoena aipagarria dela"

Hori horrela izanik, Zaragoza inguruko lankide batek askotan errepikatu digu inguruan dagoena aipagarria dela. Eta noizbait herria kanpotar bati erakustea egokitu zaizkidanetan, erakusteko duenarekin gustura gelditu direla uste dut. Beraz, ni nire lankidearen iritziarekin adostasun handiagoa dut Arantzazuko turismo bulegoko pertsonarekin baino.

Egia da herri industrialean bizi garela. Susmoa badut zerbitzu arlorantz mugitu beharko dugula, eskulan merkeagoen presiopean, beste herrialde aurreratu batzuek egin dutenaren gisa. Baina ematen du, emango ditugun zerbitzu horietan turismoa sartu nahi badugu, lan handia dugula egiteko.

txutxu-mutxua



FAUSTINO GOROSTIZA

1955ekoak, ardo ona bezala, urteek aurrera eginda geroago eta hobeto

Esandakoa, erretratuko koadrila horrek, ardo onak bezala, hobera egiten duela. Eta hori jakinda, ardo artera joan ziren urteurrena ospatzera. Irailaren 9an egindako irteeran, Haron egin zuten eguneko lehenengo txikiteoa. Gero, Briñasko upelategi batean

izan ziren, bertako ardoa dastatzen. Bazkaldu ere bertan egin zuten, eta, sabela beteta, bazkalosteko logurak kentzeko mus txapelketa egin zuten. Itzultzerakoan, autobus gidariari atsedean emateko-edo, geldialditxo egin zuten Marisanean. Horrela bai...

Uarkape
jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.

*Maritxu egunerako dena prest!
Ondo pasatu!!*

Otalora lizentziatua 10 Tel.: 943 77 20 04 ARRASATE

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

KILOMETROAK 2007 > ARANZADIK ANTOLATUKO DUEN FESTA

'Argi daukagu' da Kilometroak 07 festan erabiliko duten mezua

Hiru eredu jarri dituzte herritarrek gustukoena bozkatzeko, eta 521 boto jaso dituzte

Urriaren 1ean emango dio Oartzunek testigua Aranzadiri, jaia prestatzen hasteko

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergarako Aranzadi ikastolak antolatuko du 2007ko Kilometroak festa, eta aukeratu dituzte irudia eta mezua: *Argi daukagu*. Irudian, bonbillak edo argiaren kablea ikusiko dira.

Aranzadi ikastolako Komunikazio batzordearen iritziz, "*Argi daukagu* leloak taldearen ikuspegia azaltzen du: herria, ikastolen mugimendua biltzen duen leloa da. Irudiek, berriz, Elhuyar anaiengana hurbiltzen ditu herritarrek; Errege Mintegian anaiek utzi zituzten bonbillak dira".

521 BOTO

Kilometroak 2007 festaren leloa eta irudia aukeratzeko, hiru ere-

du egin ditu AZK diseinu taldeak eta hirurak jendaurrean jarri ditu Aranzadi ikastolak astebe- bez, herritarrek euren iritzia eman dezaten. Bada, 521 lagunek eman dute botoa.

Herritarren botoak 517 izan dira guztira. Banatuta: *Argi daukagu*, 234 boto; *Mintza on*, 148 boto; *Berezkoa*, 133 boto eta zuriak bi boto. Ikastolak eta Unai Azkarrate, Luis Laskurain eta Manu Muniategiandikoetxea artistek emandako lau botoak, berriz: *Argi daukagu* bi eta *Berezkoa* bi.

Irudi eta mezu horiek hainbat produktutan erabiliko dituzte gero; arropetan eta pizkailue-

tan, besteak beste. Baina urrian hasiko dira guztia egiten, aurtengo Kilometroak pasa eta gero.

AZAROAN MODA DESFILEA

Urriaren 1ean egingo dute aurtengo Kilometroak festa Oartzunen eta hantxe hartuko du testigua Bergarako Aranzadi ikastolak. Duela 15 urte, alderantziz izan zen, Bergarak eman zion testigua Oartzuneri. Oartzunera joateko, gainera, autobusak jarri digu Aranzadik eta joan nahi duenak ikastolan eman dezake izena datorren astean.

Behin testigua hartuta, Kilometroak 2007 prestatzen hasiko



IRUDIA Urriatik aurrera zabalduko dute irudia eta mezua.

GOIENKARIA

da Aranzadi buru-belarri. Hala, azaroan, aukeratu duten leloaren eta logoaren aurkezpen ofiziala egingo dute. Moda desfilea egingo dute eta Euskal Herri osoari erakutsiko dizkiote saltzen jarriko dituzten produktuak, irudia eta mezua.

KOORDINATZAILEA

Kilometroak 2007 festa prestatzen laguntzeko koordinatzaile bat izango dute Aranzadin: "Zazpi lagun aurkeztu dira eta horietako bat aukeratu behar dugu orain", azaldu digu Ane Barrusok, Komunikazio arduradunak. Lantaldeei buruz, berriz, dagoeneko pentsatu dute zenbat lantalde beharko dituzten gutxi gorabehera, baina oraindik ez dituzte osatu: "Urrian hasiko gara horrekin guztiarekin, aurtengoa pasa eta gero", dio Dorleta Mendibilek, Aranzadiko zuzendari pedagogikoak. Horregatik, oraindik erabakitzeke dituzte ibilbidea eta abestia. Bildutako dirua zertan erabiliko duten, ordea, badakite: "Ikastolan berrikuntzak egiten erabiliko dugu: kanpoko sarrera berria eta barruko hainbat gauza berritzen, besteak beste", azaldu du Dorleta Mendibilek.

Alemaniko aldizkari baten agertuko da Aranzadi ikastola

Alemaniko *Stern* aldizkariak eskolaratzeari buruzko monografi-koa aterako du 2007an eta Aranzadi aukeratu dute erreportaje horretarako. Munduko 32 herrialdeetako eskolaratzeak jaso dituzte eta tartean Aranzadikoa eta La Graciosa Kanariar Uhartetako ikastetxe txiki batekoa.




Aldizkariako Matias Costa argazkilaria Aranzadiko lagunekin.

GOIENKARIA

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



IRIZAR KALEA Egun hauetan Irizar kaleko espaloiko lur-lauza solteak kendu eta berriak jartzen ibili dira langileak. XABIER URTZELAI

OBRAK > LUR-LAUZAK KONPONTZEN ARI DIRA

Espaloietako baldosa solteak lotuko dituzte

Espaloi guztietako lur-lauzak konponduko dituzte, baina ez denak batera, lehentasunaren arabera egingo dituzte-eta obra lanak

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Espaloietako lur-lauzak konpontzen dihardute brigadako langileek. Egun hauetan Irala eta Irizar kaleetan dabilta, baina herriko beste kale batzuetakoak konpontzeko asmoa dute. "Toki askotan daude konpondu beharrean lur-lauzak eta berrituko ditugu, baina ez denak batera. Lanak sortu ahala lehentasuna emango diogu batari edo besteari", azaldu du Iñaki San Josek, Obra eta Zerbitzuetako buruak.

Bestalde, herriko gune batzuk zikinak egoten diren kexa heldu zaigu erredakziora, eta, horren inguruan galdetuta, San Josek zera erantzun digu: "Langileek garbitzen dituzte kaleak, baina jaietan ere, baina jendeak edozer botatzen du lurrera eta egin behar dena da ezer ez botatzea".

BURDIÑATEN LITROAK EDATEN

Zikina egoten den guneetako bat Burdiñateko plaza ingurua da, kexen arabera. "Gazteak litroak

edaten egoten dira astebururo eta zikina egoten da, baina guk ez dugu gune hori asteburuetak programan", dio Alfredo Najera garbiketara lanez arduratzen den Cespa enpresako arduradurak. "Garbiketa programak Udalak jartzen dizkigu. Asteburuetan erdigunea soilik garbitzen dugu eta astelehenean hasten gara beste kaleak garbitzen. 06:00etatik 12:30era da gure ordutegia eta tarte horren barruan garbitu behar dugu gune hori ere. San Martintan ere hamar lagun ibili gara erdigunea, suak bota dituzten ingurua eta Jam dantzaleku ingurua garbitzen. Jaien ostean beti kostatzen da dena berdintzea, baina egin dugu", jarraitu du Najerak.

> HEZKUNTZA

Xipizaro ludoteka berriak 40 umerendako lekua izango du; izena eman beharra dago

Xipizaro ludotekak Agorrosinen izango du egoitza berria. Plaza mugatuak izango ditu, 40, eta bi begirale. Plazak zozketatu egingo dituzte umeen artean. Ludoteka berriak umeendako jolasak eta ipuinak izango ditu eta astelehenean zapatara egongo da zabalik 17:00etatik 20:00etara; astelehen eta eguaztenetan 3tik 7 urte bitarteko umeendako, martitzenetan eta eguaztenetan 7tik 12ra bitartekoendako eta egubakoitzetan eta zapatuetan 3tik 9ra bitartekoendako.

Urriaren 9an zabalduko dute Xipizaroren egoitza berria. Izena eman behar da hurrengo astean 10:00etatik 12:00etara edo 18:00tik 20:00etara; fitxa bat bete behar dute izena ematen duten umeek.

> AISIALDIA

Bedelkarrek quad pistak eta umeendako puzgarriak jarriko ditu zapatuan herriko plazan

Bedelkar dendari eta ostalarien elkarteak quad pistak eta umeendako puzgarriak jarriko ditu bihar, zapatua, herriko plazan. Hauxe da jolas horien ordutegia: 12:00etatik 14:00etara eguerditan eta 17:00etatik 20:00etara arratsaldetan.

Bestalde, Bedelkarrek zozketa egin zuen udan bezeroen artean eta oraindik ez dituzte sari guztiak banatu. 200 euroko bost sari zozketatu zituen erosketak Bedelkarreko dendetan egin zituzten artean, eta oraindik sari bat falta da jasotzeko. Lazkano Oinetakoak dendan eman zuten agertzeko falta den zenbaki saritua: 64.225. Beste lau sarituak dira: Milagros Gonzalez, Felisa Elkorro, Maria Cruz Alberdi eta Lexeia Larrañaga. Zenbaki hori duenak 200 euro ditu zain.

> HEZKUNTZA

Miguel Altuna Institutuak 50 kurtso eskainiko ditu Etengabeko Prestakuntzarako mailan

Miguel Altuna Institutuak 50 ikastaro eskainiko ditu ikasturte berrian Etengabeko Prestakuntzan. Arlo hauetakoak izango dira kurtso horiek: Fabrikazio Mekanikoa, Elektrizitatea, Administrazioa eta Fidantzak, Kalitatea eta Etengabeko Hezkuntza eta Segurtasuna eta Higienea. Kurtso horiek dira langileendako edo langabeendako eta Hobetuzek diruz lagundutakoak dira. Ikasleak Lanbide Gaitasuna Egiaztatze sistemaren parte hartzeko aukera du eta titulu ofizialeterako bidea egiten du.

Interesatuak Miguel Altunan bertan edo telefono honetara deituta lortuko dute informazio gehiago: 943 76 70 49.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Bizkarreko mina • Bihurrituak
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma
Osteopatia
Errehabilitazioa

Telleria 6 bis, 11 bulegoa
Labegaraieta ind. BERGARA
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
ormazabalfisioterapia@yahoo.es

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industrialia
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

FRANTSES IRAKASKUNTZA

Mizpildi 3, 1. ezkerria • BERGARA
2006-2007 ikasturtea
Ikastaroaren hasiera:
urriaren 2a
Izenematea: irailaren 29ra arte
Informazio gehiago: 10:00-12:00
eta 18:00-20:00
943.76.30.55

JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29



HAMAR BIKOTE Gaurko saioan hamar bikote arituko dira lehia; fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dituzte.

GOIENKARIA

DANTZA > TXAPELKETAREN 22. EKITALDIA

Partaidetza bikaina Moises Azpiazen oroimenezko dantza txapelketan, gaur

Bergarar ordezkariekin batera, Azkoitiko Azpitarte anai-arrebak -Euskadiko txapeldunak- izango dira partaideen artean Udal Pilotalekuan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Moises Azpiazen oroimenezko dantza txapelketa 22. ekitaldira iritsi da dagoeneko eta gaur, egubakoitza, hamar bikote arituko dira lehia, Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita.

Partaideek fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dituzte, eta lehia ez da makala izango. Aurten, Seguran, Dantza Solteko Euskadiko Txapelketa

eskuratu duten Azpitarte anai-arrebak izango dira partaideen artean. Hala ere, azkoitiarrek aurkari gogorak izango dituzte aurrean; bergarar ordezkariak dagokienez, Ibane Baseta-Mikel Igartua -laugarrenak Seguran- eta Izarne Medina-Jon Arrillaga bikoteek hartuko dute parte. Juantxo Urbietaren ikasleek maila bikaina azaldu dute han eta hemen jokaturako txapelke-

tetan. Era berean, Janire Urbietak Xabier Azurmendi zegamarrarekin osatuko du bikotea. Azurmendi eta Urbietak bosgarrenak izan ziren Seguran.

Iaz Maite Lazkano eta Asier Ena bergararrak izan ziren irabazleak. Ea nortzuek hartzen duten haien lekukoa. Maite Aristegi arituko da aurkezle lanetan gaurko saioan eta zaleei pilotalekura hurbiltzeko gonbidapena luzatu nahi diete antolatzaileek. Sarrera doan izango da.

HAURREN DANTZA TALDEA

Bestalde, Moises Azpiazu eta Abarka dantza taldeek eta Jar-

dun elkarteak haurren dantza taldea osatzeko dei egin dute. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago eta aurtengo ikasturtean dantzan aritu nahi duten neska-mutilek Jardunek Errotalde jauregian duen bulegora jo edo 943 76 08 19 telefono zenbakira dei dezakete.

KIROL ARGAZKIAK AROZTEGIN

Bi erakusketa zabalik dira egunotan: gaur, 19:00etan, kirol argazkien erakusketa zabalduko dute Aroztegi aretoan, eta, bestalde, pintura lehiaketako lanak ikusgai dira kultura etxean, irailaren 30era arte.

> IKASTAROAK

Sendabelarrak eta altzarien berritzea ezagutzeko aukera

Udaleko Kultur Zerbitzuak bi ikastaro antolatu ditu: bate-tik, sendabelarrena urriko martitzenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Urriaren 3an hasi eta urriaren 31n amaituko da. Bestalde, *Altzarien zaharberritzea* izeneko ikastaroa urriaren 3tik abenduaren 26a bitarteko martitzenetan izango da, 18:30etik 20:30era.

Ikastaroen prezioa honako hau da: bergararrendako 15 euro hilean eta Bergagatik kanpokoendako 20 euro hilean. Izena kultura etxean eman behar da (943 77 91 58), irailaren 30a baino lehen.

> AISIALDIA

Jolasleku Ibiltaria gaztetxoendako, Jardunen eskutik

Zazpigarren urtez jarraian, Jardunek Jolasleku Ibiltaria programa martxan jarri du. Euskaraz jolas egiteko baliabide egokiak eskaintzea eta bereziki ahozotasuna lantzea du helburu. Umeak eta guraso edo zaintzaileak ibiltzen diren tokietan jarriko dute Jolasleku Ibiltaria, eta 6-12 urte bitarteko umeendako soka-saltoa, abestiak, zapi jolasak, baloi jokoak eta beste hainbat antolatuko dituzte, 17:00etan hasita. Gaur, irailak 22, Fraiskozurin izango da jolaslekua, irailaren 29an Espoioian eta urriaren 6an Simon Arrietan.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

JOXAN

ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxe: 943 76 04 77

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10



AKULU AEK EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIETAN IKASTARO PRAKTIKOAK

Astean hiru egun 2 ordu

- Metodologia komunikatiboa
- Talde dinamika eta erabilera
- Euskararen teoria eta praktika
- Hizkuntza eskakizunak eta EGA

Matrikulazio epea: irailaren 4tik 28ra • Ordutegia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00

Arrizuriaga jauregia Espaloia • Tel.: 943 76 05 18 • BERGARA • e-posta: bergara@aeknet.net

GRUPO RKUZ
ARETXABALETA 1950 • 2006 ARRASATE

RKUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andrameri auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

RKUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ETXE MODEL
ALZARIAN
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ
MUEBLAS
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Etxetresna elektrikoekin ez zarela moldatzen?
Har ezazu momentu!
Arkauz etxean guztiz maiteminduko zara.

Arkauz zure etxea da.
expert banatzaile ofiziala

FUTBOLA > KLUB BERRIA BERGARAN

Bergarak bi taldez osatutako futbol klub berria izango du, BTLS izenekoa

Bergarako herriak dagoeneko bi futbol klub ditu, Bergara Kirol Elkartekoa bata, eta BTLS bestea. Futbol zelaia zelan erabili erabakitzen ibili dira

XABIER URTZELAI > BERGARA

Karlos Lasa izango da BTLS futbol klub berriaren arduraria izango duena. Bigarren erregional mailan jardungo duen mutil koardila baten proposamena jaso eta Karlosek baietza eman zuen, babestuko zuela talde hori. Eta, geroago etorri zen nesken taldea. Bergarak erabaki du senior mailan talderik ez ateratzea, eta BTL Sera joan dira neskak. Gauzak horrela, klub ofiziala izateko tramite guztiak egin behar izan ditu BTLS-ek.

BERGARAREKIN BERBETAN

Jose Luis Beitia izango da nesken taldeko ordezkaria, eta berak



ERREGIONALEKO TALDEA Irudian, erregional mailan lehiatuko den BTLS futbol taldea.

GOIENKARIA

dioen moduan, bi klubean artean ez da egon haserterik, baina onartzen du bati baino gehiagori ez diola grazia handiegirik egingo: "Elkarren artean ondo konpon-

tzeko egingo dugu lan". Alde horretatik, Agorrosingo futbol zelaiaren erabilera dela-eta egin dituzte lehenengo batzarrak: "Futbol zelaia erabili ahal izan-

go dugu, eta baita aste barruan entrenatu ere. Bergarak, baina, dagoeneko eginda du aste barruko egutegia, eta hutsik dauden orduetan entrenatu beharko dugu guk".

ALDAGELAK, NORMAL

Futbol zelaiarekin batera, hasieran uste zuten ezingo zituztela Agorrosingo aldagelak erabili, baina horretan ere adostasuna lortu dute: "Aldagelak normal

erabili ahal izango ditugu, baina garbitzailea Bergara Kirol Elkartek ordaintzen du, eta gu arduratu beharko gara aldagelak txukun uzteaz. Alde horretatik, Bergarak ez digu trabarik jarriko, baina lagundu ere ez digute egingo, horrenbestez, gu konpondu beharko gara".

LEHENENGO DERBIA, ETXEAN

Eloi Crespok eta Igor Larrañagak zuzenduko dute emakumeen BTLS taldea; asteburuan jokatu dute bigarren jardunaldia, aste barruan egin dute eta debuta, Gasteizen. Domekan, berriz, Mondrako neskak hartuko dituzte Agorrosin, 16:00etan. Bigarren erregional mailako taldea, berriz, Aitor Blancok eta Igor Alberdik gidatuko dute. Talde horrendako domekakoa izango da denboraldiko estreinaldia; Eibarko Urki izango dute bisitari, 18:00etan.

BERGARAK ERE ETXEAN

Joan den astean Zumaian itxura polita eman eta gero (0-0), erregional mailako Bergarako futbol taldeak bihar jokatu du etxeko lehenengo norgehiagoka. Neka Galanen mutilek Pedrusko hartuko dute bihar, Agorrosin (17:00). Joan den astean Pedruskok 2-0 irabazita hasi zuen denboraldia, eta mahoneroendako ez da arerio erraza izango Elgoibarreko taldea.

'Berriketari' taldekoak astero elkartzeko gara euskaraz egiteko



'BERRIKETARI' PROGRAMA.

Euskaldunberriei euskaraz egiteko guneak eskaini nahirik, Jardunek, Udal Euskaltegiak, AEKK eta Bergarako Udalak bultzatutako egitasmoa da. Euskaldun zaharrez eta euskaldun berriz osatutako 3-4 laguneko talde txikitik antolatuta dago eta talde bakoitza astean behin elkartzeko da euskaraz praktikatzen. Jende boluntarioa da, elkarri lagunduz ondo pasatzen duena.

EBPN

euskara biziberritzeko plan nagusia, Bergara

Informazio gehiago:
www.bergara.net
Euskara Zerbitzua: 943 77 91 66

BERGARAKO
UDALA

> ESKUBALOIA

Bergarako taldeek lagun artekoekin jarraitzen dute: nagusiak Urolaren kontra eta gazteak Oñatin

Joan den astean Zarauzko taldeen bisita izan zuten Bergarako eskubaloi taldekoek, eta oraingo asteburuan ere prestakuntza lanetan jarraituko du Bergarak. Territorial mailako taldeak Urolaren kontra jokatu du lagun arteko norgehiagoka, 17:00etan. Gazteak, berriz, Aloñaren kontra lehiatuko dira domeka goizean (10:30).

> AGORROSIN

Kirolgunea berria egunero izango da zabalik eta herritarrendako arreta bulegoa, Agorrosin

Aste barruan, astelehenetik egubakoitzera arte, 07:00etatik 22:00etara izango da zabalik Agorrosin kirolgunea berria. Zapatuetan, domeketan eta jai egunetan, berriz, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara zabalduko dute Kirol Zerbitzuko langileak Agorrosin gongo dira aurrerantzean. Telefonoa hau duzue: 943 77 70 95.

> ARETO FUTBOLA

Urriaren 9a da Labegarrietako areto futbol txapelketan izena emateko azken eguna

Labegarrietako areto futbol txapelketa aldaketekin dator, hasteko: zuzendaritza goitik behera aldatu dute. Hala, urriaren 21ean hasiko duten txapelketan izena emateko geroago eta gutxiago geratzen da, urriaren 9a da eta azken eguna. Horretarako, talde bakoitzak 200 euro ordaindu beharko ditu, Lagunak elkarteak Euskadiko Kutxan duen kontu korrontean.

Goienkaria

Martitzena / 2006ko irailaren 26a / GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA



SAN MIGELAK 2006

Oñatiko jaiak

ARGAZKIA: GOIENKARIA



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



Kultura Sailak jai zoriontsuak opa dizkizue



OÑATIKO UDALA

Goienkaria

Argiratzalea

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktoreburua**
Leire Kortabarria **Erredakzioa** Oihana Elortza,
Arantzazu Ezkibel, Mireia Bikuña, Jon Berezibar
Maketazioa Oxel Arrieta **Publizitatea** Itsaso
Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

EGOITZA NAGUSIA BERGARA

20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK ARRASATE

20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA

20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea

Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza

Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Post-a-e:
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210 • **Tirada:** 4.800 ale



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen bertan adierazitako
iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako

Kultura Sailak

(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza)

diruz lagundutako aldizkaria



alkatearen agurra

Lurdes Idoiaga

Ongi pasa Oñatiko jaiak!

Lerro hauen bidez, lehen aldiz zuzentzen naiz zuengana, eta Oñatiren alde lan egiteko nire konpromisoari eusten diodala esateko baliatu nahi dut okasioa, ziur bainaiz zuen elkarlana izango dudala denon artean herriaren onerako nahi ditugun helburu guztiak lortzeko.

Eta hasiera-hasieratik eskertu nahi dut lanean ibili zaretenon ahalegina; izan ere, jaietako egitarauak biltzen dituen ekimenak islatzerakoan, bai alor honetarako eta bai beste batzuetarako ere elkarlanean sinesten duten askoren nahiak gauzatuko direlako, betiere geure inguru eta herria hobetzeko.

Bestalde, gure herriaren baketze eta normalizatorako aukera berriak eragiten digun ilu-

sioaz gain, uste dut behar-beharrezkoa izango dugula prozesu horretan aurrera egiteko denon konpromisoa. Denok ahalegindu behar dugu, bai era guztietako biolentzia baztertzeko, bai ibilbide luze honetako biktima guztiei laguntzeko eta bai askatasunik gabe dauden pertsonen giza eskubide guztiak betearazteko, herriaren eskubideak aitortuko dituen prozesuak aurrera egin dezan.

Azkenik, arrazoi bat edo beste tarteko, jaietako hauetan gurekin egon ezina duten haiei nire agurrik beroena, eta hemen gaudenoi, berriz, egitarauak eskaintzen dizkigun kultur eta dibertsio aukera ugarietzat jotzeko gain, saiatu gaituzela guztion artean, jai eta dibertsio deskantsurako eskubidearekin bateragarri egiten, horretarako beharrezkoa den portaerak izanez.

AURKIBIDEA

Egitaraua > 04-05
Joxe Urtzelai > 06
Laixan elkartea > 09
Kale antzerkia > 10
Danborrada > 11
Musika banda > 12
Jolasparkea > 14
Txorimaloak > 15
Sokamuturra > 16
Musika > 18-19
Suzko erruberak > 20
Perkusioa, dantza... > 21
Herri eguna > 22



argazki zaharra

Haurren eguna 60ko hamarkadan

Asko aldatu dira gauzak Oñatin azken urteotan, alboko argazkiari begiratu. Hain zuzen ere, 60ko hamarkadako haurren egunari dagokio. Garai hartan, haurren egunean, Euskal Herriatik kanpoko dantzariak etortzen ziren Oñatira. Bertan agertzen diren dantzariak Kataluniatik etorri ziren. Eta argazkiak urte asko dituen beste

adibide batzuk ere badaude: ezker aldean dagoen bi zaldiko Citroen autoa, esaterako. Gaur egun, Oñatiko plazan ezin daiteke autoz ibili.

Argazkia Txurruka tabernako arkupeetatik atera zuten.

Argazkia: Plazaola.
Testua: Mireia Bikuña
Urtea: 60ko hamarkada.



ZURICH AUTOk eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, %10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala.
 - Laguntza juridiko eta legala bidaietan
 - Deskontuak tailerretan
 - Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Melia...) eta paradoretan
 - Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 30 09
Polts: 620 77 66 20

EGITARRAUA

JAIETAKO EGITARRAUA

Martitzena, 26

19:00 Agustin Sanchez Laveagak ASTRONOMIAREN gaineko hitzaldia egingo du: *Planetak eta bizitza unibertsoan*. Kultura etxeko areto nagusian izango da berbaldia.



SAGARDO-DASTATZEA

18:30-20:30 Joxe Urtzelai erretiratuak egindako OÑATIKO ERMITA ETA DORRETXEEN ERREPLIKEN erakusketa. Erliebezko koadroak eta maketak izango dira. Kultura etxean dago erakusketa irailaren 28ra arte.

Eguena, 28

18:00 Herriko plazan, PATXIN ETA POTXIN pailazoaren emanaldia. Eguraldi txarra egingo balu, Santa Ana antzokian izango litzateke.

20:00 Txosna-gunean txupinazoa. Segidan, TXANTXIKUA jaitziko dute, jai hasiera ekitaldi moduan.

20:15 Txosna-gunean, BERTSO SAIOA: Ekaitz Goikoetxea, Iñaki Gurrutxaga, Julen Zelaia eta Ministro bertsolariek abestuko dute, eta Pasku izango da gai-jartzailea.

20:30 Herriko plazan, LISKER taldeak dantzaldia girotuko du.

23:00 DANBORRADA NAGUSIA ibiliko da herriko kaleetan. Ohi bezala, Oñatiko Musika Bandak lagunduko dio. Bukaera herriko plazan izango da,

Danborradaren Martxa-rekin eta San Migelen ereserkia-rekin.

Segidan, Oñatiko preso eta errefuxiatuen aldeko MANIFESTAZIOA izango da.

Eta gero, LISKER taldearekin dantzaldia, hura ere herriko plazan.



KALE IKUSKIZUNAK

Egubakoitza, 29

09:00 Txistulari bandaren GOIZERESIA.

10:00 Herri mailako PLATER TIROKETA txapelketa jokatu dute Txopekua tiro-zelaian.

11:00 MEZA NAGUSIA entzungo dute Mikel Deunaren parrokiaren Parrokiako abesbatzak kantatuko du.

12:00 OÑATIKO MUSIKA BANDAK kalejira egingo du.

12:00-14:00 UME ETA GAZTETXOENDAKO JOLASPARKEA izango da zabalik Etxaluzen.

Puzgarriak, ludoteka, auto eroak, *looping bike*, quad pista, rokodromoa eta gehiago izango dira.

13:00 OÑATIKO MUSIKA BANDAK kontzertua egingo du herriko plazan:

San Migelen martxa (I. Refice)

Martxa turkiarra (W. A. Mozart)

Obertura Vascongada (J. A. Santesteban)

Adinak (Felix Kortabarria)

La Dolores operako jota handia (Breton maisua)

17:00-19:00 Etxaluzen, UME ETA GAZTETXOENDAKO JOLASPARKEA.

19:00 HORTZMUGA taldeak 12K delako kale antzerkia egingo du herriko plazan eta inguruko kaleetan.


Ondo pasa jaiak!



Peugeot 407sw

**Oñati
GARAJEA**

Goribar auzoa 9 OÑATI
Tel.: 943 78 13 50
e-posta:
garageonati@euskalnet.net



LIZARRALDE

KIROLAK



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

Oñati
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

EGITARUA

22:00 Txosna-gunean KONTZERTUA, honako taldeekin: UK Subs
999
Des-Kontrol
Afonía

23:00 Herriko plazan LUAR NA LUBRE taldeak kontzertua egingo du.

Zapatua, 30

09:00 Txistulari bandaren GOIZERESIA.

10:30 HERRI EGUNEKO erakusketa eta lehiaketa: ardi, ahari eta bildotsak; fruta, barazkiak eta gazta; loreak eta landareak; ganadua; eta artisautza.

11:00 TRIKITILARIAK ibiliko dira kaleetan barrena.

11:00 TOLOSAKO GAITARIEK kalerik kale joko dute.

12:00 SAGARDO-DASTATZEA izango da herriko plazan, honako sagardotegiekin:

Zalbide (Abaltzisketa)
Aburuza, Zabala (Aduna)
Sarasola (Asteasu)

Astarbe, Bereziartua, Etxeberria, Larrarte, Lizeaga, Petritegi, Sarasola (Astigarraga)

Añota (Azpeitia)

Barkaitzegi (Donostia)

Otsua-Enea, Itxasburu, Larre-Gain (Hernani)

Aulia (Legorreta)

Isastegi (Tolosa)

Altuna, Eula (Urnieta)

Saizar (Usurbil)

Otatza (Zerain)

13:15 Lehiaketetako SARIAK banatuko dituzte udal ordezkariak.

14:30 HERRI BAZKARIA Zubikoa kiroldegian.

18:00 HERRI KIROL JAIALDIA herriko plazan.

Eguraldi txarra egiten badu, Zubikoa izango da.

19:30 Oñatiar PRESO ETA ERREFUXIATUEI OMENALDIA txosna-gunean.

19:30 F. ESNALÉN SALBE SOLEMNEA abestuko dute parrokiako abesbatzak eta Oñati abesbatzak parrokiak.

20:30 Herriko plazan, ABIBA DISKO FESTA (DJ, Go-go eta dantzariak, soinu eta argi ikuskizuna).

23:00 ERROMERIA txosna-gunean.



BARRAKAK UMEENTZAT



HERRI KIROLAK HERRIKO PLAZAN

Domeka, 1

09:00 Herriko txistulari bandak GOIZERESIA joko du jendea esnatzeko.

Goiz osoan, IV. Ageriko MARGO LEHIAKETA egingo da. Artistak kaleetan eta txoko esanguratsuetan egongo dira euren lanak egiten.

11:00 MEZA NAGUSIA parrokiak, bertako abesbatzak abestuta.

11:00-14:00 UME ETA GAZTETXOENDAKO JOLASPARKEA zabalduko dute Etxaluzen.

12:00 OÑATIKO MUSIKA BANDAREN kalejira.

13:00 MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA herriko plazan, honako piezekin:

Valtierra (J.A. Morella Rodrigo)

La Cénérentola (G. Rossini)

Esclavos Felices (J.C. de Arriaga Balzola)

Glenn beats the battle of Jericho (Jef Penders)

17:00 HERRIKO KOADRILEN ARTEKO JOKOAK txosna-gunean.

17:00-20:00 TTAKUNPA taldeak emanaldia egingo du herriko kaleetan barrena: perkusioa, dantza afrikarra eta malabare tailerren erakustaldia egingo dute.

18:00 Plazako frontoian ARKU TIROKETA

ERAKUSTALDIA izango da.

18:30 Circ Panic taldeak LA CARAVANA PASA delako kale ikuskizuna egingo du herriko plazan eta inguruko kaleetan.

19:00 TORTILLA LEHIAKETA jokatu dute txosna-gunean; segidan, koadrilen afaria.

20:00 MONTES BLANCOS orkestrak dantzaldia girotuko du herriko plazan.

20:30 BALKOITIK BALKOIRA BERTSO SAIOA Amets Arzallus eta Sustrai Colinarekin.

22:00 Txosna-gunean KONTZERTUA, Repugnancia Social eta Oñatiko bi taldeekin.

23:00 A. Caballer piroteknia enpresaren eskutik, SUZKO ERRUBERAK.

23:30 Montes Blancos orkestrak girotutako DANTZALDIA, herriko plazan.

Astelehena, 2

09:00 IRIARENA txistulari bandaren eskutik.

09:30-10:00 ZEZENTXOAK ETA PONEY-AK herriko plazan.

10:00 SOKAMUTURRA ohiko kaleetan barrena, Arno abeltzaintzako zezenekin.

12:00 OÑATIKO MUSIKA BANDAREN kalejira.

12:00etan hasita, Incansables TXARANGA ibiliko da kaleko bazterrak alaitzen.

Horrez gain, dantzaldia izango da ERRETIRATUEN ELKARTEAN.

12:00 KOADRILEN MOZORRO erakusketa.

Eguerdian, PAELLA JANA txosna-gunean

Laixanek antolatuta.

16:30 IRIARENA txistulari bandarekin.

16:30-17:00 ZEZENTXOAK ETA PONEY-AK herriko plazan.


17:00 SOKAMUTURRA ohiko kaleetan barrena Arno abeltzaintzako zezenekin.

17:00 KONTZERTUA txosna-gunean.

20:00-21:00 JOSELU ANAIK taldearekin, dantzaldia herriko plazan. 23:00etan jarraituko dute.

Martitzena, 3

18:30-20:30 IV. AGERIKO MARGO LEHIAKETAKO LANAK erakusketan ipiniko dituzte kultura etxeke erakusketa aretoan. Hilaren 11ra arte egongo da zabalik, astelehenetik domekara.



itziar optika



Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88
OÑATI • itziaroptika@wanadoo.es

ELKARRIZKETA JOXE URTZELAI ERRETIRATUA

"Oñatiar askok ez dute pentsatzen horrenbeste eliza daudenik herrian"

OIHANA ELORTZA

67 urterekin hasi zen Joxe Urtzelai Oñatiko ermiten kopiak egiten. Madalenakoa da bera, eta hango ermita egin zuen lehenengo; gero Zubillagakoa, Koixkarkoa eta Torreauzokoa. Egun 81 urte ditu eta artisautzatik ere erretiratu da.

Zenbat ermitaren kopiak egin dituzu guztira?

Ermitak, parrokiak eta elizak batuta, 24 egurrezko kopia egin ditut guztira. Eta bost maketa: lau dorretxe eta udaletxea.

Badaude horrenbeste eliza-erakin Oñatin?

Oñatiar askok egin didate galdera hori. Jendeak ez du uste horrenbeste daudenik, baina hementxe daude guztiak, edo ia guztiak, behintzat.

Zeinek eman dizu lan handien?

Udaletxeak. Urtebete behar izan dut egiteko. Detalle guztiak sartzen saiatu naiz: usoak, txistulariak, udaltzaina, banko-

an eserita egoten diren aitajaunak...

Ze egur mota erabili duzu pirograbatu horiek egiteko?

Pagoa, samba eta coto egurrak erabili ditut. Ez dute haririk eta kolorea ere politagoa dute. Egurrez gain, alanbreak eta pintura ere erabili ditut kopiak egiteko.

Ze eskala erabili duzu?

Batzuk 40ko eskalan daude eginda eta beste batzuk 46koan.

Ze prozesu jarraitu duzu lan horiek egiteko?

Lehenengo, argazkiak atera ditut eta argazkiak handitu ditut gero. Hala ere, makina bat aldiz joan naiz ermitetara, gertutik ikusteko, detailez konturatzeko. Argazkia handitu ostean kartoirra pasatzen dut, neuk gura dudan

"Udaletxea egitea kostatu zait gehien, eta maketa hori da nire gustukoena"

tamainara. Gero aroztegi-
ra joaten naiz, egurrak har-
tu eta kartoian egin dudan
egurrera pasatzen dut.

Ze kopia egin zenuen lehenengo?

Madalenakoa naiz ni, eta hango ermita egin nuen lehenengo. Herrirantz etorri naiz poliki-poliki: Zubillagakoa, Koixkarkoa, Torreauzokoa...

Etxean dituzu gordeta lan horiek guztiak?

Bai. Batzuk etxe barruan ditut, paretetan eskegita; besteak, ordea, ganbaran.

Zein gustatzen zaizu gehien?

Udaletxearen maketa. Egiten ere gehien kostatu zait, baina detailez harro nago. Argia ere jarri dut kontzejuean.

Orain zer egiten ari zara?

Ezer ez. Utzi egin diot lan horri ere. Urte asko ditut dagoeneko.

Gustatu zaizkie kopiak herritarrei?

Baietz diote. Askok ez zekiten horrelako gauzak egiten nituenik, eta sorpresa hartu dute.



Eguraldi txarrak aprobetxatu ditu Urtzelaiak artisau lanak egiteko.

OIHANA ELORTZA

Oñatiko iltzeginek egindako iltzeak ere jarri ditu ikusgai

Urtzelaiak kontatu digu XVIII. mendean 45 iltze-enpresa inguru zeudela Oñatin, eta, hori gogoratzeko, Oñatiko eraikinetatik jasotako iltzeen bilduma ere jarri du ikusgai, egurrezko kopiekin batera. Erakusketa kultura etxean jarri dute eta zabalik egongo da irailaren 28a arte, egunero, 18:30etik 20:30era.

BATUAK S.A.

- MEKANIZAZIOAK ETA KONPONKETAK ORO HAR
- TORNUAK ETA FRESATZEKO MAKINAK - CNC
- ARTEZTEKO MAKINAK

Zubillaga industrialdea 12
Tel.: 943 78 11 15
Faxa: 943 71 82 50
e-maila: batuak@batuak.com
www.batuak.com
OÑATI

Hizkuntza eskolak

haur, gazte, heldu eta enpresentzat

txinera - frantsesa - alemana - ingelesa - italiera

- Extranet-a ikasleentzako zerbitzuarekin
- Ikasteko asteroko mezu elektronikoak
- On line sistema

Eta Mondragon Unibertsitateko
ikasle bazara

%25_{eko}

deskontua *

* Aurrez aurreko eskoletan

matrikula zabalik



Arrasate
Araba Etorbidea 4
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua 14
Tel.: 943 71 60 00

Donostia-San Sebastián
Zubieta 26
Tel.: 943 43 31 02

Bilbo
Buenos Aires 7
Tel.: 946 61 34 67

Vitoria-Gasteiz
Florida 8A
Tel.: 945 15 01 55

www.mondragonlingua.com

ERALDATU, ERAIKI

BALIOA ERANTSI

Gizakiok antzinetik izan dugu aterpe seguru baten beharra.
Egun, oraindik ere, segurtasuna ezinbesteko balioa dugu eraikuntzan.



 **LANA**
www.lana.coop



ilusioerako mila eta bost arraso

LAIXAN

Laixanek euskaraz busti gura ditu herriko jaiak

Paella jana, bertsoak eta lelo lehiaketa antolatu ditu Oñatiko euskara elkarteak jaietarako.

ARANTZAZU EZKIBEL

Laixanek, Oñatiko euskara elkarteak, hainbat ekintza antolatu ditu herriko jaietarako. Herri giroa sortzea dute helburu ekitaldiok.

Laixanek euskaraz busti gura ditu herriko jaiak. Euskara elkartearen helburua da jaietan ere euskara ahoz aho ibiltzea. Horretarako, jaietako lelo lehiaketa antolatu dute. Aurtengo leloa "Euskeraz! Zela ba bestela?" izango da. 60 euroko saria jaso du irabazleak. Gainera, lelo horrekin 4.000 pegatina aterako dituzte, jaietan leloa guztiok soinean ibiltzeko.

Lelo lehiaketan parte hartzeko hainbat kaxa jarri zituzten tabernatan (Luise-na, Guria, Pako, Arrano eta gaztelekua). Leloak idatzi eta kaxetan sartu behar ziren. Lelo guztiak batuta, onena aukeratu zuten Laixan elkarteeko kideek.



Hirugarren aldiz antolatuko dute paella jana Laixan elkarteeko kideek.

LAIXAN

PAELLA JANA

Errosarixo Bixamon egunean, mozzorro egunean, txosna-gunean paella jana egingo dute. Txartelak salgai daude Guria, Luisena, Arrano, Otamendi, Pako

Sei eurotan daude salgai Errosarixo Bixamon egunerako txosna-gunean antolatu duten paella janerako txartelak

eta Laixanen, sei eurotan. Jaietan, txosna-gunean ere erosi ahalko dira, baina aurreko bi urteetan ondo saldu dira eta gastatu berehala egingen direla esan digute Laixanekoek.

Balkoitik balkoira bertsoak

Urriaren 1ean, Errosarixo egunean, Kale Zaharrean, Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsoan arituko dira. Iluntzean izango da bertso saio berezia, 20:30ean. Bertsolari bakoitza Kale Zaharreko balkoi batean izango da, eta, gai librean, balkoitik balkoirako saioa eskainiko dute.

Ez da oso ohikoa bertso saio mota hori egitea. Euskal Herrian, balkoitik balkoirako saio oso gutxi egiten dira. Oñatin, baina, badira urte batzuk Laixanekoak hori egiten hasi zirela eta arrakasta handiko ekitaldia izaten da herriko jaietan. Klean giro bikaina sortzen da.

Jaietako zozketa bertso saioan egingo dute. Txartelak dagoeneko salgai daude Laixanen, Gurian, Pakon, Otamendin, Arranon eta Luisenian, euro baten truke. Baserri turismo batean asteburu-pasa edo Zelai Zabalen bazkaria dira sariak.

ALZU

Ehiza, Arrantza eta Mendi artikuluak

Ehiza eta arrantzarako lizentziak tramitatzen ditugu

Arantzazu Kalea 2 • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 30 67
Posta-e: iarrese@hotmail.com

UDAZKENEKO ESKAINTZAK

AURPEGIAN:

- ultrasoinu aparailuekin edo aparailurik gabe
- "dermoabrasio" azal berritzailea
- etnako harri bolkanikoarekin aurpegi eta esku tratamenduak

GORPUTZEAN:

- bildukinak: depuratiboak, zelulitisa, muskularra, artikularra, nekea, larruazalaren intoxikazioa eta estresa.
- lur oligoaktibo autoberogarria: berehala ondo sentitzeko (drainatzea eta indartzea)
- harri bolkanikoekin egindako masajeak

BESTELAKOAK

- laser bidezko depilazioa: izterondoak, besapeak, bekainak, bizkarra...
- depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- manikura eta pedikura
- mikropigmentzioa: ezpainak eta bekainak
- betileen kizkurtzea

G
e
u
z
d
e
r
t
i
z

Kalebarria 29 behea
Orbea Etxea, parke aldetik
Tel.: 943 78 01 46
20560 OÑATI
www.goiena.net/blogak/guztizeder

Ez ahaztu orain dela unerik egokiena LASER bidezko depilazioa egiteko, elektrikoa eta baita solariuma erabiltzeko ere.

Ondo pasau jaixetan!

KALE IKUSKIZUNAK

Bi kale antzerki emanaldi daude aurten egitarauan

Herriko plazan egingo dituzte bi kale antzerkiak, irailaren 29an, egubakoitza, bata, eta urriaren 1ean, domeka, bestea

MIREIA BIKUÑA

San Migel jaietan kale ikuskizunek ere badute lekua. Hain justu ere, aurtengo jaietan, Hortzmuga eta Circ Panic taldeen ikuskizunak izango ditugu.

Eszenatokitik kanpo, antzerkia kalean ikusteko bidea emango digute Hortzmuga eta Circ Panic taldeek.

HORTZMUGA

Oñatiko kaleak kolorez jantzi dira Hortzmuga taldearen eskutik. 12K ikuskizuna ikusteko aukera izango dugu irailaren 29an, Herriko plazan, arratsaldeko 7etan.

Bufoien pazientzia bukatu egin da, mendekua da orain euren helburua. Kanpai hotsak jotzean guztiak hil egingo dira... Barrez leherturik. Inauterrien sustrailetatik eta bufoien arteko erlazioaren



Hortzmuga taldeak 12K ikuskizuna eskainiko du irailaren 29an.

GOIENKARIA

Hortzmuga taldearen '12K' ikuskizunean bufoiak dira protagonistak

Adin guztietako ikusleak harrapatuko ditu Circ Panic taldeak

Herriko plazan
Irailaren 29an eta urriaren 1ean
Kolorea, musika eta dantzak uztartzen dituzten kale ikuskizunak

inguruan eraikitako istorioa da. 12K kale antzerki ikuskizun mugikorra da, kalejira bat. Mota guztietako ikusle eta espazioetara moldatzen den ikuskizuna, hain zuzen.

10 URTEKO IBILBIDEA

Hortzmuga taldeak ibilbide tinkoa egin du azken hamar urteotan, eta dagoeneko estilo pertsonal eta erakargarria lortu du. Ilusioak eta irribarrea sortzea da euren helburu nagusia.

CIRC PANIC

Zirku munduko akrobazia, oreka ariketak eta bestelako teknikak dira Circ Panic taldearen *La caravana pasa...* ikuskizunaren oinarriak. Lau pertsonaia dira ikuskizuneko protagonistak. Ikusleak harrapatzeko zuzeneko musika eta dantzak erabiltzen dituzte. *La caravana pasa...* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu urriaren 1ean, 18:30ean.

Circ Panic taldea Kataluniatik dator eta 1998an sortu zen.



MAPFRE



- Aseguru orokorrak
- Autoak erosteko finantzaketa
- Renting-a
- Diru inbertsioak :B.G.A.E. (E.P.S.V.)
- Hipotekak

Jose M^a Altube Kortabarría

Ondo pasau jaixak!

Portu Kalea 5 • 20.560 Oñati
Tel.: 943 78 12 65 • Faxe: 943 78 07 85

dOr

Solarium horizontala aire egokituarekin

Beltzaran-kolore berria, UVA izpirik gabe
Sesio bakar batean beltzaran-kolore bikaina lortuko duzu zure azalerako kalterik gabe

- Aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazioa argizari hotz eta beroaz
- Portzelanazko azazkalak
- Betileen permanentea
- Manikura eta pedikura SPA
- Makilajea
- Masajeak
- ...



dOr Estetika
Errementari 5
20560 Oñati
T. 943533647

DANBORRADA

Danbor hotsek ez dute hutsik egingo aurten ere

Herriko kaleetan

**Eguenean
23:00etan**

Helduen danborrada
Oñatiko kaleetan
zehar egingo dute

Entseguek erantzun epela izan badute ere, guztia prest daukate antolatzaileek jaietako ekitaldi handi baterako

JON BEREZIBAR

Betiko zazpi konpainiak irtengo dira aurten ere elkarrekin, plazan San Migelen ereserkia jotzeko. Bezpera eguneko gauerdian izango da hori. Lehenago kaleetan ibiliko dira.

Azken asteetan fin ibili dira entseguetara joan direnak danbor eta kupelei egurra ematen. Astelehen eta eguenean danbor-jotzaileek entseatu ohi izan dute, eta dantzariak, astelehen eta eguaztenetan. Hori guztia, irailaren 28rako prest egoteko.

Urtero moduan, zazpi konpainia irtengo dira danborradan: bost danbor eta kupelekin eta beste bi dantzariak. Gaueko hamaketan irtengo dira, Oñatiko bandak lagunduta, eta herriko kaleetan ibiliko dira, herriko plazan amaitu arte. Foru plazan, gauerdian, elkarrekin joko dute danborradaren martxa eta

San Migelen ereserkia, ohiturak agintzen duen moduan.

TRADIZIO HANDIKOA

Azken asteetan jo eta su ibili dira entseguekin, baina haiek ez ei dute behar bezalako erantzunik izan. Izan ere, dagoeneko urte asko dira nagusien danborrada egiten dena eta entseguetara ez ei da horrenbeste jende joaten, Argitxu Perosterena entseguetako arduradunak dioskunez. Antza, ondo ikasiak dituzte dagoeneko abestiak. Hala ere, 28ko hitzordura ez dute hutsik egingo eta berriz ere entzungo dira danbor hotsak Oñatin.

Entseguetara jende gutxi agertzen dela diote; antza, ondo ikasiak dituzte abestiak



Hitzordu nagusia gauerdian Foruen plazan izango da.

OÑATIKO UDALA



Bidebarrieta • OÑATI
Tel.: 943 78 34 44



Ondo pasa ditzazuela
San Migel jaixak!

ELKARRIZKETA IÑAXIO IBARRONDO BANDAKO ZUZENDARIA

"5 urterekin hasi nintzen, eta aitajauna zen orduko zuzendaria"

ARANTZAZU EZKIBEL

Iñaxio Ibarondo Oñatiko Udal Bandako zuzendaria da azken urteetan. Musika familiatik datorkion zaletasuna da. Aitona eta aita ere zuzendariak izandakoak ditu Ibarondok. Herriko jaietan izango dituen ekitaldiez aritu gara.

Zuentzat, bandako musikarientzat, jaiak eta ospakizunak lan egiteko egunak izaten dira.

Bai, horrela izaten da. Dagoeneko ohituak gaudе, baina nahiko astuna izaten da, batez ere danborradak. Musika asko jo behar da eta bukaerarako gogorra egiten da.

Gainera, danborrada ateratzeko eguraldiak lagundu egin behar du. Antolakuntza taldean daudenek lan handia egin dute, eta, ahal dela, behintzat, atera nahi izaten dute. Guk, berriz, euriarekin nahiago dugu ez atera. Instrumentuak busti egin daitezke-eta.

Esperientzia handia duzu bandan. Zenbat urte daramazu?

Ni bandara 5 urterekin sartu nintzen, atera kontuak... Orduan, gure aitajauna zen bandako zuzendaria eta nik danborra jotzen nuen.

Gero, denboraldi batean ez zen bandarik egon

Oñatin. Orain urte batzuk, gaur egun dagoen banda sortu zenean, zuzendari bezala hasi nintzen lanean, eta gaur arte. Orain bi urte zilarrezko ezteiak ospatu genituen.

Eta urte hauetan herriko jai giroa asko aldatu da?

Bai, hasi ginenetik asko aldatu ditugu jotzen ditugun piezak. Dantzarako zaletasuna galdu egin da. Orain, gazteek ez dute dantzarik egiten. Dantzaldiak baino gehiago, kontzertuak egiten dira orain.

Lehen, jendeak dantza gehiago egiten zuen. Orain, kontzertuez gain, urtean bi dantza saio egiten ditugu: Gorpuztietan eta jaietan. Aurten, artzain txakur eguneko saiorik ez da egongo.

Eta zein da jendeak gehien eskatzen duen musika pieza?

Denerako dago. Behin, lehengo musika errekupe-ratu guran, antzinako piezak jo genituen. Inork ez zidan esan ondo egon zenik; batek, ordea, musika baldarra zela esan zidan.

Entzuleak kritikoak izaten dira?

Bai. Kontzertu bat eman ostean, jendeak iritzia ematen du. Hala, gustukoen izan dituzten piezak beste kontzertu batean errepikatzen ditugu. Gainera, kontzertua hasi aurretik, ze pieza joko ditugun azaltzen dut. Entzun behar diren zatien esa-



Iñaxio Ibarondok dioenez, piezak asko aldatu dira garai batetik hona.

ARANTZAZU EZKIBEL

"Kontzertu bat eman eta gero, jendeak iritzia ematen du; kritikoak izaten dira entzuleak"

"Jaietan, orduaren arabera, beste musika kontzertu batzuk entzutera joaten naiz"

nahia azaltzen ere saiatzen naiz. Orduan, jendea adi egoten da eta gero iritzia ematen du.

Musika entzuteko areto egokiak ditugu Oñatin?

Bai, guk Santa Ana aretoan jotzen dugu eta ondo egokituta dago musika entzuteko. Urtean bi aldiz, Gorpuzti egunean eta jaietan, plazan jotzen dugu.

Egia esan, banda plaza girokoa da, kalekoa. Niri kosta egin zitzaidan Santa Anara joatea, baina orain oso gustura gaudе.

Beste kontzerturik entzuten duzu?

Hori orduaren arabera izaten da. Iaz, semeak izan zuen kontzertura joan nintzen.

San Migel Bixamon egunean, beste urte batzuetan, Nafarroako talde bat etorri izan da, eta halakotan ere gerturaten naiz musika entzutera.

Eta autoan ze musika entzuten duzu?

Orain semeak atera duen CD berria daukat (Sharon Stoner), baina bestela, musika klasikoa entzuteko ohitura dut.

Berezia izaten al da zure aitak sortutako piezak jotzea?

Bai, batez ere pieza onak direnean, hala nola: *Lazos de Lealtad*, *Arantza artean...* Danborradan jotzen ditugun pieza batzuk ere aitarenak dira: *Mirentxu*, *Udana Zubillaga* eta *Despierta juventud*, besteak beste.


ONDO PASA JAIETAN !

ULMA

ULMA TALDEA • Otadui Zuhaitzia, 3-13 p. k. • 20560 OÑATI (Gipuzkoa) • Tel: 943 034900 • Faxa: 943 780917 • www.ulma.es • grupoulma@ulma.es

SAN MIGELETAN

firarik onena gurean!



Ondo pasau jaixak!

AKER / ANTON / BIKOITZ / BOGA / ETXE-AUNDI /
GALICIA / GURIA / ONGI / TXOPEKUA / TXURRUKA /
UMEREZ / URTIAGAIN / ZOTZ

UMEAK

Etxaluzeko jolasparkeak berritasunak ditu aurten

Etxaluze plazan

Irailaren 29an eta urriaren 2anAuto eroak, quad pistak, *looping bike*, rokodromoa, puzgarriak...

Jai egitaraua osatzeko orduan, Kultura sailak ez ditu herriko txikiak ahaztu; makina bat aukera dute ondo pasatzeko

MIREIA BIKUÑA

Etxaluze osteko plazan jolasparkea jarriko dute, San Migel egunean, irailaren 29an eta urriaren 2an. Patxin eta Potxin pailazoak emanaldia egingo dute irailaren 28an.

Aurtengo jaietako jolasparkea berritasun ugariarekin dator. 10-12 urte arteko gazteendako elementu berriak egongo dira: auto eroak, *looping bike*, rokodromoa eta quad pistak, besteak beste. Txikiendako ohiko puzgarriak eta ludoteka egongo dira.

Haur parkea irailaren 29an eta urriaren 1ean egongo da zabalik. Etxalu-

ze osteko plazan egongo da. San Migel egunean, 12:00etatik 14:00ak arte irekiko dute goizez, eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00ak arte. Urriaren 1ean, aldiz, goizez bakarrik egongo da irekita, 11:00etatik 14:00ak arte. Eta eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian prestatuko dute parkea.

PAILAZOAK

Jaiak hasten diren egun berean, hau da, irailaren 28an izango da txikiendako lehen ekitaldia. Patxin eta Potxin pailazoak izango dira plaza ingurua girotuko dutenak. Pailazo bikoteak Ipar Ameriketako kultura gerturatuko digu.

Pailazoen emanaldia plazan izango da, arratsaldeko 6etan.



Quad pista egongo da.



Puzgarriak dira txikien gustukoak.

ARTXIBOA

MEKANIZATUETARAKO ZERBITZU OSOA



MEKALKI

S. Coop.

*Ondo ibili
San Migeletan !!*

Zubillaga industrialdea 13
Tel.: 943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e.maila: mekalki@mekalki.es
<http://www.mekalki.es>
OÑATI

TXORIMALOAK

Kalez kale herriko txikiak izutu guran aritzen dira buruhandiak

Oñatz dantza taldeko kideek dute erraldoi eta buruhandiekin dantzan aritzeko ardura azken 20 urteetan

ARANTZAZU EZKIBEL

Nork ez du buruhandien aurrean korrika egin? Herri guztieta-ko jaietan izaten dira erraldoi eta txorimaloak, gaztetxoan gozamenerako. Kalez kale ibiltzen dira herriko dantzariekin.

Oñatiko jaietan adin guztieta-ko eskaintzak daude. Hurrei zuzenduta, besteak beste, erraldoi eta buruhandiak egoten dira. Horiek kalez kale ateratzen dira, kalejiran, herriko txikiak izutu nahian.

DANTZARIEN LAGUNTZA

Oñatiko buruhandi eta erraldoiak kalez kale ateratzeko ardura Oñatz dantza taldeak du. Ardura hori azkeneko 20 urteetan izan dute Oñatz dantza taldeko kideek. Kalejiretan, Oñatiko dantzarietaz gainera, Udaleko txistulariak, gaitariak eta trikitilariak atera ohi dira.

"Oñatiko Udalak lau erraldoi ditu; bi bikote. 30-40 kilo pisatzen dute. Asko dirudien arren, nahiko erraza izaten da dantzan aritzea", adierazi digu Julen Kortabarriak, Oñatiko Oñatz dantza taldeko kideak. Oñatiko Udalaren



Txorimalo ezagunen moztaroen azpian herriko gazteak ibiltzen dira kalean gora eta behera.

OÑATIKO UDALA

Kondea eta kondesa eta baserritar bikotea dira Oñatiko Udalak dituen erraldoiak

Txorimaloen moztaroen azpian herriko gazteak egoten dira, txikiak izutu guran

bi erraldoi bikoteak *Kondea* eta *kondesa* eta *baserritar* bikotea dira.

Erraldoiez gain, *Txirri*, *Mirri* eta *Txiribiton*, *akerra* eta *sorgina* ateratzeko ardura ere izaten dute dantzariak. Txistularien laguntzarekin dantzan aritzen dira, eta dagoeneko ondo ezagunak dira ume eta gaztetxo oñatiarren artean.

"Jaietako arduradunek ibilbidea zehazten digute eta gu kalejiran joaten gara erraldoi eta txorimaloekin, dantza ezberdinak egiten: kalejira, baltsea, fandangoa eta arin-arina, besteak beste", gehitu du Julenek.

"Zaldikoak ere badaude, baina orain, konpontze-raman ditugu eta jaietan ez dira aterako", azaldu digu dantza taldeko kide Jesus Irizarrek.

OSO OSPETSUAK

Haurrak izutu nahian ibiltzen dira buruhandiak. Herriko gazteak izaten dira moztar horien azpian korrika aritzen direnak. Kalez kale txikiak atzetik aritzen dira, batzuen gozamenerako eta beste batzuen ikararako.

Oñatin ospe handia dute erraldoi eta buruhandiek. Hala, Atzeko Kaleko Jai batzordeak euren erraldoi eta txorimalo propioak ditu.

 **donika**

INDUSTRIA HORNIDURAK

tel. 943 78 07 45 • fax. 943 78 11 75
Goribar auzoa z/g, 20560 OÑATI

B2B - www.sumiplus.com



SOKAMUTURRA

Arno ganadutegiko zezenekin argi ibili behar

Ohi bezala, Kale Barrian, Atzeko Kalean eta plazan izango da sokamuturra, 14 urtetik gorako zale guztiendako

JON BEREZIBAR

Plaza ingurua Arno ganadutegiko zezenekin beteko da astelehenean. Goizeko hamarretan hasiko da sokamuturra eta arratsaldean bigarren txanda egongo da.

Errosaixo Bixamonean, kaleetan adi ibiliko beharko dute oñatiarrek Arno ganadutegiko zezenen batekin topo egin gura ez badute. Goizeko hamarretan hasiko dira Mutrikuko ganadutegiko zezenak kalean gora eta kalean behera, Oñatiko jaietan dagoeneko ohitura den moduan. Udalak, horren harira, 14 urtetik gorakoek bakarrik parte hartu ahal izango dutela argi utzi gura izan du. Goizeko hitzorduarekin nahikoa ez dutenek, gainera, arratsaldean berriz ere egongo da sokamuturra. Hain zuzen ere, arratsaldeko bostetan askatuko dituzte berriz ere Arnoko

zezenak. Ohi bezala, hiru izango dira kaleak: Kale Barria, Atzeko Kalea eta plaza, hain zuzen ere. Zezenak ibiltzeko eremua udalaxe ostean amaituko da, urtero moduan.

UDALAREN OHARRA

Sokamuturrean parte hartzeari dagokionez, Udalak oharra kaleratu du honakoa argi utzita: 14 urtetik beherakoek guztiz debekatuta dutela parte hartzea. Era berean, Udala ez da erantzule egingo korrikalariren bati ezer gertatuz gero. Azkenik, hesietan ipiniko dituzten ezkutalekuak korrikalariek bakarrik erabili ahal izango dituzte.

Ohi bezala, plaza inguruan izango da sokamuturra eta goiz eta arratsaldean egongo da




Herriko plaza izango da sokamuturrean ibiltzeko lekuetako bat.

OÑATIKO UDALA

urrats
Podologia Zentroa

943533637



- Kiropodiak
- Azazkal inkarnatuak
- Oin diabetikoen ultzerak
- Garatxoak
- Miaketa biomekanikoak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako ondoen aurkako tratamenduak
- Silikonazko protesiak

R.P.S. 208/05

Bidebarrieta 20 • Oñati

Ordutegia: 09.00etatik 13.00etara / 15.30etik 20.00etara

GRUPO
BESAIDE
Club de Viajes

**VIAJES
ARABA**



Lazarraga 3 • OÑATI

Tel.: 943 71 62 16 • Faxe: 943 71 63 58

www.onate@viajesaraba.com

koma,

www.komalingua.com

*koma-k familia eta lagun artean
zai zoriontsuak igaro ditzazuela opa dize!*

Hizkuntza zerbitzuak

Irakaskuntza

Itzulpenak

Interpreteak

- Gazteak eta helduak ■
- Enpresa trebakuntza ■
- Neurrira eginiko trebakuntza ■
- Ikastaro trinkoak ■
- Azterketa prestakuntza ■
- Talde murriztuak (gehienez 6) ■
- Jatorrizko irakasleak ■

Olakua, 7 behea
20560 Oñati
Tel. 943 71 82 08

Andia Mendiaren Kalea, 2 - 26D bulegoa
01010 Gasteiz
Tel. 945 17 00 57

KONTZERTUAK

Askotariko musika estiloak Oñatiko jaiak animatzeko

Hainbat lekutan

**Irailaren 28tik
urriaren 2a arte**

Erromeriak, dantzaldia, rock kontzertua eta musika zelta, besteak beste

Erromeriak, orkestrak, rock kontzertuak, musika zelta, disko-festa eta herriko taldeetako hainbat kidek eskainiko duten bertsioren kontzertua iragarri dituzte San Migel eta Errosarixo jaietarako

MIREIA BIKUÑA

Herriko plaza eta txosnak izango ditugu jaietako musika emanaldietako guneak. Baita herriko kaleak ere, kalejira bat baino gehiago izango dugu-eta giroa animatzeko.

Irailaren 28an hasita eta Errosaixo Bixamona egunera arte, egunero musika izango da protagonista Oñatin. Jaiei hasiera emateko, irailaren 28an txantxikua jaitsiko den egunean, Lisker taldearekin dantzaldia egongo da Foru plazan.

Mikel Deunaren egunean, berriz, Luar Na Lubre folk talde galizia-

rraren musika entzuteko aukera izango dugu. Taldea 1986an sortu zen, Coruña. Galiziako folk talde garrantzitsuenetakoa bada ere, nazioartean arrakasta itzela duen taldea da, batez ere 1992an Mike Oldfield ezagutu zutenetik. 1999an, talde galziarrak Oldfielden *Then & Now* izeneko biran parte hartu zuen.

Egun berean, baina, txosna-gunean rock kontzertua izango da nagusi. Uk Subs (Erresuma Batua), 999 (Erresuma Batua), Des-Kontrol (Arrasate) eta Afonia (Hernani) taldeen emanaldia gaueko 10etan hasiko da.

Herri egunean, *Abiba* disko-festarekin gozatze-ko aukera izango dugu. DJ



Luar Na Lubre talde galziarra 1986an sortu zen, Coruña.

ARTXIBOA

...EGIN ITZAZU



PROBA EZAZU



HAR EZAZU



EROS EZAZU



EGIOZU



LAGUN BATI. JOAN ZAITEZ



EDO JAN EZAZU



JOAN ZAITEZ



DISFRUTA EZAZU



ZURE SEME-ALABEKIN

JOLAS ZAITEZ



EDO EDAN EZAZU



GASTEIZKO BOULEVARD DENDAGUNEA.
JAIA BIZ IZATEKO MILA ERA ETA BAT GEHIAGO.
SAN MIGEL EGUN ON-ONA IZAN DEZAZULA!



KONTZERTUA

eta go-go profesionalen eskutik dantza erritmo ezberdinak ikusi ahal izango dira. Hori guztiori, argi eta soinu ikuskizun bikainarekin.

Urriaren leian, Montes Blancos orkestrarekin dantzaldia egongo da. Urriaren 2an, jaiak amaitzeko erromeria egongo da Joselu Anaiak taldearekin.

MUSIKA KALEAN

Bestalde, jaiak kalean izaten direla aprobetxatuz, musika ere kalera aterako da. Alde batetik, urtero moduan, Oñatiko Musika Bandak kalejira egingo du. San Migel egunean, eguerdiko hamabietan egingo dute. Ondoren, kontzertua eskainiko dute udaletzeko arkupeetan. Urriaren leian ere kalejira eta kontzertua eskainiko dituzte.

Udal Txistulari Bandak ere txistu-doinuak kalera aterako ditu. Herri egunean, Errosarixo domekan eta Errosarixo Bixamonean *Goizeresia* eta *Iriarena* joko dituzte.

Incansables txarangak ere ez du hutsik egingo aurtengo Errosarixo Bixamona egunean.



Des-kontrolak joko du txosnetan.

ARTXIBOA



Erromeriak, plazan.

ARTXIBOA

Rock musika nagusi txosnetan

Bost txosna jarriko dituzte aurtengo jaietan: Oñatiko musika taldeek, Askatasunak, Gazte Asanbladak eta Sahararen Aldeko Taldeak. Bosgarrena erdibana jarriko dute Jornadas Libertarias taldekoek eta CDa grabatzeko dirua bildu nahi duten taldeek. Urriaren leian, gauean rock doinuak izango dira nagusi txosna-gunean. Repugnancia Social eta Oñatiko bi talderen kontzertua izango da egun horretan. Emanaldia gaueko 10etan hasiko da.

Errosarixo Bixamona egunean, azkeneko urteotako ohiturari jarraituz, Oñatiko hainbat musika taldetako kideek abesti ezagunen bertsoiak eskainiko dituzte.

Zaragozako Montes Blancos orkestra 15 lagunek osatzen dute: 10 mutilek eta 5 neskak

Luar Na Lubre talde galziarraren eskutik musika zeltaz gozatzeko aukera egongo da irailaren 29an



ARREGI

Nekazalturismoa



2 egongela eta jangela



6 logela, denak bainuarekin

Paraje ederrean kokatua, leku egoki eta lasaia, atsedenerako behar duzun guztiarekin



Garagaltza auzoa 21 • Tel. 943 78 36 57 / 943 78 08 24

Ondo pasatu San Migelak!

SUZKO ERRUBERAK

Piroteknia, unibertitate hiri batetik beste batera

Suzko erruberak Salamancatik Oñatira ekarriko dituzte

LEIRE KORTABARRIA

Lekuz aldatu dira urtetan suzko erruberak, baina enpresa berberak egiten dituzte urterik urtera: Caballer piroteknia, hain justu. Hala, aurten ere etorriko da.

Saso baten, saihesbidetik botatzen zituzten suzko erruberak; gerora, batez ere Bidebarrieta auzunea eta hango etxeak eraiki zituztenetik, lekuz aldatu behar izan zituzten eta kanposantu ingurutik jaurtitzeko dituzte orduz geroztik.

Leku batetik edo bestetik izan, urte asko dira beti enpresa berberak botatzen dituela suzko erruberak: A. Caballer piroteknia enpresak. Badira 16 urte, gutxienez,

urtero etortzen direla enpresa horretako piroteknikariak, eta aurten ere hala egingo dute.

HITZORDU BEREZIA

Suzko erruberak gusturaz hartzen dituzte herritarrek,

16 urtean bota dituzte suzko erruberak Oñatin Caballer etxeak

Salamancan ikuskizuna egin ondoren, San Migeletara etorriko dira

urterek, baina zer diote horiek egiten dituztenek?

Caballer enpresako ordezkaria da Pablo Gartzia Azkarate arrigorriagarrak. Harendako urte berezia da hau; izan ere, azkeneko aldiz etorriko da Oñatira, lan kontuengatik. Haiendako Oñatiko hitzordua berezia dela diosku: "Beti erraztasunak izan ditugu Oñatin. Sarritan euria egiten du, baina guk berdinduz botatzen ditugu suzko erruberak. Azkenean, horrenbeste urtean, lagunak egin ditugu Oñatin". Lehenengo aldiz, kasualitatez iritsi ziren, ordezkari horrek Oñatin zuen lagun batek gomendatuta.

ILUSIOA, BETI BERBERA

Izatez, Caballer piroteknia enpresa Valentziakoa da. 1876an sortutako enpresa da, eta Estatuan lan gehien



Suzko erruberak kanposantutik botata, ederki ikusten dira herri osoan.

CABALLER

egiten dutenak direla diosku Gartzia; baita nazioartean ere, eta herri zein hiri handietan erakusten dituzte euren lanak. Oñatira bi langile etortzen dira horretarako. Gartzia iritziak, suzko erruberak botatzeko lekua ere oso egokia da:

"Kanposantu ondo aukerako lekua da suzko erruberak botatzeko; izan ere, Oñati, Bilbo bezala, *botxo* baten dago, eta horrela ondo ikusten dira".

Aurten, Caballer Salamancan izango da Oñatira etorri baino lehenago;

unibertitate hiri ospetsu batetik beste batera etorriko dira, alegia. Pablo Gartzia dioskunez, euredako ez dago alderik: "Hiri baten edo herriko jaietan izan, guk geuk beti ilusio eta interes berberekin egiten dugu lan".



Tel.: 943 78 08 90

e-posta: informatika@lizker.com

- Salmentak
- Instalazioa eta mantenua
- Konponketak
- Aholkularitza informatikoa enpresa eta partikularretan



Tel.: 943 71 80 52

- Aholkularitza fiskala
- Lan aholkularitza
- Kontabilitatea
- Zerga aitortpena

Ondo pasatu San Migeletan!

Errementari plaza 2-3 behea • Oñati

TAILERRAK

Munduko perkusioak eta dantzak Portu kalean

Portu kalean

**Domekan
17:00**

Perkusioa, malabareak eta dantza afrikarren erakustaldia

Kulturen arteko elkartruke eta mestizaia erakusketa eta tailerra egingo dute hainbat taldeko kideek domekan

JON BEREZIBAR

Perkusioari helduta, munduko erritmoetatik bidaia da aurtengo proposamen bat. Horrekin batera, dantza erakustaldia eta malabareak ere egongo dira Portu kaleko plazan.

Zapore, doinu eta erritmo nahasketa ausartarekin datoz aurtun San Migelak. Izan ere, urriaren lehen, perkusio, dantza afrikar eta malabare tailerrak izango dira.

Dantza afrikarra eta perkusioa erakusten eta irakasten Ttakunpa taldeko bi kide izango dira. Jatorriz euskalduna da taldea, baina euren musikak bezala, muga eta hesiez dakite Ttakunpakoek. Zortzi lagunek osatzen dute taldea eta perkusioan, dantzan eta fusioan oinarritzen da euren eskaintza. Nahasketa eta erritmoak dituzte ikur eta ikuskizunak beneran entzun eta ikustea



Perkusio eta dantza tailerra emango dute Ttakunpako bi kidek.

GOIENKARIA

Afrika, Kuba eta Gineako erritmoak txalapartarekin nahastuko dituzte tailerretan

Ttakunpako kideekin batera, malabare erakustaldia egingo du horretan aditu batek

merezi du. Euren lanak musika eta dantza afrikar tradizionalen eragina dute, eta emaitza txukuna irteten zaie Afrika beltzeko erritmo eta mugimendu bortitzak txalapartaren *ttakun-ttakunaz* irabiatuta.

Eurekin batera, malabare erakustaldia eta ikastaroa ematen jardungo du horretan aditu batek.

SUSTRAIEN BILA

Konposizio originalak dituzte Ttakunpakoek, baina euren leloa beti sustrietara jotzea da. Hala, txalaparta lema hartuta, munduko makina bat lurraldetako doinuak eurenaganatzen dituzte. Batez ere Malikoak, Senegalgoak eta Afrikako beste herri batzuetakoak, besteak beste.

Nahasketa aberats horren erakusgarri eszenaritzen dituzten instrumentu pilo dira, ohiko txalapartatik edo panderotik hasita, tramankulu exotikoagoetaraino: dunduna, sanbagha, kenkenia, djembeak...

A R G I T A S U N A

efaña

- Instalazio elektrikoak orokorrean
- Lampara moderno eta errustikoen erakusketa zabala

*Ondo pasau
San Migel
jaixetan*

Zubibarri 2
Tel./Faxa: 943 71 64 28
OÑATI



Mendiko kale 10 OÑATI Tel.: 943 78 35 09

HERRI EGUNA

Herri Eguna ospatuko da Bixamonaren ordeaz

San Migel ondorengo egunean ez dute San Migel Bixamona egunik ospatuko; bai, ordea, Herri Eguna

MIREIA BIKUÑA

Unibertsitate aurreko aldea da Herri Egunaren gunerik garrantzitsuena. Bertan jarriko dituzte askotariko lehiaketa eta erakusketak.

Herri Egunak izango du aurten lehen-tasuna San Migel Bixamonaren egunaren aurretik. Oñatiarrek oso gustuko dute Herri Eguna, eta horretaz gozatzeko aukera izango dute aurten ere.

10:30ean hasiko dira lehiaketak. Zazpi baserritako ardi, bildots eta aharriak ikusiko ditugu unibertsitate pareko zelaietan; 40 behi eta 20 behor, Oñatikoak guztiak. Gazta lehiaketan, berriz, zenbat artzainek parte hartuko duten zehaztu barik dute antolatuzaileek, herri egunean bertan ere parte hartzeko ize-na eman daiteke-eta.

Frutari eta barazkiari dagokienez, berriz, Oñatiko hiru baserritarrek ekarriko dituzte produktuak. Lore eta landare erakusketan, Bellotza eta Kimu loradendek parte hartuko dute.

Azkenik, Bidanitik etorritako euskal arrazako txerriak eta Oñatiko oiloak eta txitak ikusteko aukera izango dugu.



Unibertsitate inguruan ipiniko dituzte postu guztiak.

OÑATIKO UDALA

HERRI BAZKARIA

Unibertsitate aurreko aldeko azoka ikusi ondoren, plazako sagardoa dastatzeko aukera egongo da. 22 sagardotegitako sagardoa egongo da edateko. Sagar-

Goizean, taloa, txorizoa eta sagardoa; ondoren, herri bazkaria; eta arratsaldean, herri kirolak. Horixe, herri egunerako menua

do dastatzea 12etan hasiko da. Ondoren, herri bazkaria egingo dute kiroldegiko kantxan. Menua, ezin hobea: marmitakoa, erredondoa saltsan, hostopil tarta ananarekin (piña),

Unibertsitatean

Zapatuan, irailaren 30ean

Hainbat lehiaketa eta erakusketa egingo dituzte unibertsitate aurrean

kafea eta kopa. Bazkaloste girotuko dute Oñatiko txistulari taldeak, gaitajotzaileek eta trikitilariak.

Izarraitz, Umerez, Olakua, Arrano, Guria eta Antton tabernetan daude herri bazkarirako txartelak salgai, 15 euroren truke. 1.000 txartel jarri dituzte salgai.

ARTISAU ERAKUSKETA

Unibertsitateko klaustroan, urtero legez, artisau erakusketa egongo da ikusgai. Zeramikak, pilotak, belarritakoak, koadroak, esmalteak, patchwork-a, kuttunak, eskuoihalak, egur taila, larrua, portzelanazko panpinak eta polikromia gaiak egongo dira ikusgai eta erosgai.

HERRI KIROLAK

Goiz parteko giroarekin jarraitzeko, arratsalderako herri kirol jaialdia iragarri dute herriko plazan.

Punta-puntako kirolariak izango dira protagonistak. Alde batetik, Miren Urkiola harri-jasotzailearen lana ikusteko aukera izango dugu. Bestetik, aikolarien saioak izango dira: Donato Larretxea eta Fausto Mugertza semeekin etorriko dira Oñatira. Iparraldeko jokoek eta herriko gazteendako herri kirolek ere tokia izango dute Herriko plazako kirol jaialdian.



ATERKIAK ETA GABARDINAK

Garibai 10 • OÑATI • Telf.: 943 78 12 27 www.ezpeleta.com



Ehume

Apainketa

Giro Barrizak

Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE

ZELAIAIA

OÑATI

1970ean sortua



Sukalde eta bainuak

Santa Marina 3 • 943 71 62 81



Altzariak

Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99



Atariak, leihoak eta zoruak

Patrua kalea 5 • 943 78 04 04



Etxetresnak

Patrua kalea 10 • 943 78 04 04



Berezao industrialdea • 943 78 20 08

Erreforma integralak
gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko
www.zelaiia.net

kanpotarrak bergaran

Amy Chauvin > Ingeniaria
Kaliforniako da

"Abuztuan Kaliforniara joan arren, itzultzeko irrika nuen"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Europan barrena bidaia bat egiten ari zen Amy Chauvin eta Donostia bisitatzeko aholkatu zioten. Han ezagutu zuen bere mutil-laguna, bergararra, eta otsaila ezkerre gure artean da Kaliforniako neska.

San Frantziskotik gertu bizi zen, Kalifornian, eta hemengo bizimodua erabat ezberdina dela esan digu: "Hau askoz lasaiagoa da eta hemengo bizimodua gehiago gustatzen zait. Abuztuan izan naiz Kalifornian eta hona itzultzeko izugarritzko gogoia sartu zait. Han edozein lekutara autoz joan behar da, jende asko dago..."

HEMENGU JENDEA ITXIAGOA
Hemengo jendea itxiagoa dela uste du Chauvinek: "Zailagoa da jendearengana gerturatzea, baina behin ezagututakoan ongi moldatzeko aukera dago. Jendeak begiratu egiten dit badakielako kanpotarra naizela, eta nik, bizitaz bada ere, jende asko ezagutzen

"San Frantziskotik gertu bizi naiz, eta hemengo bizimodua hangoaren aldean lasaiagoa denez, gehiago gustatzen zait"



Amy Chauvin.

dut. Zaila da kalera irten eta eza-guneren batekin topo ez egitea. Gainera, herrian elkarri laguntzeko dagoen joera oso gustuko dut".

Oporrak hartu aurretik Helduen Eskolan jardun du ikasten eta orain lan bila ari da. Elektronika ingeniaria da, baina oraingoz horretan jarduteko aukerarik ez duenez, bien bitartean ingeles eskolak emateko gertu dago. Gaztelaniaz ongi moldatzen da, baina "hobetu egin nahi nuke. Lucia Etxebarriaren liburu bat irakurtzen saiatzen ari naiz eta maila hobetzeko jendearekin hitz egiten dut. Euskara ere ikasi nahiko nuke, baina pixkanaka", esan digu.

Bergara eta inguruak ere gogoko ditu Chauvinek: "Mendia eta hondartza gogoko ditut, eta, hemen bizi naizenez, aukeratu egin dezaket nora joan".

Chauvinek hemen geratu nahiko luke bizi izaten eta ingeniari moduan lana aurkituz gero bere etorkizuna Euskal Herrian aurreikusten du.

bere ustez



Unai Lopez

Alatriste kapitainaren gaurkotasuna

Oihartzun mediatiakoak eraginda-edo ezin izan diot *Alatriste* filma ikusteari uko egin. Zinema munduan oso aditua ez izanik, filma ona iruditu zitzaidan, ondo egindakoa, zertzelada txikiena gustu handiz zaintzeraino.

Espainiar inperialismoaren inguruan filmak egindako kritika gordina apartekoa iruditu zitzaidan. *Si vis pacem, para bellum* kulturaren murgilduta aurkezten zaio ikusleari XVII. mendeko inperio hura. Begirunerik gabe lur

"Zuzentasunen eta askatasunen izenean zapalkuntzarako eskubideak berean dirau"

eta ondasunak bereganatzeko zapalkuntza koldarraren xehetasunak gaurkotuz: bururik gabeko errege despotak, politikari ustelak, inkisizioaren boterea, urreak eragindako itsukeria...

Lau mende tartean, hamai-ka aurkikuntza, eskubide eta aurrerapen, baina munduak burua lehengo lepotik. Urrea petrolio bihurturik, inperioak sasi-demokrazietan ezkutatuturik, zuzentasun eta askatasunen izenean zapalkuntzarako eskubideak berean dirau, gehiengoaren oniritziarekin gainera. Giza generoaren gaitzik larriena ote?


Historiari errebaso eginenez, *Alatriste* filma lekuko, badirudi gureak ez duela erre-medioren, osagai ezberdinekin beti errezeta bera, duenak ez duena ezin bakean utzi.

argazki zaharra

Herriko neska gazteak danborradan

San Martinetan danborrada egiteko ohitura aspaldikoa den arren, gauzak aldatuz doaz. Garai batean, banderadun eta kantineraz gain, erregina (erdian) eta elkarte bakoitzeko ohorezko damak izaten ziren. Ezkerretik hasita hona hemen argazki-koak: Lupe Olabarria, Mila Acedo, Elena Rodriguez, Kristina Gomez, Glori, Tere Elgoro, Maria Jose Garitano, Arantxa Umerez, Luis Laskurain (alkatea), Ana Maria Gonzalez, Irene Arrieta, Mertxe Laskurain, Maria Isabel Arkauz eta Ana Jesus Guridi.

Argazkia: Ana Jesus Guridi.
Testua: Irati Agirreazaldegi
Urtea: 1965.



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

BERGARA

Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es



Orain daukazu aukera zure Lanbide Heziketako ikasketak hasteko edota bukatzeko, zure beharretara moldatzen den ondoko doaineko eskaintzarekin... BERGARAN !!!

ESKAINITZA PARTZIALA- ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

GOI MAILAKO ZIKLOAK	LANBIDE MODULOAK
<ul style="list-style-type: none"> Mekanizazio bidezko produkzioa 	<ul style="list-style-type: none"> Mekanizazio, Konformazio eta Muntaia prozesuen definizioa (245 ordu) Mekanizazio, Konformazio eta Muntaia prozesuen exekuzioa (273 ordu)
ERDI MAILAKO ZIKLOAK	LANBIDE MODULOAK
<ul style="list-style-type: none"> Mekanizazioa Ekipo eta instalazio elektroteknikoak 	<ul style="list-style-type: none"> Urradura, konformazio eta prozedura berezien bidezko fabrikazioa (168 ordu) Fabrikazio mekanikoko sistema osagarriak (132 ordu) Administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea enpresa txikian (96 ordu) Lan taldeko harremanak (60 ordu) Loturako instalazio elektrikoa eta transformazio zentrua (130 ordu) Instalazio automatizatuak etxebizitzetan eta eraikinetan (145 ordu) Segurtasuna instalazio elektrikoetan (85 ordu)
<p>ZUZENDUA: Pertsona helduei zuzendua, Berriazko Lanbide Heziketa era malguan ikasteko aukera eskainiz, ikaskuntza beraien beharretara egokituz.</p> <p>BALDINTZAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> Beharrezkoa den titulua izatea(DBH, LH1) E.M zikloentzat eta (batxilergoa, FP2) G.Mkoentzat. 21 urtetik gorako pertsonentzat edota gutxienez bi urteko lan esperientzia egiaztatuta dutenentzat. 	

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO IKASTAROAK

ATAL AMANKOMUNA: Hizkuntza (90 ordu) • Matematika (90 ordu) • Ingelesa (90 ordu)

ZUZENDUA: Heziketa zikloak egiteko sarrera baldintzarik ez, eta lanbide heziketa erdi maila ikasi dutenentzat

IZENA EMATEA: Irailaren 26ra arte. **ORDUTEGIA:** : Arratsaldez, ikasleekin adosturik.

Ibargarai 1 • 20.570 BERGARA • Tel.: 943 76 24 91/ 943 76 38 40 • Faxe: 943 76 38 41 • E-posta: imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com

BEDELKARREN UDAKO ZOZKETA

200 eurotako **5** sari



10.595 zenbakia
Felisa Elkoro
Mujika jostundegiak emana



35.223 zenbakia
Lexeia Larrañaga
Elkar fotokopiadendak emana



29.610 zenbakia
Mari Kruz Alberdi
Argazki argazkidendak emana



4.463 zenbakia
Milagros Gonzalez
Rezola harategiak emana



64.225 zenbakia
Ez da irabazlerik agertu
Lazkano oinetakoak emana



Zorionak!

Zuzendaritza tekniko lanak egingo ditu Goiena Sport enpresak

Kirol modalitateak bateratu, suspertu eta indartu gura ditu UDAk

Gehienez 7.500 euro emango dizkio Udalak, eta urtebeterako da

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAK

Hitzarmena sinatu dute Aretxabaleta Kirol Elkarteak (UDA) eta Udalak. Uztailean egindako batzar orokorrean adierazi zuen UDAk enpresa bat hartzeko asmoa, eta dagoeneko kontratatu du, Udalarekin sinatutako lan-kidetza hitzarmenaren bidez.

HELBURUAK

Herritarrek kirola modurik egokienean egin dezaten baliabideak jartzea duela helburu Udalak dio hitzarmenean, eta herriko kirol taldeen jarduerak lagunduko dituela.

Bestalde, UDaren helburuak dira Aretxabaletako kirol modalitateak bateratzea, suspertzea eta indartzea; eta adin guztietako neska-mutilen artean kirol kultura garatzea eta irakaskuntza lana egitea. Ahalik eta lanik onena eskaintzeko giza baliabide kualifikatuen beharra duela adierazi zion Udalari, eta elkar-teen barne egitura sendotzea ezinbestekoa dela. Hori horrela, kirol zerbitzu enpresa bat kontratatzea proposatu zion Udalari zuzendaritza tekniko lanak egiteko, eta dagoeneko izendatu dute enpresa: hain zuzen, Goiena Sport izango da.

Udalak zuzendaritza teknikoaren gastuaren %50 finantzatu du, baina gehienez ere 7.500 euro emango dizkio urtean. Lan-kidetza hitzarmena urtebeterako sinatu dute, eta epea bukatutakoan beste urtebete luzatu ahal izango dute, hala iritiz gero alde biek.

KIROLA > ZUZENDARITZA TEKNIKO LANAK EGINGO DITU

UDAK eta Udalak hitzartu dute enpresa bat kontratatzea



FUTBOLA Batez ere futbol taldeen ardura izango du Goiena Sport enpresak, eta entrenatzaileei zein jokalariei egingo die jarraipena.

M.A.

ZAILTASUNAK ETA ONDORIOAK

UDAK hausnarketa sakona egin zuen enpresa hartzea komeni zela erabaki aurretik. Beste kontu batzuekin batera zera egiaztatu zuen: parte-hartzea helburu duen futbolaz gain lehiaketan jarduteko gai dela; Gipuzkoan talde gehien dituen elkarte dela,

alebinekin hasi eta preferente mailaraino; gainera, kategoria guztietan gorengo mailan dauden taldeak dituela.

Hausnarketa horretan elkar-teen dituen zailtasunak ere azaldu ziren: gaur egun UDAk dituen instalakuntzetan astean lau orduko entrenamendu saioak egin

ditzakete taldeek, futbol zelai erdia erabiltza; eta baldintza horietan gaitza da errendimenduzko taldeak izatea. Beste arazoetako bat talde guztientzat entrenatzaileak aurkitzea da, eta gero eta zailagoa da, gainera. Baina beste aldetik, gero eta prestakuntza hobea duten lagunak dau-

de; soin hezkuntzako ikasketak egindakoak, esaterako.

Horren guztiaurrean aurrean zera ondorioztatu zuen UDAk: entrenamenduetako errendimendua hobetu beharra dagoela; futbol eskolatik hasi eta senior mailako taldeetara arteko prestakuntza plana egitea beharrezkoa dela; eta kirolari bakoitzari jarraipena egin behar zaiola errendimendua hobetzeko.

Hain zuzen, horren guztiaurrean ardura izango du Goiena Sport taldeak. UDAko presidentek Jokin Antxiaren esanetan, batez ere futbolari eta pilotari egingo die jarraipena Goiena Sportek. Saiatu dira beste herri batzuetako esperientziak ezagutzen: "Baina oso zaila da informazioa ateratzea. Hala ere, antzeko zerbait egiten dutela jakin dugu; Legazpiko Ilintxak, esaterako, lagun bat hartu du guri enpresak egingo digunaren antzekoa egiteko", dio Antxiak.

Denboraldia hasierarekin batera lehenengo pausoak ematen hasi dira UDA eta Goiena Sport: "Ez da izango erraza eta poliki-poliki joan gura dugu, ematen den pausoa finkoa izan dadin", esan digu Antxiak.

UDAKo zuzendaritza tekniko lanak egingo ditu Goiena Sport enpresak

Bixen Calzon aretxabaletarra zuzendari duen Goiena Sport enpresak egingo ditu zuzendaritza tekniko lanak. Ondo zehaztuta ditu zereginak, eta Udalarekin egindako hitzarmenean geratu dira jasota. Lau esparrutan bana daitezke:

Elkartearen zuzendaritza taldearekiko zereginak: elkartearen lan teknikoaren planifikazioa; antolaketa tekniko eta funtzioak zehaztea zuzendaritzarekin; egindako lanaren deskargua; eta dirulaguntzen kudeaketa.

Entrenatzaile taldearekiko zereginak: entrenatzaileak hautatzen lagundu; entrenatzaileak aholkatu, prestatu, jarraipena egin eta laguntza eman; eta entrenamendu lanen antolakuntza.

Kirolarekiko zereginak: kirol eta kategoria bakoitzaren lan kargen antolakuntza eta jarraipena.

Gestio-administrazio arloarekiko zereginak: ordezkaritza lanak gai teknikoetarako gainontzeko erakundeekin: federazioak, Udala, Aldundia...; kirol jardueren antolaketa lanak; web orriaren mantentze-lanak, eta instalakuntzen oinarriko mantentze-lanen koordinazioa.



Bixen Calzon da Goiena Sport kirol zerbitzuetako zuzendaria.

M.A.

NEKAZARITZA > ZOMORROAK ORTUETAN

Triskantzak egiten dabil luhartzan ortuetan

Tamaina handia dauka, gorputza gogorra, adarrak eta hagintxoak dituzten hanka txikiak

Oraindik ez dute aurkitu pozoirik eta banan-banan hartu eta oiloa botatzen diete akabatzeko

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Orain dela hiru urte inguru ikusi zituzten lehenengo aldiz kanposantu inguruan ortuak dituzten jabe batzuek zomorroak. Orduetik hona gero eta gehiago agertu dira eta aurreko izurriteari egin behar izan diote aurre.

IZUGARRIZKO TRISKANTZAK

Handiak dira, gorputza gogorra daukate eta hagintxoak dituzten hanka txikiak alboetan. Luhartz izenarekin dira ezagunak eta tipulak jaten dituen kilkerria eta

kilker-satorra ere esaten diete. Udaberrian izaten dituzte kumeak, 50 edo 60 inguru bakoitzak, eta izurritea sor dezakete. Antonio Davila aretxabaletarrak ortua dauka Porrurutxarako basoa eta kanposantua bitartean, eta aurreko izugarritzako triskantzak egin dizkiote: "Tipulak, porruak... Denetik jaten dute. Patatei, esaterako, zatia kentzen diete eta gero utzi; patata guztiak nituen janda". Tipula haziak landatu zituen eta lau besterik ez diote utzi. "Lur azpian ibiltzen dira,



LUHARTZA Azken astean hartutako luhartza erakutsi zigun Antonio Davilak; eta ez zen handienetakoa.

M.A.

metro erdi inguru sartuta, eta hanketan dituzten hagintxoekin moztzen dituzte barazkiak", dio Antoniok. Hala, euria egiten duenean bakarrik azaltzen dira lur gainean, eta udazken ingururako ere ezkutatu egiten dira.

BANAN-BANAN HARTU

Pozioia erosi zuen Davilak luhartzak akabatzeko, baina zomorrok ez zuten ezer nabaritu. Hala ere, pozoirik bota barik akabatzeko modua aurkitu du: "Zerbait ereitera noanean kontu handia-

rekin aitzurtzen dut lurra, eta luhartzak agertzen direnean potobaten sartzen ditut. Erabilitako oiloa botatzen diet gainetik, eta horrek akabatzen ditu". Ez da modu txarra, baina banan-banan hartu behar dira lehenengo.

OSASUNA > EMAGINIK EZ

Emaginik ez egoteak sortu duen arazoa hilabete bukaerarako konpondu gura dute

Orain bi hilabete inguru egin zuen alde lehen zegoenak, eta, osasun etxeko arduradunen esanetan, konponbidearen zain daude

M.A. > ARETXABALETA

Ez dago emaginik Aretxabaletako osasun etxean orain dela bi hilabete ingurutik, eta herriko emakumeak haserre dabilta. Izan ere, ez daukate inor behar beza-

lako jarraipenik egiteko ez haurdun daudenei, ezta umea izan berri dutenei. Umea izan behar dutenei esan zieten oraingo astean bertan gimnasia izango zutela astelehen eta martitzenean, eta

hainbat emakume elkartu ziren Eskoriatzako kiroldegian. Ez zitzaizkien inor agertu, eta martitzeneko hitzordua ere bertan behar utzi zutela jakinarazi zieten. Gaur, egubakoitza, beste hitzordu bat daukate, baina ikusi egin beharko da inor agertuko zaien.

Bestalde, norbait haurdun geratuz gero etxeko medikuarengana joan behar da, eta hark bideratuko du.

LANEAN DABILTA

Gabriel Elorriaga medikua da Aretxabaletako osasun etxeko arduraduna, eta, haren esanetan, arazoaren berri emanda dago Osakidetzan. Hala, lanean dabilta konponbidea aurkitzeko eta erantzunen baten zain daude. Hil bukaerarako arazoa konponduko delakoan dago Elorriaga, eta hala jakinaraziko dutela esan zigun.

> IRTEERA

Nafarroara bidaiara antolatu du Basotxo erretiratuen elkarteak

Nafarroara bidaiara antolatu du urriaren 5erako Basotxo erretiratuen elkarteak. Kontserbak egiten dituen eta olioba-olioa egiten duen lantegiak ikusiko dituzte Arroitzen, eta ondoren Los Arcosen ardoa dastatuko dute. Bukatzeko, Lizarrako merkaturaino hurreratuko dira. Txartelak urriaren 2an eta 3an salduko dituzte Basotxon bertan, 10:30etik 12:30era bitartean, eta jasotzeko bazkide agiria-ekin joan behar da.

> IKASTAROA

Hasiberrientzat taila ikastaroa antolatu du Okila taldeak

Aretxabaletako Okila taldeak oinarrizko mailako taila ikastaroa antolatu du. Urriaren 2an, astelehena, hasi eta 60 orduko ikastaroa izango da. 18:00etatik 20:00etara bitartean emango dituzte eskolak Okilak Murubideko 5. atartearen duen tailerrean. Izena emateko udaletxera edo kultur etxera deitu edo Okilaren tailerretik pasatu behar da.

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

SANER

ITURGINTZA

Selaikua baserria
Apotzaga auzoa
ESKORIATZA

605 71 66 92 / 943 71 52 51

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

JAIALDIA > LIVERPOOL TALDEA XABI ALONSO LAGUNARTEAK ANTOLATUTA

Liverpool lagun taldea aurkeztuko dute bihar

Hirunako futbol txapelketak, Debagoieneko taldeen kontzertuak, capoeira erakustaldia eta garagardo zein pintxo dastatzea Herriko Plazan

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Jaialdi dotorea antolatu dute Liverpool taldeko kideek. Lagun taldearen berri eman eta bazkideak egitea izango du helburu jaialdiak.

PARTIDUAK ETA KONZERTUAK

Goizeko hamaiketan hasi eta jai giroa izango da egun guztian Herriko Plaza inguruan. Hirunako futbol txapelketak emango dio hasiera jaialdiari. Alebinak, infantilak eta kadeteak izango dira lehenengo jokatu dutenak, eta bazkalostean, gazteen eta senio-

rren ordua izango da. 17:00ak inguruan, Scam talde aretxabale-tarrak kontzertua eskainiko du. Maketa atera berri du taldeak eta gogotsu etorriko dira herrikideen aurrean kontzertua ematera.

Capoeira erakustaldia izango da 18:45ean, Senzala taldearen eskutik, eta iluntzea girotzeko, 20:00etan, Oñatiko Krimen taldea hurreratuko da. Umore onarekin jarraitzeko asmoarekin 21:00etan hainbat txapelketa jokatu ditzute: oliba jaurtiketa, erratz jaurtiketa eta bolo txapelketa. Eguna bukatzeko beste bi talde-

ren kontzertuak izango dira: Arrasateko 5 Twister eta Bergarako Belce Blues.

TXOSNA-GUNEA

Jaialdian, baina, jatekorik eta edatekorik ezin da falta, eta txosnagunea jarriko dute plazan, garagardoa eta pintxo eta ogitartekoak saltzeko. Hiru garagardo marka ezagunek prezio onean eskainiko ditzute edatekoak, eta saltxitxak, solomoa gaztarekin eta antzeko jatekoak gertatuko ditzute.

Jaialdia aprobetxatu gura duenak lagun taldeko kide izateko Orly tabernara hurreratu besterik ez du. Bestalde, urriaren 18an Bordelen jokatu duten Giron-dins-Liverpool partidura joan gura dutenek ere Orly tabernan eman dezatela izena.

KIROL ETXEA > IDEIAK IKUSGAI

Kirol etxe berria egiteko ideiak ikusgai udaletxean

Hautatutako ideiak trinketa egitea eta igerilekua 3. solairuan proposatzen ditu

M.A. > ARETXABAETA

Ikusgai jarri dituzte kirol etxe berria egiteko lehiaketara aurkeztu ziren ideia onenak. Gaur hasi eta urriaren 7ra bitartean aurkituko dituzte herritarrek udaletxeko ganbaran.

ONENAK IKUSGAI

Udaberriaren deitu zuen Udalak ideien lehiaketa eta 19 lan aurkeztu zituzten. Irabazlea Asier Acuriola eta Fernando Bajo arkitektoen lana izan zen, eta eurek egingo dute kirol etxe berriaren proiektua. Bigarren saria, 3 mila euro, Jose Gurrutxaga tolosarrari eman zioten,

eta hirugarrena, 1.800 euro, Xabier Claramunt katalanari.

Lehenengo gelditutako hiru ideia horiek eta beste hiru daude ikusgai udaletxeko ganbaran. Urriaren 7a bitartean joan daiteke ikustera, astegunetan 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara; eta zapa-tuetan 10:30etik 12:30era.

TRINKETA ETA IGERILEKUA

Proiektua egiteko hautatu duten ideiak proposatzen du kirol etxea bota eta berria bertan egitea. Hiru solairu izango ditu gora eta bat beheara, eta aurrean dagoen zelaian bost kantxa egingo ditzute. Hainbat gimnasio eta kantzarekin batera trinketa jartzea proposatu dute Acuriolak eta Bajok, eta igerilekua hirugarren solairuan kokatu dute. Eguzkia hartzera kanpora ateratzeko aukera ere aurreikusi dute.



M.A.

Junior mailako txirrindulari lasterketa etzi

San Migel jaiak baino astebete lehenago egingo dute 25. San Migel txirrindulari lasterketa, domekan, irailaren 24an hain zuzen. Junior mailako txirrindulariak hurreratuko dira, eta 10:00etan hasiko dute lasterketa, Durana kalean. Eskoriatzara buelta bi egingo ditzute eta Gatzagakako mendatea igoko dute behin. Mendiko saria eskuratuko du mendatetik lehenengo pasatzen denak. Guztira 78 kilometro izango dira, eta 12:00ak ingururako aurreikusi dute bukaera antolatzaileek.

> UDALA

Errolda egongo da ikusgai udaletxean epaimahaikideak aukeratzeko

Herritarrez osatutako epaimahaiak osatzeko bi urtean behin zozketak egiten dituzte herri guztietan. Urriaren 15ean izango da zozketa hori, eta sei aretxabaletar aukeratu ditzute. Hori baino lehen, irailaren 25etik urriaren 1era bitartean errolda egongo da ikusgai udaletxeko atarian. 18 urtetik gorako herritar guztiak azalduko dira errolda horretan, eta daturen bat gaizki azalduz gero kexa jarri ahal izango dute.

Epaimahaikideak aukeratuak ohar-taulan jarriko dute zerrenda, eta ondoren bakoitzari jakinaraziko diote. Erretiratuek, ezintasunen bat dutenek eta ikasgairik ez dutenek ezezkoa eman dezakete aukeratuak izanez gero.

> UDALA

Euskara teknikari lanpostua betetzeko lehen azterketa urriaren 11n izango da, Gasteizen

Euskara teknikari lanpostua bete gura du Udalak, eta dagoeneko jarri dute horretarako azterketaren data: urriak 11. Azterketa, baina, Gasteizen egin beharko dute izena emandakoek, Seminarioan, hala ezarri duelako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE).

Lanpostura aurkeztutako artetik 51 lagunek zituzten agiriak behar bezala. Azterketara joateko, baina, lehenengo memoria bat aurkeztu behar dute guztiek. Aretxabaletan hizkuntza normalizaziorako oinarritzko urratsak izango da memoriaren gaia, eta gehienez 20 orri izango ditu. Urriaren 2rako aurkeztu beharko dute lana udaletxean.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea ARETXABAETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

SANTA MARINA > ETXEBIZITZAK EGITEKO ERAISPENEKIN HASI DIRA

Hondeatzeko makinak hasi dira Santa Marina urbanizatzeko lanak egiten

Fabrika eta etxeak bota eta urbanizazio eta saneamendua egiteko sei hilabete beharko dituzte

2007ko lehenengo hiruhilabetekoan hasiko dira aurreikusitako etxebizitza tasatuak egiten

Azaro bukaeran zabalduko dituzte etxe tasatuen izenematearen datak eta baldintzak

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Astean sartu dira hondeatzeko makinak Santa Marinako lurzorura eta lehenengo eraispentak egiten hasi dira. Lehenik eta behin, zuhaitzak eta ortuetako horma txikiak botako dituzte. Horren ostean, datorren astean, Olabbarri fabrika eta inguruko beste tailer batzuk botatzeko asmoa daukate.

Amenabar enpresa arduratuko da aurreikusitako eraispentak eta urbanizazioa egiteaz. Lanen zuzendaritza, berriz, LKSk hartu du; eta kudeaketa, Visesa-Orubidek.

ARBIÑOSTERA ARANA KALETIK

Udalak jakinarazi digunez, makina hondeatzaileak Arbiñostera (erreka bestaldera) Arana kalearen atzean dauden ortuetatik sartuko dira, eta ez Aranburuzabalakaletik.

Joan den astea ezker itxita dago Santa Anan egokitu zuten aparkalekua, eta hala jarraituko du hilabete batez gutxienez. Han langileendako etxolak jarriko dituzte. Dena dela, argitu digute etorkizunean han inguruan aparkalekuak jartzeko asmoa dutela.

Era berean, Udalak aurreratu digu datorren astean Santa Marinako etxeetako atarietan eraispenen gaineko azalpenak jarriko dituztela. Hala, jabeek eta han bizi direnek izango dute epeen eta bestelako xehetasunen berri zehatza.

2,5 MILIOI EUROKO AURREKONTUA

Urbanizazioaren lehen fasean eraispent guztiak, Arbiñosteko harri-lubeta, saneamendua eta beste lan batzuk egingo dituzte. Hori guztia egiteko sei bat hilabete beharko dituztela aurreikusten dute.

Horrez gain, aurrerantzean, etxebizitzak bukatu ostean, Amenabar enpresak beste bi hilabete hartuko ditu urbanizazio lanak guztiz bukatzeko. Urbanizazio lan guztiak, eraispentak barne, 2,5 milioi euroko aurrekontua izango du. Hasieran Udalak ordainduko du, baina aurrerantzean sustatzaile pribatuek ordainduko dute.

ETXE TASATUEN IZENEMATEA

Bestalde, Udalak jakinarazi du azaro bukaeran emango dutela aditzera etxebizitza tasatuen izen-



MAKINAK LANEAN Hondeatzeko makinak hasi dira Santa Marinan lantegiak eta ortuetako ormak botatzen.

IKER BARANDIARAN

nematearen gaineko epeak eta horretarako bete beharreko baldintzak. Horrekin batera, herritarrak ohartarazi dituzte promozio horretan esku hartzeko ezinbestekoa izango dela izena ematea. "Aurretik Etxebiden izena eman arren edo Udalak biderratu zuen inkesta bete arren, interesatuek berriro jo beharko dute izena ematera. Honako hau beste prozesu bat delako", azaldu zuten.

Asmoa da 30 bat etxebizitza tasatu egitea, eta 2007ko lehenengo hiruhilabetekoan horiek egiten hasia. Herritarrek izena emateko, Visesa-Orubidek bulego bat jarriko du herrian, eta interesatuek hilabete inguru izango dute izena emateko.

BESTELAKO ETXEAK

Bestalde, Udalak bultzatuko dituen etxebizitza tasatuz gain, sustatzaile pribatu batzuek bes-

te 110 etxebizitza egingo dituzte. Hori merkaturako salneurria izango dute.

INGURUNEAREKIN BAT

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila dabil eraispentaren gaineko jarraipena egiten, Udalak hala eskatuta. Eraispentak egin ostean, botatakoaren banaketa egin beharko dute eta hondakindegia bereiztuetara eramango dituzte hondakin guztiak.

AISIALDIA > TORTOLIS GAZTELEKUA ZABALIK

Ekintza ugarirekin hasi du ikasturte berria 3 eta 12 urte bitartekoendako ludotekak

Ikasturte honetan ludoteka erabiltzeko izenematea zabalik dago, eta urriaren 6an itxiko dute hori egiteko epea

I.B. > ESKORIATZA

Oporraldien ostean, ludoteka berriro lanean hasi da. Gogor hasi da, gainera. Hilaren 20an hasi ziren ekitaldiak antolatzen. Hain zuzen ere, asteen, elkar ezagutzeko jokoak eta lehiaketak

egin dituzte. Astelehenerako ludoteka irekia antolatu dute: 17:00etatik 18:00etara bitartean 3 eta 6 urte bitartekoendako; eta 18:00etatik 19:00etara bitartean 7 eta 12 urte artekoendako.

HAINBAT TAILER AUKERAN

Bestalde, datorren astean izango da aukera hainbat tailerretan esku hartzeko. Hain zuzen ere, martitzenean pandereta tailerra egingo dute; eta eguaztenean kareten gainekoa. Azken hori 3 eta 5 urte artekoek zuzenduta egongo da.

Hileko ekitaldiekin bukatzeko, eguenean, hilaren 28an, *Fami-*

lia giroan izenpean, gurasoekin jolas zirkuitua egingo dute: 17:00etatik 18:00etara 3 eta 6 urte artekoek; eta 18:00etatik 19:00etara 7 eta 12 urte bitartekoek.

Bestalde, ludotekan 10 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei egokitutako programa berezia ere badute.

IZENEMATEA, URRIAREN 6RA ARTE

Interesatuek urriaren 6ra arte dute izena emateko aukera. Horretarako, ludotekara bertara jo dezakete (Santa Ana 19) astelehenetik egubakoitzera bitartean. Egunero zabalik egoten da 16:30etik 19:30era.

ELKARTEAK > AMUSKA EMAKUMEEN ELKARTEA

Zuzendaritza batzordea aldatu du Amuska elkarteak

Batzordekideek gogoz hartu dute elkarte ekimentsu horren ardura

I.B. > ESKORIATZA

Oporren aurretik iragarri genizuen Amuska emakumeen elkarteak batzarreko karguak aldatu zituela. Hala jakinarazi ziguten, baina orduan ez zeukaten zehaztuta zein kargu hartuko zuen kide bakoitzak.

Baina ikasturte berriarekin batera, zuzendaritza batzor-

dea izendatu eta jendaurrean aurkeztu dute. Presidentea Elvi Markes izango da, idazkaria Clarisa Barco, idazkari-ordea Maria Vega Barco, diruzaina Eva Gutierrez diruzain-ordea Izaskun Otaño eta, azkenik, Maria Jesus Miguel eta Esther Barandalla, batzordekideak.

Amuska da herrian ekimen gehien egiten dituen elkarteetako bat, eta dagoeneko badabilta ikasturte honetarako berbaldi, ikastaro, ikuskizun eta bestelakoak antolatzen. Esan beharra dago egiten dituzten ekintzak emakumezkoendako eta gizonezkoendako direla.

> LANAK

Hainbat kale asfaltatuko dituzte datorren astean

Uda aurretik jakinarazi zuen Udalak herriko hainbat auzo eta ingurune asfaltatzeko asmoa zeukala. Baina asfaltoaren zain egon da orain arte. Bada, azkenean, asfaltoa ekarri eta data zehaztu ahal izan dute. Datorren astean ekingo dio zeregin horri Coprisa enpresak.

Hainbat ingurune asfaltatu beharko dituzte. Besteak beste, Dorletan erreka ondo bidean eta baita unibertsitateko aparkaleku berrian ere. Horrez gain, San Juan kaleko tramu bat ere asfaltatu beharko dute.

Unibertsitateko aparkalekuari dagokionez, 42 auto-errendako plazak izango ditugune berriak.

> LANAK

San Juan kalea itxita egongo da zapatuta bitartean

Aspaldian hankaz gora daude herriko hainbat kale, Udalak erdigunea berriro urbanizatzeko egiten dabilen lanen ondorioz.

Horien artean, San Juan kalea astelehena ezkerreko itxita dago autoendako. Salbuespen bakarra da kale horretan garajeak dituztenak; haiek badute hara sartzeko modua.

Arana kaletik Dorletako sarrerara bitartean dago itxita, eta Udalaren asmoa da gaur, egubakoitza, eta zapatuta bitartean berriro zabaltea kalea.

Lan horien ardura Frixi Eraikuntza enpresak dauka, eta datorren astean kalea asfaltatzeko, hoditeria, kuxatilak (arketak) eta beste aldatzen dabil.

> HEZKUNTZA

Haurreskolako matrikula epea zabalik dago berriro

Partzuergoak kudeatzen duen haurreskolako matrikula epea zabaldu du berriro. Interesatutako gurasoek bi aste epea izango dute horretarako. Haurreskolako eraikinerara jo beharko dute.

Haurreskola dagokion zerbitzua ematen dabil dagoeneko eta hamar ume dabilta erabiltzaile gisa. Hala ere, haurreskolan badago ume gehiagorendako lekua.

Zerbitzu berri horrekin lotuta, berau kudeatzen duen partzuergotik jakinarazi digute datorren astean bukatuko dituztela falta diren lanak. Hain zuzen ere, eskolaren kanpoko hesia, aterpeko panelak eta kanpoko urbanizazioaren asfaltatua.

GIZARTE ZERBITZUAK > AUZOLAN PROGRAMA

Langabezian edo premia dutenei laguntzeko, Auzolan

Eskoriatzako Udalak eskaera egin zion Jaurlaritzari Auzolan programa abiarazteko

Auzolanen bitartez, sei hilabeterako kontratua egin die Udalak bi laguni

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek, Jaurlaritzaren laguntzarekin, Auzolan izeneko programa abiarazi dute aurtan.

Aurretik Eskoriatzako Udalak *Sartu* programa abiarazi zuen, Jaurlaritzak diruz lagundutakoa. Horren bitartez, Gizarte teknikari batek denbora luzez langabezian dauden lagunei edota baliabide nahikorik ez duten emakumezko bananduei laguntza eskaintzen die. Hain zuzen ere, premia duten lagun horiek dirulaguntzak eskatzera jotzen dute udaletxera. Gizarte teknikariak, dirulaguntza horiek tramitateaz gain, lanpostuen berri ematen die eta curriculumak prestatzen erakusten die. Hala, modu horretan, laguntza eskaintzen diete.

Iaz, berriz, Gizarte teknikariak aztertu zuen lagun horiei laguntza hobea eskaintzea. Horretarako, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Bergarako udalekin harremanetan jarri zen. Helburua zen Jaurlaritzaren bitartez lagun horiei oinarritzko prestakuntza eman eta urte erdiko lan kontratua eskaintzea.

JAURLARITZARI ESKAERA

Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek baietza eman zioten proposamenari, eta Auzolan programan esku hartzeko eskaera egin zioten Jaurlaritzari.

Aurtan heldu da Jaurlaritzaren erantzuna, eta bi udalen eskaera ontzat hartu du. Hortaz, Gizarte teknikariak udaletxe horietara dirulaguntza bila doazenei Auzolan programaren berri ematen

ten dihardu. Hain zuzen ere, Eskoriatzan bi lagunek eman dute izena, eta dagoeneko lanean dabilta.

PILOTALEKUA MARGOTZEN

Eskoriatzan izena eman zutenek, beste herri batzuetakoekin batera, bi ikastaro egin behar izan zituzten Bergaran: bata, lan-kontratuen eta abarren gainekoa; eta bestea, industria garbiketaren gainekoa.

Horren ostean, ekainean, Eskoriatzako Udalak bi lagun horiek sei hilabeterako kontratatu zituen. Egunero sei orduko jarduna egin behar dute. Une honetan lagun horiek pilotalekua margotzen dabilta, eta datozen hilabeteetan herriko hainbat auzotako barandak margotu beharko dituzte.



DEIANE ARRIETA

Erretiratuak omentzeko, jaieguna egin zuten Mendiolan

Asteburuan egun handia izan zuten Mendiolan. Erretiratuak omenaldia egiteko, 40 bat auzotar elkartu ziren. Meza entzun zuten San Juan Bataiatzailearen elizan, Ola Mendi elkartearen ederto bazkaldu zuten, erretiratuak opariak jaso zituzten eta auzotar askok dantza egiteko baliatu zuten eguna. Izan ere, Laja eta Landakanda izan zituzten lagun. Auzotarrak deseatzten daude 2007ko bilkura egiteko. Izan ere, urtean birritan bakarrik elkartzen dira: erretiratuak omenaldi egunean eta San Juan egunean.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

DE LA TORRE
igeltserotza

*Erreformatzaren orokorrean
Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxueta 7 2-D
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27





BOST SOLAIRU 20 etxebizitza egongo dira bost solairuko eraikinean; eta azpian gimnasioa egongo dute.

GOIENKARIA

ETXEBIZITZAK > EGUZKI AUZOAN EGINGO DITUZTE TASATUAK

Etxebizitza tasatueta- zerrenda kalean da

Behin-behineko zerrendak kalean dira eta 15 eguneko epea izango dute eskatzaileek erreklamazioak aurkezteko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Martitzenean ipini zuten udal-
txean zerrenda ikusgai, Eguzki
auzoan eraikiko dituzten etxebi-
zitza tasatuak zeinenak izango
diren jakiteko. Hogei etxebizitza
egingo dituzte eta 57 lagunek eman
dute izena.

Orain kaleratu duten zerren-
da behin-behinekoa da, ordea.
Izan ere, eskaria aurkeztu zute-
nek erreklamazioak egiteko
hamabost eguneko epea izango
dute. Erreklamazioak aztertuta,
orduan kaleratuko dute jabeen
behin betiko zerrenda.

Hautagaiak baloratzeko
orduan hainbat baldintza hartu
dituzte kontuan. Besteak beste,
Antzuolakoak bertakoak izatea
edo aurrez etxebizitza baten jabe
ez izatea eskatzailea.

ZAPATUAN PUNTUAZIOEN BERRI

Euren izenak zerrendan agertzen
diren begiratu ostean, izena eman
duten guztiek aukera izango dute
puntuazioen nondik norakoak
galdetzeko. Izan ere, zerrendak
gertatzeaz arduratu den enpresa-
ko teknikariak Orlaranen izango
dira zapatu goizean 10:30etik
12:30era bitartean informazioa
emateko. Puntuen berri emateaz
gain, erreklamazioa aurkeztu
nahi dutenei nola egin behar
duten erakutsiko diete, bidea
errazteko.

Udaletik jakinarazi digutenez,
hilabetea amaitu aurretik hasi
nahi dituzte etxebizitza tasatuak
eraikitze lanak. Ondoren, urte
eta erdiko epea izango da obrak
amaitzeko.

Bost solairuko eraikinean,
guztira 20 etxebizitza egongo dituz-
te Maristen etxea zegoen lekuan.
54 metro koadro izango ditu txi-
kienak eta 88 metro koadro han-
dienak. Etxebizitzaren batez beste-
ko prezioa 180.000 euro da.

Behin-behineko etxe jabeen zerrenda

Uxo Agirre Jauregi	Egoitz Mendia Alonso
Carlos Alberto Angeles Olvera	Jesus Maria Morais Garaioa
Larraitz Berraondo Alberdi	Sergio Moreno Juan
Raul Coma Niño	Nerea Nuñez Godoi
Samuel Cuevas Agirre	Jon Pagaldai Alberdi
Pedro Egaña Arrieta	Oier Peñagarikano Arenaza
Jessica Escobar Neira	Maria Isabel Rodriguez Fernandez
Beñat Etxeberria Muxika	Aritz Saidi Olaortua
Juan Pedro Jurado Garcia	Diego Tena Martin
Amaia Madariaga Estensoro	Maite Zubikarai Zabaleta

> UR ZERBITZUA

Ur kontagailu zaharrak edo hondatutakoak doan aldatuko ditu Gipuzkoako Urak enpresak

Gipuzkoako Urak enpresak kanpaina bat egingo du Antzuolan, zaharkitutako edo hondatutako ur kontagailuak aldatzeko. Irailaren 18an hasi zen kanpaina, eta aldaketok ez dizkiete abonatuak kobratuko. Argibide gehiago nahi dituenak honako telefonora deitu behar du: 902 30 22 22.

> INFORMATIKA

Etxetik erosketak egiteko ikastaroa izango da irailaren 28an, arratsaldean, KZgunean

KZgunean ikastaroa izango da irailaren 28an, eguenean. Etxetik Internet bidez erosketak egiten ikasiko dute parte hartzen dutenek; besteak beste, www.eroski.es webgunearen bidez. Saioa 17:00etatik 19:00etara bitartean izango da eta interesatuek ikastaroko egun eta orduan KZgunean azaldu baino ez dute egin behar.

> ERRETIRATUAK

Iratxera eta Garesera joateko irteera antolatu du urriaren 6rako erretiratuen elkarteak

Erretiratuen elkarteak antolatuta Nafarroara irteera egongo da urriaren 6an. Garesko Señorío de Sarria upategia ezagutu eta luntxa egingo dute han. Ondoren, Iratxe hotelean izango dute bazkaria; eta bazkalostean, bingo saioa eta dantzaldia. Izena emateko irailaren 29an edo 30ean 18:00etatik 19:00etara bitartean erretiratuen elkartera jo beharko da eta 25 euro ordaindu.



JUAN LUIS ARANBURU

Antzuolatik Aiherrera 85 lagun

Anaitasun egunean hartu zuten parte 85 antzuolarrek Aiherran, domekan. Sokatiran, pilotan eta lokotx batzen jardun zuten bi herri-takoek eta alkateak trontzan ikusteko aukera ere izan zen. Ezbehar txikiak ere gertatu zen, antzuolar batek min hartu baitzuen jokoetan. Baina dantza, bazkari eta kantu giroak denak ahazteko modua eman zuten.

LARREA
TABERNA
**Kalebarren 17
ANTZUOLA**

EGAÑA

Era guztietako arrotz lanak
**Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak**
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**Jose
Gomez
Abad**
**Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19**
INDUSTRI MANTENIMENDUA

AZPIEGITURAK > UR HODITERIA

Artekalean ur hodi berria ipintzeko asmoa dago

Uruburun egingo dituzten etxebizitzetara ur emari egokia iristea da Udalaren proiektu horrek duen helburuetariko bat

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA
Hirigintza eta Obretako batzordeak egindako azken batzarrean erabaki zuen Artekalean ur hodi-terria aldatzeko azpiegituraren proiektu tekniko eskatzea.

Azpiegitura proiektua urrian barrena gertatu nahi dute eta aurreikusitako urtea amaitu aurretik hodia bera sartzeko obrak egitea Artekalean.

Proiektuaren zati bat Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Ingu-
rumen Sailak finantzatuko du.

Orain dagoen hodia txikia delako erabaki dute, besteak beste, hodi handiagoa sartzeko kale horretan. Frontoi ertzetik Artekalean barrena Domingo Iturbe

kaleraino, 11. zenbakiraino, joango litzateke ur hodi berria.

ZIRKUITU ITXIA SAN ROKEREKIN

Hoditeria berritzearekin hainbat helburu bete nahi dituzte. Batetik, Uruburun egingo dituzten 66 etxebizitza berrietara (txaletak, elkarri atxikitakoak eta tasatuak) ura eramatea; eta horretarako beharrezkoa den ur emaria bermatzea

Horretaz gain, ur hodi berria elkartu nahi dute San Roke kaleko hodiarekin; zirkuitu itxia sortuz. Horrela, kaleko puntu batean aberiaren bat balego ez litzateke ur zerbitzu guztia moztuko kale osoan; beste aldetik, ura

hartzeko aukera egongo litzateke eta eta zati batean bakarrik egingo lukete mozketa.

ETORKIZUNEAN PENTSATUZ

Batez ere Uruburu urez hornitzeko ipiniko dute hodi berria; baina beste gune batekin ere pentsatu dute.

Seigarren area deituta, pilotalekutik aurrera joanda, eta ospitale zaharraren atzeko alde-
ra, arau subsidiarioen arabera etxebizitzak egiteko lursail bat dago. Beraz, orain Artekalean sartuko duten hodiak hartune bat izango du, noizbait etxebizitzak eraikitzen direnean ura bertara bideratzeko.



HODI HANDIAGOA Artekalean barrena Domingo Iturberaino sartuko dute hodi berria.

IRATI AGIRREAZALDEGI

POSTA ZERBITZUA

Postontzia berritzeko eskatu du Udalak

Abuztuko hainbat egunetan posta banatu ez zelako kexak izan dira

I.A. > ELGETA

Abuztuan posta zerbitzuarekin arazoak izan direla-eta, Correoseko periferietako ordezkaria izan da udaletxean, horien berri izateko.

Ohiko postariak oporrak hartu zituela-eta ordezkariak ipini zituzten, baina haiek lana utzi zuten. Ondorioz, hainbat egunetan ez zuten herrian postarik banatu. Beraz, herritarrek zein enpre-
setakoek kexa azaldu zuten udaletxean.

Arazoaren aurrean alka-
teak eskatu dio Correosi hurrengoan ordezkaria lanean hasi aurretik egun batzuk eman ditzala ikasten ohiko postariarekin.

POSTONTZIAREN AHO TXIKIA

Banaketa ez da, ordea, posta zerbitzuarekin herrian dagoen arazo bakarra. Bi postontzi daude: Mendizale-
en plazan eta Andra Mari plaza-
zan. Bigarrena aldatzeko eskaria egin du Udalak. Izan ere, altuegia da gurgildun aulkian daudenendako, eta, gainera, zaharra izanik zuloa txiki-
egia da gutun-azalendako.

Bestalde, herritarrei hel-
bidea aldatzen dutenean Correosi jakinarazi behar zaiola gogorarazteko, idatzi bat presta dezan ere eskatu dute Udaletik.

bere ustez



Geaxi Ezpeleta

Oporraldirik gabe kondenatuta

Pasa da dagoeneko abuz-
tua. Abiadan, badoala ohartzeko denborarik ia eman gabe. Baina guztiok ez dugu egoera berean igaro oporraldia eta ez dugu urtea ere berdin biziko. Hemen bazkaritxo bat, han festaren bat, hondartzan egun pasa, kanpora egunen batzuk,... Urtea luzea bezain gogorra izan dela eta jai egunak ondo aprobetxatu eta golperik jo gabe igarotzen saiatzen gara. Urteko egunerokotasunari ihes eginez.

Izan ere, gurea bai egunerokotasuna, luzea eta gogorra.

"Jai egunak ondo aprobetxatu eta golperik jo gabe igarotzen saiatzen gara"

Merezi mereziak ditugu atsedeen egunok. Eta, etxetik ehun-
ka kilometrora urtez urte egun-
ka kaiola beltz eta zikinean igarotzen dituztenek? Asteburu-
rako haiek ikustera infernura-
rako autopistan zehar bidaiatzen dutenek? Denbora nahi bezala pasatzeko askatasuna ukatzearen ondorioz, egunak ezer jan gabe igarotzen dituztenek? Horiak ez al dute guk baino gehiago merezi egunerokotasunetik ihes egiteko aukera? Aurka daudenak aurka daudelako eta alde daudenak, dirudienek, lana oporrekin nahasten dutelako, gehien merezi dutenak aurtan ere atsedeen egun gabe geratzera kondenatuak izan dira. Alfer-
rarak baitira hitzak ekintzaz lagunduak ez badatoz.

KIROLA > ESKOLA ORDUETATIK KANPOKO ZERBITZUAK

Eskola umeez urrian hasiko dituzte kirol saioak

Urriaren 2an gurasoendako bilera izango da eskola kirolaren eta kirol hastapenaren berri emateko

I.A. > ELGETA

Urrian hasi nahi dituzte eskola-
laz kanpoko orduetan kirol saioak. Batetik, eskola kirola benjamin eta alebin mailetakoko ikasleendako. Asteazken ordu eta erdiko saio bat egingo dute umeez eta zapatu goizetan txapelketak egingo dituzte Bergaran.

Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoendako jolasetan oinarrituz kirol hastapena helburu

duten saioak izango dira asteen behin ordubetez.

IZENEMATEA

Zerbitzuen prezioa 30 euro da ikasturte osorako; eta irailaren 27a baino lehen eman behar da izena eskolan edo udaletxean. Ondoren, urriaren 2an batzarra izango da, 19:00etan, kultur etxean gurasoei kirol jardueren nondik norakoak azaltzeko.

> HEZKUNTZA

Psikomotrizitatearen gaineko hitzaldian izango da astelehen arratsaldean Herri Eskolan

Guraso Elkarteak antolatuta psikomotrizitatearen gaineko hitzaldia izango da astelehenean, irailaren 25ean, 18:00etan eskolan. Eskola orduetatik kanpo eskainiko diren psikomotrizitate ekin-
tzen gainean jardungo dute: funtzionamendua, metodologia... Horrela, gurasoek aditu baten ahotik jakingo dute euren seme-alabek zein ariketa egingo dituzten eta nola egingo dituzten.

> EUSKARA

Gutxienez zortzi laguneko taldea behar da euskara ikastaroa abian ipintzeko

Aurtan ere abian jarri nahi du Udalak euskara ikastaroa. Gutxienez zortzi laguneko taldea behar da eta udaletxera jo behar da izena emateko; prezioa 315 euro da. Eskolen ardura AEK euskaltegiak izango du, eta asteen hiru egunean izango dira bi orduko saioak. Bestalde, irailaren 29a da azken eguna 2005-2006 ikasturtean euskara ikasi dutenek dirulaguntza eskaria egiteko.

((112))
SOS DEIAK

OBRAK > ARABAKO FORU ALDUNDIAREN DIRULAGUNTZAK 2006-2007

Obra handiak egiteko laguntzak agindu ditu Foru Aldundiak

Bi urtetik behin ematen ditu dirulaguntzak, baina aspaldi ez zuela onartzen Aramaiorako laguntzarik

UBANE MADERA > ARAMAIO

Diputazioak agindutako dirulaguntzei esker, astindu ederra eman behar die aurtengo legegintzaldian Udalak herriko zenbait auzori: "Urteak egon gara gauzak ezin atera; baina badirudi orain egin ahal izango dugula zerbait."

EGUZKIERRIPAKOAK LEHENENGO

Mertxe Mondragon alkateak aurreratu digu lehentasunak ezarri dituztela laguntza horiekin zein obra egin erabakitze orduan. Hala, erabaki dute Eguzkierripako lanak aurtengo egitea. "Hasierako asmoa zen ura, saneamendua eta gasifikazioa egitea, baina pentsatu genuen momentu ona zela argindar eta telefono hariak lurperatzeko". Hori horre-

la, Udalak obra guztiak egiteko dirulaguntza eskatu dio Diputazioari. "Eta eman digute dirulaguntzaren %80". Kopurutan begiratuta, 794.013,099 euro da aurrekontu osoa beraz, horren %80. "Eguzkierripako lanak lehiaketara atera behar ditugu; eta gauzak ondo irteten badira, urri-azaroan lanak adjudikatuta izango ditugu eta berehala hasiko dira".

Udalak lehentasuna emango die, baita ere, Bentamotz baserriko ura eta saneamendua egokitze lanei. 45.154,87 euroko aurrekontua dute lanek eta kasu horretan ere, Diputazioak %80 agindu

du. Kalkulatzen dute abendu bukaera edo urtarrila hasieran lanak hastea. Proiektua egin barik dago, baina lan txikia denez, laster egingo dutela uste du Udalak.

HURRENGO URTERAKOAK

Horien ostean, Arriola auzoko ura, saneamendua eta gasifikazioa egiteko lanei eutsiko die, datorren urtean; baita Salgo-Errotabarriko obrei ere. Bi kasu horietan oraindik behin betiko proiektua egin barik dago.

Horrez gainera, herriko argiteria guztia berritu gura dute, baina hori 2007-08rako utziko dute.

Udalaren proiektuak kopurutan

Pozik daude Udalean Diputaziotik agindutako diruekin; izan ere urte askoan izan dira laguntza horien zain, herrian zenbait obra handi egiteko Udalak ez dauka-eta nahikoa diru. Datozen urteotarako aurreikusitako obren aurrekontua ikustea besterik ez dago: Eguzkierripako azpiegiturak berritzea: 794.013 euro. Salgo-Errotabarriko azpiegiturak: 479.022 euro. Arriolako azpiegiturak berritzea: 397.038 euro. Herri guztiko (auzo guztietako) argiteria berritzea: 238.849 euro. Eta Bentamotz baserriko azpiegiturak: 45.154 euro. Oro har, Diputazioak eskaintzen dituen dirulaguntzak eskuratuz gero, aurrekontuen %80 jasoko du Udalak.

argazki zaharra



Lagun Artea taldekoak, 1955-56an

Dantza taldearen urteurrena ospatzeko argazkiak batzen dabilta egunotan. Jakinarazi digute, gainera, urriaren 16ra arte luzatu dutela argazkiak batzeko epea.

Edozelan ere, dagoeneko batu dituzte batzuk; guri laga digutena, esaterako.

Argazkiak erakusten du Lagun Artea dantza taldeko dantzari batzuk herritarrekin batera dantzan. Hona hemen azaltzen direnetako batzuk, ezkerretik hasita: Iñaki Aldabe, Gotzone Ormaetxea, atzeko mutila da Jose Ramon Petreñas eta

begira dagoen hurrengo mutila, berriz, Jose Mari Morras. Gregori Kruzelaegi, Edurne Arana eta Konsuelo Salaberri datoz azkenik.

Argazkia: Aramaioko Udala.
Testua: GOIENKARIA.
Urtea: 1955-56.



U.M.

Goienarekin hitzarmena sinatuta

Oraingo astean gauzatu da Aramaio eta Goiena Komunikazio Elkartearen arteko aurtengo hitzarmena. Osoko bilkuren aretoan elkartu ziren Txirritola Euskara Elkartearen izenean Amaia Aspe; Goienaren izenean Estepan Plazaola Presidente eta Udalaren izenean Mertxe Mondragon alkatea. Halako hitzarmenen garrantzia azpimarratu zuten bi aldeek.



BOTATA Joan den astean bota zuten iturri ondoko etxea. PROMOCIONES ARAMAIO

OBRAK > URBANIZAZIO BERRIA

Baimena eman bezain laster hasiko dira etxeak eraikitzen

Olabetxo ondoko etxe blokea eraikitzen hasiko dira; zubi berria ere harekin batera eraikiko dute

U.M. > ARAMAIO

Etxe guztiak salduz gero, batera eraikiko dituzte. Guztiak saltzen ez badira, berriz, Olabetxo ondoko bi blokeak eraikiko dituzte lehenengo fasean. Hala adierazi digute etxeak eraikiko dituen Promociones Aramaixo enpresatik. Esan digute orain-

dik badagoela erosteko aukera eta interesa duenak dei dezakeela honako telefonoetara: 630 31 13 18; 619 71 60 65 edo 659 93 53 70.

220-240 metro koadroko hamaika etxe elkarri atxikiak eraiki gura dituzte. Alberto Mendieta eta Edurne Goiatxe arkitektoek diseinatutakoak.

> MENDI IBILALDIA

Bihar, zapatua, dute hitzordua mendizaleek Aitor Aranaren omenezko ibilaldian

Mendi ibilaldian parte hartzeko izenematea egunean bertan izango da, 07:30ean, sei euro ordainduta. Irteera, berriz, 08:00etan egingo dute. Sei-zazpi orduko ibilaldia antolatuko dute: Ibarra-Bolinburu-Untzilla-Asentzio-Kurtzeta (kontrola)-Jarindo-Marixeka-Oriol-Kasatxo (kontrola) eta atzera ere Ibarra.

GARRAIOA > ASTELEHENEAN HASITA

Badatoz bederatzi lekuko taxi-busa eta asteburuko autobusa

Taxi-busaren ordutegia egokitzeko eskatu zion Udalak Aldundiari, herriko hainbat gaztek Arrasateko institutura joateko zerbitzua izan dezaten



TAXI-BUSA Orain arte ibili den taxia bederatzi lekukoak ordezkatuko du. M.A.

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Astelehenetik aurrera bederatzi leku dituen taxi-busa ailegatuko da herrira. Eta hurrengo asteburuan hasita Pesa konpainiako autobusak pasatuko dira Gasteizerantz, eta alderantziz.

TAXI-BUS ZERBITZU OSATUAGOA

Foru Aldundiko berrien zain zegoen alkatea eta aste honetan bertan ziurtatu diote astelehenetik aurrera, hilak 25, bederatzi leku dituen taxi-busa lanean hasiko dela. Elgetako eta Gatzagako herritarrek erabiliko dute aipatutako taxi-busa eta ordutegia bi herrien eskaerentara moldatu dute: "Ordutegia aztertu genuenean egokitu beharra zeukala iruditu zitzaigun. Izan ere, herriko hainbat gazte Arrasateko institutura hasi dira joaten eta goizetan ez daukate zelan joan", azaldu digu Joxerra Perez alkateak. Hala, moldatzeko eskaera egin zioten Aldundiari eta erantzunaren zain egon ostean oniritzia jaso dute.

Astelehenean, bederatzi lekuko taxi-busa lanean hasterakoan, orain arte Eskoriatzatik herrira etortzen zen taxiari agur esango diote, alkateak azalduetako moduan. "Zerbitzu osatuagoa izango dugu orain, joan-etorrietarako aukera gehiagorekin, eta lehengoak baino leku gehiago eskainiko die herritarrei".

ASTEBURUETAN AUTOBUSA

Taxi-busa bakarrik ez, asteburuetan Gasteizerantz joan-etorriak egiten dituen hainbat autobus herritik pasatzea ere lortu du Udalak. Aldundiari egin zion eskaera alkateak, eta hark Pesa konpainiarekin adostu du. Garraio zerbitzu publiko eske

hasi ziren herritarrek orain dela ia urtebete, eta urtarrilean heldu zen lehenengo zerbitzua. Herritarrei, baina, hankamotz geratu zela iruditu zitzaie, eta hala azaldu zuten. Astelehenetik aurrera abian jarritako zerbitzuarekin, asko hobetuko da hasierako eskaintza hura.

Autobusaren ordutegia

Gatzaga-Gasteiz

Astelehenetik zapatura:	08:50	15:50
Domeka eta jaiegunak:	09:50	15:50

Gatzaga-Eskoriatza

Astelehenetik zapatura:	12:55	20:55
Domeka eta jaiegunak:	12:55	20:55

Arrasate-Gatzaga

Gau-txorria zapatuetan:	01:45	04:20
-------------------------	-------	-------

Taxi-busaren ordutegia

Eskoriatza:	Gatzaga:
07:00	07:10
10:50	11:00
15:50	16:00
19:50	20:00

BIDAIA > SORGINAK TALDEA

Asteburua Frantzian eta Gipuzkoako kostaldean

Pauera bidean dagoen Salies de Bearn herriko gatzaz zelan ekoizten duten ezagutuko dute

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Sorginak taldeko kideek gertu daukate irteera. Gatzaren bideetik: Gatzaga-Salies de Bearn izena jarri diote, eta bihar, 08:30ean aterako dira autobusean Frantzia aldera.

GATZ EKOIZPENA EZAGUTZERA

Udaberriean egin izan duten bidaia atzeratu eta udazkenarekin batera egingo dute. 22 emakume joango dira, iaz baino bi gehiago, gazteak ere hurbilduaz doazelako taldera. Nagusienak 86 urte ditu eta gazteenak 20, eta tarte horretan daude gainerakoak.

Baionatik Paue hirira bidean dagoen Salies de Bearn herria ezagutzera doaz emakumeak. 11:00etan Gatz Museoa erakutsiko diete eta azaldu zelan ekoizten duten gatzaz. Lo egiteko Hondarribiara hurreratu dira, eta eguraldia lagun badute, behintzat, domeka goizean Hendaiara joango dira txalupan. Autobusa hartu eta poliki-poliki etxerantz hurreratzeko

hasiko dira; hala, Zumaian bazkalduko dute eta arratsaldean Gatzagara helduko dira.

HAMAZORTZIGARRENA

Gatz Museoko arduradunak, Aitziber Gorosabel eta Amaia Olabe, joan den martxoan izan ziren Salies de Bearnen. Han ikusitakoak kontatu eta orain *sorginak* joango dira. Dagoeneko 18. bidaia da, eta taldeko zuzendaritza batzordean dagoen Mari Karmenek gogoan du lehenengoa nora izan zen: "Parisera joan ginen, eta European hainbat bidaia egin genituen. Lau eta bost eguneko bidaiak izaten ziren lehen. Orain, baina, gero eta edadetu gehiago ditugu eta ez dute urruti joan gura. Horregatik erabaki dugu hemendik aurrera inguruan ibiliko garela. Giro bikaina izaten dugu, eta halaxe jarraitzea da helburua".

Zalantza barik kontu asko ekarriko dituzte bueltan herriko emakumeek, baita argazkiak ere.



SALIES DE BEARN Gatz Museoa ikusiko duten labe bat. A.G.

Irailaren 18a:
099 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa


Sariak astero!

Astelehenean, irailaren 11a sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetakoa bat!

099 zozketako saridunak

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Izaro Larrañaga Mujika (Osintxu)
- Maite Zabaleta Serna (Elgeta)



100 zozketako sariak

- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



Espaloirako AUKERAN dantza taldearen estreinaldirako 2 sarrera, irailaren 29rako.

Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:

24 euro
2006 bukaera arte

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

> FUTBOLA

Preferenteko hiru ordezkariak etxean jokatu dute

Aretxabaletak Hernaniren bisita izango du domekan (16:30). Eta, Aloña Mendik Touring taldea izango du kontrario Azkoagainen, domekan baita ere (16:30). Bi talde horiek amorratzen daude lehenengo garaipena erdiesteko. Mondrak Idiazabal hartuko du Atxabalpen bihar (17:00).

> MENDIKO DUATLOIA

Antxintxika taldea Gipuzkoako mendiko duatloiko txapelkun

Joan den asteburuan egin zuten Lasarten Gipuzkoako mendiko duatloiko txapelketa, eta taldea, Antxintxika Algon triatloi taldekoak izan ziren onenak. Jon Aperribaik (bigarren), Javier Arkonadak eta Zigor Urainek egindako lanak eman zion ibarrekotaldeari sari hori.

> PILOTA

Mikel Deuna Pilota Txapelketako finalerdiak, bihar

Bihar, 16:00etan jokatuko dituzte finalerdiak. Mendizabalek eta Olalde Elezkanoren eta Jakaren kontra jokatu dute. Gero, Narbartek eta Telletxeak osatzen duten bikoteak Idoate eta Agiriano izango dituzte kontrario. Amateur mailan Nafarroa eta Bizkaia lehiatuko dira.

> TXIRRINDULARITZA

Jon Odriozola fitxatu du Euskaltel-Euskadi taldeak

Jon Odriozolak kirol zuzendari lanetan jardungo du Euskaltel-Euskadin. Oñatikoak Julian Gorospek utzitako hutsunea beteko du, bi urtez. Hainbat ziklistek duten protagonismoa alde batera utzi, eta talde lana sendotzea izango da Odriozolaren helburuetako bat.

> ESKUBALOA

Mikel Deuna Txapelketako finalak, domekan

Domeka goizean jokatuko dituzte Oñatiko Mikel Deuna txapelketako finalak. Hala, 10:30ean gazte mailako nesken finala jokatu dute, Aloña Mendi eta Ermua taldeak izango dira aurrez aurre. 12:00etan, berriz, gazte mailako mutilen txanda izango da: Aloña Mendikoek Bergarakoen bisita izango dute.



JOXEMARI JAUREGI Joan den urtean Arabara joan zen txapela; Joxemari Bizkor txakurra izan zuen lagun.

JOSETXO LIZARRALDE

Domekan egingo dute, Santa Lutziaok maldan, 47. Oñatiko artzain txakur txapelketa. Euskal Herriko, Frantziako eta Kataluniako onenak izango dira

ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA > OÑATIKO 47. TXAPELKETA

"Euripean txakurrak berdin egiten du lan, erosoia ez den arren"

XABIER URTZELAI > OÑATI

Domekan, 11:00etan hasiko da 47. artzain txakur txapelketa. Euskal Herriko artzain onenekin batera egongo dira Frantziako eta Kataluniakoak, 12 guztira. Jose Mari Bengoa oñatiarrak eman dizkigu xehetasun gehiago: "Lehen Frantziatik eta Kataluniatik etortzen zirenak makalago ibiltzen ziren, baina azken urte-

otan maila parekatu egin da". Askorendako Oñatiko txapelketa da egutegiko garrantzitsuenak, eta baita bereziena ere: "Santa Lutziaok zelaiak berezitasun bat du, gainontzeko txapelketetakoak baino handiagoa dela, eta erreka duela tartean. Hala, artzainendako gaitzagoa izaten da txakurra maneiatzea. Horrekin batera, baina, zorteak zeresan handia

izaten du, edonori gerta dakiokete artaldetik ardiren batek alde egitea".

EURIAREKIN ERE BERDIN

Aurreikuspenek diotenez, badi-rudi asteburuan eguraldiak ez duela lagunduko: "Euripean ere txakurrek berdin-berdin egiten dute lan, alde horretatik ez dago arazorik. Hori bai, artzainaren-

dako ez da batera erosoia, ezta ikusleendako ere, hortxe dago alde".

Joan den urtean egondako lehia estuak erakusten du maila oneko artzainak txakur onenekin etortzen direla Oñatira. Orduan Enrike Mendiguren eta Joxemari Jauregi azken unera arte parekatuta izan ziren, eta azkenean Joxemari eraman zuen txapela Arabara, bigarren.

TXIRRINDULARITZA > LEHENDAKARI TXAPELKETA OÑATIN

Javier Iriarte eta Ruben Palacios, txapelaren bila

X. U > OÑATI

Lehendakari Txapelketako azken lasterketa izango da bihar Oñatin egingo dutena, Oñatiko sari-ko 19.a. Hala, Oñatik hartuko dio joan den astean Bergaran egin zuten proba errelebu. Ikusteko dagoena da Seguros Bilbao taldeak joan den astean erakutsitako nagusitasuna errepikatuko ote duen.

BI HAUTAGAI

Eta ikusteko dago Seguros Bilbao taldeak zelan erantzungo duen azken lasterketa horretan. Izan ere, Lehendakari Txapelketa irabazteko aukera duten bi ziklistak talde horretakoak dira. Alde

batean dago joan den astean Bergaran nagusitu zen Ruben Palacios, eta bestean Oñatin irabaztea zer den ondo dakien Javier Iriarte. Eta, tartean egongo da, baita ere, Saunier Duval taldeak fitxatu berri duen Beñat Intsausti. Badi-rudi Matxinek begiz jo duen ziklistak haserre amaitu zuela joan den astean San Martin saria, mendiko saria irabazita ere ez zelako sari hori jasotzera agertu; taldekideek hartu behar izan zuten trofeo hori.

Kontuak kontu, biharko lasterketako 116 kilometroek jarriko dute nor bere lekuan, edo taldeko aginduek erabakiko dute txapelketa?



Bihar erabakiko dute nork jantziko duen Lehendakari Txapelketako txapela.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Preferente maila

Aretxabaleta-Hernani
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Touring.
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Mondra-Idiazabal
Zapatua. 17:00. Atxabalpe.

Lehen erregionala

Bergara-Pedrusko.
Zapatua. 17:00. Agorrosin.

Bigarren erregionala

Elgeta-Mondra
Zapatua. 18:30. Unbe.
Aretxabaleta-Antzuola
Zapatua. 16:30. Ibarra.
BTLS-Urki
Domeka. 18:00. Ipintza.

Ohoerko mailako gazteak

Eibartarrak-Aloña Mendi.
Domeka. 15:30. Unbe.
Urola-Mondra
Zapatua. 16:00. Argixao.
Hondarribia-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Ondartza.
Sto.Tomas Lizeoa-Bergara
Domeka. 11:30. Berio.

Lehen mailako gazteak

Arrasate-Soraluze
Domeka. 11:30. Atxabalpe.
Urki-Bergara
Domeka. 12:30. Unbe.
Antzuola-Eibartarrak
Zapatua. 16:00. Estala.
Ilintxa-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 16:30. Bikuña.

Ohoerko mailako kadeteak

Antiguoko-Arrasate
Zapatua. 12:00. Berio.
Kostkas-Bergara
Domeka. 12:00. Matigoxote.
Reala-Aloña Mendi

Domeka. 12:15. Zubieta.
Arizmendi Aretx-Lagun Onak
Domeka. 11:30. Ibarra.

Lehen mailako kadeteak

Arizmendi Aretx.-Ikasberri
Zapatua. 11:30. Ibarra.
Bergara-Anaitasuna.
Zapatua. 12:00. Ipintza.

Ohoerko mailako infantilak

Arrasate-Aurrera Ondarroa
Zapatua. 11:30. Atxabalpe.
Anaitasuna-Arizmendi Aretx.
Domeka. 11:00. Txerloia.
Aloña Mendi-Beasain
Zapatua. 10:00. Ibarra.

Lehen mailako infantilak

Bergara-Urki.
Domeka. 11:00. Ipintza.
San Inazio-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 10:00. Donostia.

Emakumezkoen Liga

Gasteizko Aurrera-Arizmendi
Domeka. 11:30. Olaranbe.
Agurain-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Agurain.
BTLS-Mondra
Domeka. 16:00. Ipintza.

Emakumezkoen F-8

Luberrri-Arizmendi Aretx.
Domeka. 10:00. Berio.

Kadeteak neska F-11

Aloña Mendi-Arizmendi Are.
Zapatua. 11:30. Ibarra.

ESKUBALOIA

'Pitxi' Herrero torneoa
Arrasate-Arrasate-Romo.
Zapatua. 16:30. Iturripe.

Mikel Deuna txapelketa (finalak)

Aloña Mendi-Ermua.

Domeka. 10:30. Zubikoa.
Aloña Mendi-Bergara.
Zapatua. 12:00. Zubikoa..

SASKIBALOIA

Lagunartekoa
Bruesa GBC-Kiev.
Domeka. 12:00. Labegaraie.

Juniorrak mutilak

Gros Xake-Mugarri Alkesa
Zapatua. 18:00. Donostia.

Kadeteak mutilak

Gros Xake-Ford Mugarri
Zapatua. 12:00. Donostia.

Kadeteak neska

Eskoriatza-Salletarrak
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA

Oñatiko 47. Txapelketa
Domeka. 11:00. Santa Lutzia zelaian. Euskal Herriko, Frantziako eta Kataluniako artzaiak izango dira.

TXIRRINDULARITZA

San Miguel saria, Oñatin,
Lehendakari Txapelketa
Zapatua. 10:00. Oñatin.

San Miguel Saria, Aretxabaletan, junior mailako lasterketa

Domeka. 10:00. Udana kalean hasiko dute proba.

XAKEA

Arrasate Hiria Xake Txapelketa, hirugarren jardunaldia
Egubakoitza. 19:00. Altamira.

SASKIBALOIA > LAGUNARTEKO PARTIDUA

Bruesa GBC taldeak Ukrainako Kiev hartuko du domekan Bergaran

ACB ligan lehiatuko den Bruesa GBC taldea Debagoienara iritsiko da domekan; Ukrainako Kiev izango dute kontrario, 12:00etan Bergaran

XABIER URTZELAI > BERGARA
Aurre-denboraldian kilometro mordo egin eta gero, Bruesa GBC taldeak geroago eta gertuago du ACBko liga txapelketa hasiera. Astebete geratzen da saskibaloiko maila goreneko txapelketa hasteko, baina Porfi Fisacen taldea zorretan dago Debagoienarekin. Gipuzkoan barrena norgehiagoka mordo jokatu dituzte, eta domekan iritsiko dira Bergarara, lagunarteko azken zeingehiagoka jokatzera. Hala, TAUrekin eta Bilbo Basketekin ahaleginetan ibili eta gero, azkenean Ukrainako talde indartsua



MALLORCAN jokatu berri du Bruesak lagunarteko azken norgehiagoka. GOIENKARIA

izango da Labegaraietan: Kiev, hain zuzen ere.

NORGEHIAGOKA EGUERDIAN

Domekan, 12:00etan hasiko da Bruesa GBC eta Kiev taldeen arteko partidua. Partidurako sarrerak aste barruan egon dira Depor

tabernan salgai, baina norgehiagoka baino lehenago Labegaraietako sarreran ere salduko dituzte, 6 euroren truke. Horrekin batera, esan beharra dago Bruesak Eskoriatzan duela ibarreko ordezkaritza, eta bazkide egin gura duenak hara jo behar duela.

BEHOBIA-DONOSTIA 2006

KALORIA GUTXIKO MENUA

Mugi zaitez, denbora aurrera doa eta!



Menua: 100 €

Hurrengo platerak barne

- **Entremesak:** balorazio medikua eta esfortzu proba
- **Lehen platera:** entrenatzaile pertsonala
- **Bigarren platera:** entrenatzeko pultsometroa erabiltzeko aukera
- **Postrea:** autobusean joan-etorria
- **Etxeko oparia:** izena ematearren kamiseta

*** Laktatodun esfortzu proba egiteko aukera

ARRASATE

KIROL MEDIKUNTZA ZERBITZUA

(Musakola Kiroldegia)

Elkano 27. ARRASATE.


Informazio zabalagoa: 943 77 16 77

Leku mugatuak!



AUKEA
Kirol Erakundea

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

BIDABURU AROSZTEGIA

Oñati
• Era guztietako berrikuntza lanak, leihoak, neurri guztietako atariak, zoruak, eta abar.
Zubillaga 20
T: 943 78 35 00 / 627 48 58 13
bidaburu.h@euskalnet.net

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behe
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

RELE

Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e. arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturalak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Aranburuzabala 56
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

ZUTARRI SL

Arrasate
Zerkaosteta 17, behe
T: 943 79 67 78 / Faxes: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ESKAIOLISTAK

EMILIO ESKAIOLAK

Aretxabaleta
• Eskaiolazko eta pladurrezko sabaien dekorazioa, sabai desmuntagarriak
Bedarretako San Migel auzunea 14, behe D
T: 943 79 60 65 / 675 70 25 12

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

G. IZCUE IRURZUN

Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak...
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

ITURGINTZA

ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behe
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behe
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate
- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behe
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Ura
• Gas
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar dokorea 5, behe C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Errethenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC

Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate
• Metal arosztea, PVC eta arosztea
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

LEIHATEK

Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behe
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatze sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

L. GONZALEZ PINTURAK

Aretxabaleta
• Pintura orokorra, pintura papereztatua
Basabe poligonoa F-6
T: 686 113 581

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA




> **'STAR TRIP'**
Yllana taldearen *Star trip* antzezlan gaur Elgetan > 45



> **HAMAIKA**
Euskarazko tokiko telebistak sortzeko taldea aurkeztu dute > 53

> **LEIRE LARDIZABAL**
Buru-belarri dabil Lardizabal euskalgintzan eta kazetaritzan. Besteak beste, Aretxabaletako Loramendi elkartearen kultura eragile lanak egiten ditu aspaldian > 50



IKER BARANDIARAN

Irakurzaletasunari eutsi nahian

Hire liburu dendak Arrasaten sortutako hutsunea betetzera dator Elkar: atzo inauguratu zuten denda berria

EDU MENDIBIL > ARRASATE
Elkar liburu eta disko denda inauguratu zuten atzo, eguena, Arrasateko Erdiko kalean. Hire liburu dendak Arrasaten sortutako hutsunea betetzera dator Elkar. 32 urteren ostean 2005eko azaroan itxi zuten Portaloiaren ondoan zegoen Hire liburu denda. Martinez de Ubago ahizpek bezero leialak utzi zituzten atzean. Joxe Arantzabal **HUHEZIKO** irakasle arrasatearra du

horietako bat: "Denda txikia zen, baina liburu-zaleok hortxe aurkitu genuen giro egokia, zerbitzua eta adiskidetasuna. Arrasaten horixe izan da urtetan nire liburu denda kuttuna. Bertan ordu mordo egin dut, eta gustura sentitu naiz beti".

Elkar taldeko arduradun Jon Jakaren esanetan, erronka da Debagoienean beste denda bat zabaltzea. "Ez zen gure lehentasuna, baina tamalez bailaran

liburu dendetan sortu den hutsuneak, dagoen kultur eta enpresa dinamikak eta bertatik ere ildo horretan egin diguten eskaerak bultzatu gaitu erronka honi heltzera". Bergarakoaren ostean, bailaran zabaltzen duten bigarren denda da Arrasatekoa: "Bergarakoarekin konparatuz, paperteria eta kioskoa jarri ditugu Arrasaten; bestalde, musika eta aisialdiko produktuetan ere aukera zabalagoa izango da".

BEZEROEN IRITZIAK

Joxe Arantzabalek atzoko inaugurazio ekitaldian hartu zuen parte, Elkarrek gonbidatuta. *Medikuak esan dit minbizia dudala* liburu argitaratu eman zuen Arantzabalek Elkar argitaletxean, 2005ean. Interneten lehenbizi eta liburu formatuan geroago zeresan handia eman zuen haren kontakizunak. Baina idazlea izateaz gain, irakurle fina ere bada Arantzabal. Elorrioko etxean

"Ez zen gure lehentasuna Arrasaten zabaltzea; sortu den hutsuneak erronka honi heltzera bultzatu gaitu"

Jon Jaka, Elkar

"Interneten eraginez, bizkorrago irakurtzen dugu gaur; apur bat hemen, han beste bat..., pikoteatzen"

Joxe Arantzabal, idazlea

"Gure moduko dendetan bezeroari arreta berezia eskaintzen diogu"

Ibarrondo liburu denda, Oñati



BETIKO DENDA Hainbat belaunaldik eraman izan dute Oñatiko plazan dagoen Ibarrondo liburu denda. Bezero leialak dituzte han.

LEIRE KORTABARRIA

Irakurzaletasunari eutsi nahian

(43. orrialdetik dator)

milatik gora liburu izango dituela diosku, han eta hemen erositakoak: "Edonon erosten ditut, liburu dendetan, saltoki handietan edo kalean ipinitako postuetan. Berez, gusturago sentitzen naiz liburu dendetan, lasai-lasai egoten naizelako liburuak gainbegiratzeko. Saltoki handietan ere gustura ibiltzen naiz, baina horietan zurrumbilo handiagoa izaten da. Jeneralean, gainera, liburu dendetan liburuak eta eguneratua izaten dira".

Liburu denda batera jotzeko orduan gehien zer baloratzen duen galdetu diogu: "Denetik apur bat ikustea, euskarazko liburuak tartean, estilo bat eta liburu asko. Gogoko dut askatasuna izatea liburuak esku artean gainbegiratzeko, baita apur bat irakurtzeko ere, zenbaitetan hor erabakitzen baitut erosi edo ez erosi, zer egin".

ASPALDIKO LIBURU DENDA

Betiko liburu denda da Oñatiko plazan dagoen Ibarrondo. Hainbat belaunaldik eraman izan dute negozioa eta gaur egun Juan Antonio Ibarrondok

eta haren emazte Estherrek daukate dendaren ardura. Saltoki handietan egoten diren liburu dendekin konparatuz, eurek bestelako zerbitzua eskaintzen dutela azpimarratzen dute: "Saltokietako liburu saltzaile asko eta

asko ez dira liburu-zaleak. Gure moduko dendetan, berriz, bezeroari arreta berezia, ia pertsonalizatua eskaintzeko aukera dago eta askok eskertzen dute gomen dioren bat edo beste ematen badiezu. Era askotako liburuak

dituzte gurean aukeran, gaietara zein edizioei dagokienez. Zenbait lekutan liburuaren edizio bereziak aurkitzea ez da horren erraza eta hementxe izaten ditugu topatzeko zailak izaten diren hainbat liburu".

Bezeroen enkarguak jasotzen dituzte noizbehinka eta jendearen gustuen gainean zera diote: "Azken boladan nork bere buruari laguntzeko liburuak modan daude, baita liburu historikoak eta emakumei zuzendutakoak, nobela beltza ere asko saltzen da, bidaia liburuak udan, haur literatura, tarota, I Ching gaiaren gainekoak... Edozein gairi buruzko liburuak aurki ditzakezu eta salmentek ez dute behera egiten".

Irakurzaletasunari buruzko emaitza kontrajarriak daudela dio Jon Jakak: "Batuetan inkestak beherantz doaz, eta beste batuetan gazteen artean goranzko joera dago. Nik uste dut orotara geldituta ez bagaude beherantzko joera gehiago dela. Ez da harritzekoa, hainbeste telebista kate, Internet eta bestelakoekin. Hala ere, irakaskuntzak eraginda gazteek izan daitezke gorantz doazenak. Gustuz eta atseginez, helduek. Emakumezkoek jarrai-

tzen dute izaten irakurzaletasunak, gizonezkoen pena eta lotsarako".

INTERNETEN MEHATXUA

Duela urte batzuk liburu saltzaileak kezkatuta azaldu ziren Interneten eraginarekin. Argi dago sarea gure irakurtzeko ohiturak aldatzen ari dela. Arantzabalek berak Interneten idazten du sari, *Goiena.net* atarian duen *Faroa* blogean: "Gaur egun bizkorrago irakurtzen dugu, hemen apur bat, han beste apur bat, pikoteatzen. Informazio iturri gehiagotara jotzen dugu. Beraz, gauzak kontrastatzeko aukera handiagoa dugu". Hala ere, Arantzabalek ez du uste liburuaren arriskuaren dagoenik: "Iraungo du, baina halako batean, formatu berriak agertuko dira. Beste formatu batzuetan erositako ditugu, testua arbel digitalean irakurtzeko moduan. Formatua eta bereizmena hobetzen dutenean, hori etorriko da". Iritzi berekoa da Jaka: "Internet kontsulta gisa dezente erabiltzen da, gero liburu dendetara erostera hurbiltzeko. Izan ere, niri, behintzat, esku artean liburuak ematen duen plazera ez dit ematen pantaila hotz batek".



IRAKURLE FINA Joxe Arantzabalek milatik gora liburu dauka etxean.

GOIENKARIA

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | **KODEA**

1,2,3,4...Real!! | **REAL**
 Alboka | **ALBOKA**
 Athletic Juepi!! | **IEUP**
 Buztan bertsoa | **BERTSO**
 Hartu... Ansar | **ANSAR**
 Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
 Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
 Hartu... Miami!! | **MIAMI**
 Independentzia! | **INDEPEN**
 Irrintzi | **IRRINTZI**
 Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**
 Milazu! (pila) | **MILAZU**
 Suprinua | **SUPRINU**
 Tobera | **TOBERA**
 Txalaparta | **TXALA**
 Txanbela | **TXANBERA**
 Txoootx | **TXOTX**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

ANOETA1	MENDI2	BELAK	ZORI3	IKURRI3	POPATIK1	AIZKORAK	ADARIAK
ARCO	SADARI	ZORI1	ZORI4	KALABERA1	POPATIK2	EGUZKLORE3	ELORAN
IPURUA	EIBARPOOL	TOPA	TITULUA	MUSKARIA	SATANAS	ARRANAK	IDIAK

BILBAO.IZENA.ZENBAKIA

REALIZENA.ZENBAKIA

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
 Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki-jalantzeraren bidez ordaindu behar da. Kasu guztietan dela eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
 * Euskaratutako 900 94 02 00 telefonora. ** Vodafone: doitu 123 ez. / Movistar: doitu 605.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

ANTZERKIA > ASTEBURUAN, BI KOMEDIA IBARREAN

Yllanaren 'Star Trip' antzezlanaren Elgetan

Gaur, egubakoitza, espaziuntzien gaineko umorezko antzezlanaren egitea eta bihar, zapatua, Arrasateko Amaia Udal Antzokian, beste komedia bat



ASTRONAUTA BITXIAK Lau astronauta horiek pasarte asko izango dituzte. YLLANA

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, umorezko antzerkian pareko lehiakiderik ez daukan Yllana taldeak ikuskizuna estreinatuko du ibarrean. Hitzordua Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egin dute 22:30erako, eta ikuskizuna *Star Trip* izango da. Sarrera 12 eurotan salduko dute (Espaloiko bazkideek 10 eurotan eskuratu ahal izango dituzte).

Yllana taldeak 15 urte bete ditu eta oso ibilbide arrakastatsua egin du orain arte. Hain zuzen ere, oso lan arrakastatsua antzeztu ditu (*666*, *GlubGlub*, *Rock&Clown*, *Los mejores sketches comicos de Monty Python...*), betiere umore beltzez ondo zipriztindutakoak, hori da eta eurek ondoren ezagutzen duten eremua.

ZIENTZIA-FIKZIOA ETA UMOREA

Star Trip ikuskizunetan lau astronautaren istorioa kontatuko dute. Astronauta horiek 50 urte daramatzate espaziuntzi baten

barruan hibernatzen. Euren zeregin nagusia izango da espazioan bizitza adimentsua bilatzea, eta behin aurkituta, bizi den hori hiltzea, hain zuzen ere.

Horrez gain, antzezlanaren kontatuko dizkigute espaziuntzia gidatzeak ematen dizkien buruko minak, bost lagun denbora luzean batera bizi izateagatik dituzten zailtasunak eta tirabirak, eta espaziuntziak bidean aurkituko dituen munduen gaineko esperientziak, hain zuzen ere. Behin baino gehiagotan espaziuntziak talsa egingo du erreallitatearekin.

Ikuskizuneko soinu banda asko zaindu dute eta Yllanako lagunak saiatu dira gustuko dituzten antzerki eta generoei omenaldia egiten. Hain zuzen ere, zientzia-fikziozko, espazioko filmen eta zientzia izu-ikaren keinuak ageri dira *Star Trip*-en.

ARRASATEN, BESTE KOMEDIA BAT

Bihar, zapatua, 20:00etan, Mutrikuko Goizeko Izarra taldeak *Kanpokoekin uso etxekeekin...* antzezlanaren egitea eta Amaia Udal Antzokian. Goizeko Izarra talde amateurra da eta familia baten gaineko komedia antzeztuko du.

MUSIKA > BRUJERIA ETA ARKADA SOZIAL

Brujeria talde polemiko eta indartsua Bergarako Jamen

Gaur, egubakoitza, Arkada Sozialek agur kontzertua egingo du Arrasateko 3.60 aretoan

I.B. > BERGARA

Jakin-min handia piztu du Brujeria taldeak Bergarako Jam aretoan egingo duen emanaldiak. Gaur, egubakoitza, izango da kontzertua eta ateak 20:30ean zabalduko dituzte. Sarrera asko saldu dituzte, baina txarteldegian ere eskuratu ahal izango dira 23 eurotan.

Brujeria talde erdi-klandestinoa da. 1990ean sortu zuten AEBetako metal talde indartsuetako hainbat musikaririk, eta saiatu dira euren izenak isilpean mantentzen. Hasieratik polemika bilatu dute eta narkotrafikoaren, satanismoaren eta

kalamuaren aldeko hitzak idatzi dituzte, AEBetako latindarren aldeko aldarrikapen gogorrak eginda. Ezagun da Faith No More, Fear Factory, Napalm Death eta muturreko beste taldeetako kideak aritzen direla proiektu horretan. Eurekin batera, Jamen, Hora Zulu taldea ere arituko da.

OII-ZALEEN HITZORDUA

Bestalde, gaur, egubakoitza, Arrasateko Arkada Sozial taldeak agur kontzertua egingo du 3.60 aretoan 23:00etan. Enboscada eta Agressive Kombat izango ditu lagun.



JUAN BRUJO Brujo da taldearen ideologo nagusia.

JAM

Edozein premiarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi



Policlínica Gipuzkoa

ARRASATE

Zerkaosteta 17

943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08

Eibar: 943 12 10 2

Irun: 943 61 78 88

CG

CONSULTORIO GINECOLOGICO



KROSTI
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- Duplexa Masterreka. 180 m².
- Duplexa Ortuibar. Oso ondo.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- Angiozar. Bi solairu. Berrituko.
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Bernia 66 m². Prezio ona.
- Bidekurutzeta. 96 m². Ondo.
- Fraskozuri 104 m². Ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 70 m². Ondo.
- Zubiaurre 65 m². Oso ondo.

Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzon. 2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.

Antzuola:

- Elkarren ondoan eraikitako 8 txalet salgai: Hiru solairu, eguzkitsuak, sarbide ona, garajea, txokoa eta terraza.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telefona Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA:

- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta. 60 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 79 m². Berrituko.
- Aranerreka 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Mabatxategi 80m². Ondo.
- Masterreka duplexa 170 m².
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 71 m². Erdi berrituta.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berrituko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraskozuri 102. Ondo.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.
- Simon Arrieta 73 m². Berrituko.
- Martoko 93 m². Berrituko.
- San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.

ANTZUOLA:

- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1. ETXEBIZITZAK	3. LOKALAK	5. IRAKASKUNTZA	7. ANIMALIAK	9. HARREMANAK
101. SALDU 102. EROSI 103. ERRENTAN EMAN 104. ERRENTAN HARTU 105. ETXEAK OSATU 106. BESTELAKOAK	301. SALDU 302. EROSI 303. ERRENTAN EMAN 304. ERRENTAN HARTU 305. BESTELAKOAK	501. JASO 502. EMAN 503. BESTELAKOAK	701. SALDU 702. EROSI 703. EMAN 704. BESTELAKOAK	901. AGURRAK 902. HARREMANAK 903. DEIAK 904. BESTELAKOAK
2. GARAJEAK	4. LANA	6. MOTORRA	8. DENETARIK	10. RELAX
201. SALDU 202. EROSI 203. ERRENTAN EMAN 204. ERRENTAN HARTU 205. BESTELAKOAK	401. ESKAINTZAK 402. ESKAERAK 403. BESTELAKOAK	601. SALDU 602. EROSI 603. ALOKATU 603. KONPONDU 604. BESTELAKOAK	801. SALDU 802. EROSI 803. EMAN 804. HARTU 805. TRUKATU 806. GALDU 807. AURKITU 808. BESTELAKOAK	

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Antzuola. Etxebizitza salgai Sagasti auzoan. Hiru logela, bi komun, egongela, sukaldea, despentsa, balkoia eta terraza. Garajea aukeran. Deitu telefonora: 607 63 48 88.

Antzuola. Etxebizitza salgai. Bi logela. Egoera onean eta prezio interesgarria. Deitu telefonora: 610 73 52 23.

Aramio. Etxe adosatua salgai. 619 11 23 10.

Arrasate. 60 m². Bi logela, sukaldea, egongela, ganbara eta bi balkoi. Berritua. 639 84 71 73.

Arrasate. Bizkaia etorbidea. 3 logela, 2 bainu eta trasteleku. Deitu telefonora: 670 42 07 98.

Arrasate. Erdialdean dago kokatuta eta 100 m² inguru ditu. 656 77 46 60.

Arrasate. Etxebizitza salgai erdialdean. 96 m². Sukaldea, hiruro logela, bi komun, berogailua eta igogailua. Garajea eta trastelekuak aukeran. (18:30-20:30). 686 24 97 48.

Arrasate. Etxebizitza salgai Santa Teresan. 69 metro koadro. Hiru logela, komuna, sukaldea, jangela-egongela, balkoia eta sotoa. Oso eguzkitsua da. 652 77 87 71.

Arrasate. Etxebizitza salgai Udalaiz dorrean. 90 m². Deitu telefonora: 649 16 52 32.

Arrasate. Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Hiru logela, bi komun, egongela, trastelekuak, ganbara eta garajea. Deitu telefonora: 618 20 29 92.

Bergara. Etxebizitza salgai 205.000 eurotan. 620 62 83 41.

Bergara. Etxebizitza salgai Madura kalean. 52m². Bi logela, egongela. Guztiz berritua. 616 84 94 89.

BERGARA

Depor tabernan zerbitzaria behar da.

629 26 88 51
943 76 01 51

BERGARA

Irailaren Zan Santa Marina elizan Canon 70/200, F4 objektiboa hartu zuenari bueltatzea eskatzen zaio. Buelatzea sarituko da. 943 76 30 33

Bergara. Zabalotegin etxea salgai. 50 m². Berritua. 14 m²-ko sotoarekin. Deitu telefonora: 635 72 67 11.

Bergara. Zubiaurre kalean. Guztiz berritua. Hiru logela eta berogailua ditu. Deitu telefonora: 943 28 76 36.

Jaca. Atikoa, 4. solairuan. 65m². Igerilekua, lorategia. Deitu telefonora: 943 76 57 78 edo 606 84 16 46.

Oñati. 86 m². Bidebarrieta kalean, hiruro logela, sukaldea, egongela, bi bainugela, trastelekuak eta garajea itxia. Deitu telefonora: 635 73 08 67.

Oñati. Atzeko kalean etxea salgai. 122 m², lau gela. 646 95 80 62 edo 943 78 06 72.

Oñati. San Lorentzon etxea salgai. Garajearekin eta ganbararekin. Deitu telefonora: 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen dit. Lau pertsonarendako. Unibertsitatetik gertu. 626 96 68 45.

IKASTAROA**KUDEAKETA TURISTIKOAK: DEBAGOIENeko TURISMOAN ESPEZIALISTA**

Iraupena: 150 ordu.

Nori zuzendua: Langabezian dauden pertsonen

Hasiera: Urriaren 23a.

Izen ematea: Irailaren 18tik 29ra.

Informazio gehiago eta izenematea:

Debagoieneko Mankomunitatea:

• Enplegua. 943 79 30 90

garapenagentzia@debagoiena.com

• Turismo. 943 79 64 63

turismo@debagoiena.net

www.equal-ariadna.net • www.debagoiena.com

**BERGARA**

Langile bat behar da eraikuntzako kalitate-kontrolerako lanerako. Debagoienekoa izatea baloratuko da. B1 gida baimena beharrezkoa. 656 78 88 59 (Julio)

Arrasate. Lau logelako etxebizitza emango nuke errentan. Unibertsitatetik gertu dago. Ruben deitzen naiz. Deitu telefonora: 655 71 89 36.

Arrasate erdi-erdian, logela bateko apartamentua da eta alokagai dago. Dena berritua. Deitu telefono honetara: 659 83 21 12.

Benidorm. Hondartzatik oso gertu dagoen eta itsasora begira. Etxebizitza guztiz jantzia. Ramon deitzen naiz. Deitu telefono honetara: 630 41 84 65.

Bergara. Bolu kalean dagoen etxebizitza ematen da errentan. 20:00etatik 22:00etara deitu, telefono honetara: 943 76 07 89.

Bergara. Etxebizitza errentan ematen da. Erdialdean. Lau logela, bi komun, egongela, sukaldea eta sarrera. 607 32 74 32.

Oñati. Plazatik gertu dagoen etxebizitza alokatzen da. 57 m². Sukaldea, bi logela, komuna eta egongela. Deitu telefonora: 656 72 10 35.

104. ERRENTAN HARTU
Aretxabaletan edo Arrasaten. Bi seme-alaba dituen familia euskaldun batek etxea errentan hartuko luke. Deitu telefono honetara: 635 75 38 07.

Arrasate. Etxebizitza errentan hartu nahi nuke. Bi emakume eta ume batendako. Uribe ingurua bada, hobeto. Deitu telefono honetara: 667 34 89 40.

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartuko luke errentan Bergarako familia batek. Erdialdean bada, hobeto. Deitu telefono honetara: 607 45 68 13.

Debagoiena. Etxe hartuko nuke alokairuan, bizpahiru logelarekin. Hilero 500 euro ordaintzeko gertu. Deitu telefono honetara: 630 31 84 34.

Debagoiena. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu telefonora: 665 75 52 11.

105. ETXEAK OSATU
Aretxabaleta. Neska behar da etxebizitza osatzeko. 250 euro hilean. Etxe berria da. 647 50 80 03.

Aretxabaleta. Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Nerea edo Eli. Deitu telefono honetara: 650 93 96 93 edo 653 70 50 68.

Arrasate. Ikasle bat behar da etxea osatzeko Arrasate erdialdean, Eskola Politeknikotik 5 minutura aurkitzen da. Telefonoa: 606 56 97 49.

Bilbo. Logela hartuko nuke alokairuan. 665 75 10 73.

ARRASATE

Autoa daukan langile autonomoa behar da. 943 79 92 77

Arrasate. Garajea salgai Makatzena auzoan. Deitu telefono honetara: 945 12 09 94.

Bergara. Garaje itxia. San Lorentzo auzoan (Zapelaitz azpian). 943 76 40 05.

203. ERRENTAN EMAN

Aramio. Garaje itxi eta berria errentan ematen da Iturri Zuri kalean. 15 m² gutxi gorabehera. Gaez deitu. Deitu telefono honetara: 945 44 51 97.

Aretxabaleta. Garaje itxia errentan ematen da Mitarte kalean. Deitu telefono honetara: 943 76 29 21.

Bergara. Garaje itxia alokatzen da Boluko Arane Erreka kalean. Deitu telefono honetara: 943 76 48 46.

3/ LOKALAK**303. ERRENTAN EMAN**

Arrasate. Bulegoak alokatzeko ditugu Otarola 18an, Uarkapeko arkupeetan. Deitu telefono honetara: 638 17 93 63.

304. ERRENTAN HARTU

Bergara. Gazte koadrila handi batek 50 metro koadroko edo hortik gorako lokal hartuko luke errentan. Deitu telefono honetara: 618 08 67 49.

4/ LANA**401. ESKAINTZAK**

Aretxabaleta. Batxilergo mailako matematikako eskola partikular emateko pertsona bat behar da. Deitu telefono honetara: 695 72 79 55.

Arrasate. 40 urtetik gorako emakume beharko genuke haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 656 74 97 11.

Arrasate. Emakume behar da etxeko lanak egiteko 11:15etik 14:15era. Deitu telefono honetara: 630 98 08 57.

Bergara. 6 eta 9 urteko bi ume zaintzeko pertsona euskalduna behar da. 16:30etik 20:30era. Gaez deitu. 628 48 52 34.

ANGIOZAR

Ortzi erretegia alokatzen da. 943 78 22 80 665 72 24 46

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Mutil bat naiz eta gertu edozein lan egiteko. Deitu telefono honetara: 685 77 73 92.

Arrasate. Emakume euskaldun batek umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Deitu telefono honetara: 659 82 72 18.

Arrasate. Emakume bat naiz eta prest nago etxeko lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko... Isabel deitzen naiz eta deituahal duzue telefono honetara: 628 35 41 00.

Bergara, Antzuola. Emakume boliviarr bat naiz eta etxeko lanak egin eta zaharrak zainduko nituzke. Informaek ditut. Cintia. Deitu telefono honetara: 626 36 92 54.

Bergara. Argiketari instaladorea eta argiketari laguntzailea behar dira. Deitu telefono honetara: 651 70 72 40.

Bergara. Argiketari instaladorea eta argiketari laguntzailea behar dira. Deitu telefono honetara: 651 70 72 40.

Bergara. Emakume bat lanerako gertu. Mari Mar deitzen naiz. Deitu telefono honetara: 607 90 70 61.

Bergara. Emakume bat naiz eta gertu garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko, 14:00etatik 16:30ak arte. Deitu telefono honetara: 649 34 62 41.

Bergara. Gaztea bat naiz eta edozein motako lan egiteko, ahal bada zerbitzari moduan. Deitu telefonora: 649 34 62 41.

Bergara. Irakasle ikasketak egiten ari naiz eta zapatueta baita ere zerbitzari lanak egingo nituzke. Telefonoa: 679 15 31 65.

Bergara. Neska edozein lan egiteko gertu: garbiketarak, nagusiak edo umeak zaintzen, zerbitzari... Esperientzia eta informea. Deitu telefono honetara: 663 46 93 60.

Debagoiena. Emakumezko bat eskaintzen da egunez zein gaez etxe baten lan egiteko, adindua zaintzeko eta garbiketarak egiteko, besteak beste. Nati. Deitu telefono honetara: 656 76 78 12.

Debagoiena. Neska bat naiz eta lanerako prest ordutua egiteko, sukalde laguntzaile edo garbitzaile. Deitu telefono honetara: 665 75 52 11.

Debagoiena. Pertsona bat ostalaritzan lan egiteko prest. Baita sukaldari ere. Deitu telefono honetara: 666 00 52 12.

ARRASATE

Arrasateko publizitate-agentzia batek KOMERTZIALA behar du Gabonetako kanpainarako.

Eskatzen da: • Esperientzia
• Auto propioa

Eskaintzen da: • Berehala lanean hastea
• Soldata (Adosteko)
• Bazkide moduan sartzeko aukera
• Lanaldi osoko dedikazioa

Interesatuok bidali kurrikulum-a
marketing@publidenak.com helbidera.

OÑATI

Baserrira salgai
943 78 14 72

ARRASATE

Plazan dagoen Zuk Nahi taberna alokatzen da. 618 76 34 40 605 76 08 29

5/ IRAKASKUNTZA**502. EMAN**

Aretxabaleta. Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Arrasate. Ingeles eskolak ematen ditut. 943 77 16 90.

Bergara. Eskola partikularrak ematen ditut. Irakasle titulua daukat. 943 76 27 81.

Bergara. Matematika eskolak ematen dira. 943 08 23 65.

Bergara. Neska ingeleseko eskolak emateko gertu. Telefonoa: 607 81 80 29.

Eskola partikularrak ematen dira. DBH, batxilergoa, zikloak, karrerak. Esperientzia handia. 630 71 35 83.

Logopedia. Dislexia, dislalia, disgrafia, kontzentrazioa, idazketa-irakurketa prozesua, ulermen, memoria... Heldekin memoria lantzen dut. Telefonoa: 943 78 13 44.

6/ MOTORRA**601. SALDU**

Ford Escort familiarra. 2.000 euro. 129.000 km. 649 69 33 02. Golf GTI autoa salgai. SS-AF. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

KTM motorra salgai. 400 cc gogorrean. 1997. urtekoa. Oso egoera onean eta matrikulatua. 2.500 euro. 627 42 63 12.

KTM 520 EXC motorra salgai. Matrikulatua. Transmisio kit berria. 679 24 89 72.

Mercedes Vito 112 CDI salgai. Guztiz prestatua. 639 86 88 29.

Opel Astra salgai. GSI 2000. 16v. 150 zaldi. Koni kirol-eskudura. Remus ihes-hodia. Eguzki-sabaia. Gorria. 679 21 35 07.

Peugeot 106 11 autoa salgai. 70.000 km, prezio interesgarria. 699 10 08 58.

Seat 27. 1975koa. Egoera onean. 943 76 46 90.

Volkswagen California furgoneta salgai. 1997koa. Berogailuarekin. 20.500 euro. Telefonoa: 660 83 78 55.

Volkswagen Multivan furgoneta salgai. 8.000 euro. Telefonoa: 636 49 46 87.

ESKORIATZA

Apotzaga auzoan, taberna errentan ematen da. 943 71 49 96

ARETXABAETA

Zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. 647 05 42 75

8/ DENETARIK**801. SALDU**

Bigarren eskuko liburuak salgai. Egoera eta prezio onean. 660 04 77 70.

Bizikleta estatikoa salgai. Modernoa eta berria. 40 euro. Deitu telefono honetara: 943 76 21 96.

Borsini etxeko akordeoia salgai. Egoera onean. 943 76 47 48 edo 600 83 33 81.

Hektarea

hildakoak

- **Manuel Carmona Pozo.** Antzuolan, irailaren 16an. 71 urte.
- **Vicente Diaz Ramirez.** Bergaran, irailaren 17an. 75 urte.
- **Isabel Ortueta Zabarte.** Arrasaten, irailaren 18an. 81 urte.
- **Maria Vicario Prieto.** Arrasaten, irailaren 18an. 72 urte.
- **Felipe Kortabarría Azkarate-Askasua.** Bergaran, irailaren 19an. 84 urte.
- **Manuel Garai Azkarretazabal.** Arrasaten, irailaren 19an. 72 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkarte: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Eskelaren prezioa: 85 euro.

Prezio berezia:
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.




Ines Barquero eta **Miguel Angel Gomez** arrasatearrak Eskoriatzako Apotzaga auzoan ezkonduko dira irailaren 23an. Itsas bidaia egingo dute Karibearen barrena. Familia osoaren partetik, zorionak eta ondo pasa!




Josune Arrospide tolosarra eta **Anartz Azkarraga** arrasatearra Zumarragako Antiguako ermitan ezkondu ziren irailaren 2an. Bazkaria Etxe-Berri jatetxean egin zuten eta bidaian Thailandiara joan dira. Zorionak, Garagartzako eta kaleko lagunaren partetik!



Voli eta **Oliver** zapatuan ezkonduko dira, Arrasateko parrokian. Gero, Eskoriatzan izango dute bazkaria, Mendigoia hotolean. Eta, Karibe aldera joango dira ezkon bidaian, baita Mexikora ere. Zorionak, lagunaren partetik!



Mikel Altuna eta **Veronica Barbero** aretxabaletarrak zapatuan, irailak 23, ezkonduko dira Aretxabaletako udaletxean. Eguna on pasa dezazuela opatuz, zorionak eta muxu handi bana, etxeko guztien eta lagunaren partetik.



Sonia Franco eta **Fran Herzog** bergararrak iaz irailaren 24an ezkondu ziren. Ezkondu zirela urtebete pasa den honetan, gertukoek zoriondu egin nahi dituzte. Zorionak eta urte askotarako, familiako partetik!



Juan Pozo eta **Dolores Sanchez** orain 50 urte ezkondu ziren irailaren 17an. Urriaren 1ean ospatuko dituzte urrezko ezteiak familia guztiarekin bazkaria eginda. Zorionak, eta horrela segi, familiako partetik. Ondo-ondo pasa.

URTEURRENA

Julio Isazelaia Erostarbe

Hirugarren urteurreneko meza domekan, irailaren 24an, 12:50ean, Arrasateko San Juan elizan.



Zure familiak ez zaitu inoiz ahaztuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Teresa Alberdi Garbizu

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 24an, 12:00etan, Osintxuko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Jose Antonio Loiti Agirre

Arrasaten hil zen 2006ko irailaren 12an, 65 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko irailaren 22an.



GRUPO **ARKAUZ**
ARETXABALET A 1950 • 2006 ARRASATE

ARKAUZ ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALET A

ETXE ALTZARIAN
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALET A

ARKAUZ MUEBLES
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALET A

Betiko sukaldearekin asper-asper eginda?
Har ezazu errezeta!
Arkauz etxean ideia berriak emango dizkizugu.

Arkauz zure etxea da.

FAGOR banatzaile ofiziala



KAFE ANTZOKIA
espaloia
ELGETA
www.espaloia.com

Astegunean: Eguneko menua

Asteburuetan: Ogitartekoak, plater konbinatuak...

Yllana taldearen "Star Trip" antzezlan
Irailak 22, barikua,
22:30

Aukeran taldearen "bideak" dantza emankizunaren estreinoa
Irailak 29, barikua
22:30

STAR TRIP

aukeran dantza konpainia
compañía de danza aukeran
BIDEAK

Montaje de zuzendaria y coreografía y dirección: EDU MURUMENDIARAZ

Leire Lardizabal > Kazetaria

"Nire ametsetako bat da trailer baten gidari izatea, eta ez dut albora utzi"

Leire Lardizabal arrasatearra buru-belarri dabil euskalgintzan eta kazetaritzan. Arrasateko AEKn irakasle lanetan ibili da, aspaldian Aretxabaletako Loramendi euskara elkar-

teko AEKn irakasle lanetan ibili da, aspaldian Aretxabaletako Loramendi euskara elkar-

tean kultura eragile lanak egiten dabil, Fagorreko euskara taldeek abiarazten duten *Geurean* hilabetekaria koordina-

tzan du eta *Mondraberry.com* webgunean hastear da.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Leire Lardizabal arrasatearra hara eta hona ibiltzen da beti. Halako baten, gelditu egin dugu, eta zertan dabilen galdetzeko berarekin jarri gara mahai baten bueltan.

Zer izan gura zenuen nagusitan?

Haurreskolan, amantala buruan jarri eta moja izan gura nuela esaten nuen. Orduan asmo hori neukan. Aurrerago nire ametsa bilakatu zen trailer gidari izatea, eta oraindik ere gurako nuke.

Formala zinen txikitatzen?

Oso formala. Ikastolan horz-kadak egiten zizkidan ikaskide batek. Horren ostean ikusi nuen espabilatu beharra zegoela.

Non jaio zinen? Goierrirekiko gertutasun handia daukazu...

Donostian jaio nintzen, eta lehenengo hilabetea Zegaman egin nuen. Beti esaten dut Zegamakoa naizela, gurasoei Arrasaten ez ziztelako utzi nire jaiotza-agiria egiten. Ama Zegamakoa eta aita Segurakoak ditut. 17 urte bete nituen arte, astebururo Zegamara joaten nintzen. Orain lotura txikiagoa daukat, baina han koadrila daukat oraindik eta Goierriko jai guztiak ezagutzen ditut. Neurri handi baten, goierritartzat daukat nire burua.

Ikus-entzunezkoak ikastea oso argi zenuen?

Hasieran, Euskal Filologia ikasi gura nuen, baina gurasoek aholkatu zidaten beste zerbaite ikasi eta Euskal Filologia nire kabuz egiteko. Batez ere etxetik kanpo joateko gogoia nuen, neure kasa bizi izaten ikasteko. Gaur egun Euskal Filologia baino gehiago, Historia edo Antropologia ikasiko nituzke.

AEKn irakasle lanean ibili zinen, ezta?

Bai. 19 urterekin, lotsatuta, AEKra deitu nuen nire burua irakasle moduan eskaintzeko. Leioatik joan eta etorri egiten nintzen, eta hor piztu zitzaidan euskararen gaineko kontzientzia. Horrez gain, 2004-2005 eta 2005-2006ko ikasturteetan berriro bueltatu nintzen. AEKn oso giro berezia dago, eta jendea euskalduntzeko ahaleginak asko betetzen nau.

Egin duzu inoiz lan fabrikaren baten? Aspalditik *Geurean* aldizkaria egiten zabilta...

Ez dut inoiz fabrika baten lan egin. Gurago dut sortzea eskatzen



IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 26 urte. **Zaletasunak:** Txikiteoa eta jendearekin egotea. **Betetzeko daukazun amets bat?** Euskal Herri askean guztiok aske izatea. **Inoiz diskriminatuta sentitu zara emakumezko izateagatik?** Komentario matxistak entzun ditut, bai-

na erantzuna eman dut beti. **Gizateriaren asmakuntza handiena?** Morse kodea. **Maniaren bat badaukazu?** Bai, esnegaina ezin dut jasan. **Debagoieneko txokorik politena?** Aitxorrotx. **Ibarreko jairik onena?** Arrasateko Santamasak ikaragarriak dira.

dudan lan bat egin eta leku baten geldi ez egon. 4 bat urte daramat hileroko *Geurean* egiten. Euskara taldeek asko laguntzen didate.

Oraindik gogoan daukat fabrika batera sartu nintzen lehenengo aldia, Fagor Garagartzan. Han barruan zortzi ordu egiten dituztela pentsatzeak ikaratu egin ninduen. Baina, dagoeneko, ohitu egin naiz.

Askotan AEDn ikusten zaitugu eta aspaldian Aretxabaletako Loramendi euskara elkartean kultura eragile ere bazabiltza...

Bai, euskalgintzan oso gustura nabil. Euskararen kontura bizi garela diote, baina halako elkarrean indarra ematen duena ez da eragilea, baizik eta inguruan gauzak egiteko gogoarekin ibiltzen den jende guztia. Ibarrean herritarren inplikazioa txikitzen ikusten dut arlo guztietan, eta horrek asko kezkatzen nau. Euskal Herriarekin aurrera egiteko derrigorrezkoa da gugandik gehiago jartzea.

Aretxabaleta ondo ezagutuko duzu, aurretik tabernari ere ibili zinen-eta.

Bai, euskalgintzaz gain, ostalaritza ere ezagutu dut. Arrasateko Iluntz tabernan eta Kanpazar erretegi lanean ibili nintzen, eta baita Aretxabaletako Urbaltz tabernan ere. Orduan arte Aretxabaleta parranda giroan bakarrik ezagutzen nuen. Oso ondo hartu ninduten, eta jende asko ezagutu dut. Aretxabaleta herria gustuko dut, eta gustura asko bizi izango nintzateke han.

Mondraberry.com webgunean lanean hastear zaude. Ondo moldatzen zara teknologia berriekin?

Lehen, ordenagailuak gorroto nituen, baina dagoeneko horien eta poltsikoko telefonoen mende bizi naiz, eta ohituta nago. Esperientzia moduan hartuko dut lan berria, ilusioarekin. Hala ere, aitortu behar dut egia dela AEKn eskolak emateari uzteak pena ematen didala.

Berria egunkarirako ere hainbat lan egin dituzu...

Bai. Orain dela bi urte hasi nintzen *Berria*-rendako gehigarriak egiten. Tarteka egiten ditut, eskatzen dizkidatenean: jaien gainekoak, eta abar. Horrenbeste gauza desberdin egiten ditut, ohitu egin naiz. Egia esanda, *saltsan* ibiltzea eta jendearekin egotea asko gustatzen zait.



**Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak
LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK (%100-a subentzionatuta)**

Ikastaroak	Orduak	Aurreikusitako datak
FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA (2. maila)		
Modulua : Fabrikazio mekanikoko makinaren prestaketa eta programazioa (275 ordu)		
CNC tornuaren programazioa	40	2006 azaroa
CNC tornuaren prestaketa eta programazioa	40	2006 azaroa
CNC fresatzeko makinaren programazioa	46	2007 otsaila
CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa	46	2007 martxoa
Modulua : Fabrikazio mekanikoko sistema osagarriak (110 ordu)		
PLCen programazioa	60	2007 apirila
Roboten programazioa	20	2007 martxoa
Modulua : Txirbil-harroketa bidezko fabrikazioa (300 ordu)		
Mekanizatua torno konbentzionalean	80	2006 urria
CNC tornoko mekanizazioa	50	2007 urtarrila
CNC fresatzeko makinako mekanizazioa	50	2007 apirila
METAL - ERAIKUNTZAK (2. maila)		
Modulua : Giro naturaleko soldadura (310 ordu)		
Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura	80	2006 azaroa
Elektrodo estali bidezko topekako soldadura	80	2006 abendua
Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura	80	2007 urtarrila
Modulua : Giro babestuko soldadura (215 ordu)		
Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura	50	2007 martxoa
Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura	50	2007 apirila
Posizio horizontaleko TIG soldadura	50	2007 maiatza
Beste posizio batzuetako TIG soldadura	50	2007 maiatza
METAL - ERAIKUNTZAK (3. maila)		
Modulua : Metal-eraikuntzen irudikapena (240 ordu)		
CAD. Metal-eraikuntzen irudikapena (Solid Edge)	60	2007 apirila
TRESNERIA ELEKTRONIKOAK (2. maila)		
Modulua : Telebista tresneria (170 ordu)		
Telebista-seinaleak banatzeko sistemak muntatzea eta mantentzea	80	2007 otsaila
Telebista-tresneria mantentzea	80	2007 apirila
Modulua : Oinarrizko instalazioak (110 ordu)		
Etxebizitzaren eta merkataritzako lokalen barruko instalazioak	60	2006 azaroa
Modulua: Elektronika digitala eta mikroprogramagarria (200 ordu)		
Sistema digital sekuentzialak	45	2007 otsaila
Sistema digital mikroprogramagarriak	80	2007 apirila
SISTEMA ETA TRESNERIA ELEKTROTEKNIKOAK (2. maila)		
Modulua: Elektroteknia (150 ordu)		
KZ eta Kako zirkuituak	60	2007 otsaila
AUTOMOZIOA (2. maila)		
Modulua : Motorren sistema osagarriak (270 ordu)		
Gasolina-motorren elikadura- eta pizte-sistema elektronikoak.		
Mantentzea, egiaztapena eta konponketa	60	2007 otsaila
Diesel motorren elikadura- eta gainelikadura-sistemak (TDI, COMMON-RAIL, INJEKTORE/PONPA...). Mantentzea, egiaztapena eta konponketa	60	2007 apirila
Modulua : Motorrak (160 ordu)		
Aldiko diesel motorrak. Mantentzea, egiaztapena eta konponketa	40	2007 urtarrila
Katalogoz kanpoko Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak		
Burdinazko materialetarako galdaketako metalurgia	50	2007 apirila
Burdinazko ez diren materialetarako galdaketako metalurgia	50	2007 maiatza

Ikastaroak arratsaldeko 16:00 eta 21:00 artean emango dira
Informazio gehiago eta inskripzioak IEFPS Aretxabaleta GLHBI , Etxebarri auzoa, z/g Tfn.: 943-79 79 00
Posta-e: ia@iaretxabaleta.com



Europar fondo soziala



berriak

> PROGRAMAZIOA

'Astekoak': asteko albiste errota asteburuan

Astelehenetik egubakoitzera Debagoienean albiste izan direnak bildu eta modu laburrean eskaintzen dizue *Aste-koak* saioak.

Bada, saioa ikusteko aukera zabala eskaintzen dizue Goiena Telebistak aste bukaeran: larunbatean 14:30ean eta 22:30ean; eta domekan, 11:15ean eta 17:15ean. Hain zuzen ere, begi-kolpe batean asteari gainbegiratu.

> GOITB

'Ilunpean' saioan Rafa Rueda musikariari elkarrizketa

Ilunpean saioaren emanaldi berria prestatzen ari dira Goiena Telebistan. Urrian hasiko dira ikasturte berriarekin.

Hil honetan, *Ilunpean* saioan izan ditugun azken elkarrizketak errepikatzen ari dira. Gaur bertan, Oihana Elortza kazetari onatarrak Rafa Rueda musikariari egindako elkarrizketa eskainiko dute. Hitzordua 22:15ean duzue.

> ARRASATE IRRATIA

Jokin Zaitegi idazlea berba 'Asteko gainbegiratu'-n

Eguenean omendu zuten Arrasateko idazle eta itzultzaile Jokin Zaitegi, jaioterriari. Aurtengo uztailean 100 urte bete dira Jokin Zaitegi jaio zela.

Ospakizuna aitzakia hartuta, Edurne Zaitegirekin, Zaitegiren lobarekin izan dira irratikoak, eta baita Udaleko Euskara teknikari Joxe Felix Diaz de Tuestarekin ere. *Aste-ko gainbegiratu*-n izango duzue berriz ere entzungai.

> ARRASATE IRRATIA

Datorren astean agurtuko dugu 'Uda giroan' saioa

Bihar, zapatua, goizeko 06:00etan sartuko gara udazkenean. Arrasate Irratian, baina, *Uda giroan* saioarekin jarraituko dute hilabetea bukatu bitartean. Urrian sartu orduko uhineratuko dugu 107.7 FMko autobusa.

Datorren asteari begira, Pello Zabalaekin martitzeneko egin dute hitzordua, besteak beste. Era berean, Donostiako Zinemaldiaren berri jasotzeko aukera izango duzue.

'16 MM' > EGUENA, 22:45

Ane Muñoz Mitxelena zuzendariaren 'Basurdea'

Istorioren benetan bitxia kontatzen digu Ane Muñozek 2002. urtean ekoiztutako film labur horretan

GOIENKARIA > ARRASATE

Ane Muñoz hondarribiarraren *Basurdea* film laburra eskainiko dute 16mm saioan. Mikel eta Joxi arrantzaleek basurde bat topatu dute mendian, perretxiko bila zebiltzala. Ustekabeko topaketa horrek odolez, izerdiz eta lokatzez bustitako abentura gogor eta neketsura bultzatuko ditu. Aktore lanetan aurpegi ezagunak daude: Anartz Zuazua, Xinboren Alkain eta Ernesto Barrutia. Eguenean duzue hitzordua, 22:45ean. Amagoia Lasagabasterrek Ane Muñozekin elkarrikeria eskainiko dute film laburraren ostean.

ANE MUÑOZ *Basurdea* film laburraren zuzendaria.

GOIENKARIA

'BEHAZULO' > EGUBAKOITZA, 20:45

Gure aitona-amonon sukaldetik hasi eta gaurko ohitura berrietara

GOIENKARIA > ARRASATE

Euskal Herria eta gastronomia eskutik doazela esan dezakegu. Eta gurean jateak duen garrantzia kontuan hartuta, Goiatz Arana kazetariak elikaduraren gaia landuko du *Behazulo* saioan. Hain zuzen ere, aurrez aurre

izango du elikadura gaietan aditu Edorta Agirre.

Gure herriko gastronomia zein norabide hartuko duen edota etorkizunean etxeetan sukaldetik egongo ote den galdetuko diogu Agirrerri. Elkarrikeriaz gain, baina, errepor-

tajea ere landu du Goiatz Aranak. Oraingoan, Aretxabaletako Gertu enpresara hurbilduko gara. Aurrez prestatutako jakiak saltzen dituzte bertan, eta negozio horren nondik norakoak ezagutuko ditugu Sonia Morales langilearen eskutik. Horrelako saltokiak asko ugartu dira azkenaldian gure ibarretan. Prest gaude sukalden orduak sartzen ibili baino lehen, beste batek prestatutakoa ordaintzera.

Behazulo saioa gaur bertan ikusi ahal izango duzue, 20:45ean, Goiena Telebistan.

telebegi

Edu Mendibil > www.goiena.net/blogak/edu

Pisuzko modelook

Badira egunak hobe dela telebista itzaltzea. Herenegen gauean, esaterako: *Perdidos* TVE1en (lehen denboraldia duela bi urte bota zuten eta galduta ikusleak orain), pilota badakizue non, *Nip-Tuck* zirujau beldurgarriak ETB2n, Ana Obregonen itzulera (!) Antena 3n... Panorama ikusita, onena *Supermodelos* (Cuatro) *reality-showa*. Cibelesen ez bezala, pisuaren galbahetik kanpo geratu dira etxe *chic* horretan sartutako modelook (*anchita* deitu zioten bati!). Baina ez dute bide erraza pasareletara heldu bitartean. Judith Masco aurkezleak esana: House doktoarearen komentarioek baino beldur handiagoa sortzen dute Valerio estilistaren ziztadek. Bere lankide den Cristinarekin ere badu lana Valeriok... Nesken sufrimenduak ez du amaierarik: elkarren arteko ika-mikak, ilea mozteagatik etengabeko negarra...

Reality-ekin pagotxa ona daukate gaur telebista kateek. Baietz etorkizunean Barça, Milan, Chelsea, Real Madrid eta antzerako futbol ekipoen udako fitxaje galaktikoak horrela erabaki... Capello *estilista* paperean eta Michel edo beste guaporen bat aurkezle lanetan.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu. Sebastian Uribetxebarriarekin, Kolonbiako San Clemente proiektuaren gainean; Jokin Zaitegiren gainean. Edurne Zaitegi eta Joxe Felix Diaz de Tuestarekin; Markel Irizar txirrindularia; Nekane Larrañaga AFAGIko gizarte laguntzailearekin, Alzheimer gaixotasunaren gainean...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Bidaien tartea
Elkarrizketak
Donostiako Aquarium-erako bisita
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Uda Giroan! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

GOITBko
programazioa**Egubakoitza, 22**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 MKT. 14:45 Berriak. 15:00 Iparorratza.. 15:45 Gaurkoak.. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klip@. 16:45 Berriak. 17:00 Erreortajea. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:00 Klip@. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Bihurkorak. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Behazulo. 21:15 Gatz eta berakatza. 21:30 MKT. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Gaurkoak. 22:47 Sustrai. 23:15 Izan ziren. 23:30 Eltze beroa. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

Zapatua, 23

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak, Nonochan, Bihurkorak eta Snorkeldarrak. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Eltze beroa, sukaldaritza saioa. 12:15 16 mm. 12:45 Iparorratza. 13:45 Harmailatik. 14:15 Klip@: musika taldeen bideo klipak. 14:30 Astekoak. 14:45 Behazulo. 15:15 Izan ziren. 16:00 Erreortajea. 16:30 Gatz eta berakatza. 16:45 MKT. 17:15 Elkartasunaren bideoak. 17:45 Marrazki bizidunak, Snorkeldarrak eta Bihurkorak. 19:15 Eltze beroa. 19:30 16 mm. 20:00 Behazulo. 20:30 Zera dio eta Motzean. 20:45 Ilunpean. 21:15 Teknopolis. 21:45 Izan ziren. 22:00 Astekoak. 22:15 Elkartasunaren bideoak. 23:15 Erreortajea. 23:45 Emisio amaiera.

Domeka, 24

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak, Snorkeldarrak, Nonochan eta Bihurkorak. 11:00 Klip@. 11:15 Astekoak. 11:30 Iparorratza. 12:00 Erreortajea. 12:30 Izan ziren. 13:00 Gatz eta berakatza. 13:15 Elkartasun bideoak. 13:45 Klip@. 14:15 Marrazki bizidunak, Snorkeldarrak. 15:45 Ilunpean. 16:15 Behazulo. 16:45 16mm. 17:15 Astekoak. 17:30 Marrazki bizidunak. 18:45 Klip@. 19:15 Iparorratza. 19:45 Erreortajea. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean. 21:00 16mm. 21:30 Behazulo. 22:00 Izan ziren. 22:15 MKT/Klip@. 23:00 Teknopolis. 23:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 25

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klip@. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Erreortajea. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Klip@ eta MKT. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klip@. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Harmailatik. Asteburuko futbol emaitzen errepaso. 21:15 Gatz eta berakatza. 21:30 MKT. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 22:47 Erreortajea. 23:15 Izan ziren. 23:30 Eltze beroa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 26

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Klip@. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasunaren bideoak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klip@. 16:45 Albisteak. 17:00 Jazz mintegia. 17:30 Danbako. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Behazulo. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albisteak. 19:00 Klip@. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Gaurkoak. 20:47 16mm. 21:15 Gatz eta berakatza, sukaldaritza saioa. 21:30 Izan ziren. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 22:47 Behazulo. 23:15 MKT. 23:30 Eltze beroa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 27

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire mahai-ingurua. 14:15 Danbako. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 16mm. 16:15 Klip@. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Klip@. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klip@. 19:15 Erreortajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Erreortajea. 21:15 Gatz eta berakatza. 21:30 MKT. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Gaurkoak. 22:47 Elkartasunaren bideoak. 23:15 Izan ziren. 23:30 Eltze beroa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 28

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Klip@. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Sustrai. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klip@. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideoak. 18:15 Iparorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klip@. 19:15 Erreortajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Teknopolis. 21:15 Gatz eta berakatza, sukaldaritza saioa. 21:30 MKT musika saioa. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 22:47 16mm. 23:15 MKT. 23:30 Eltze beroa, sukaldaritza saioa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.



BAT EGINDA Komunikazio talde askotariko ordezkariak batu dira euskarazko telebistak sortzeko.

ARGAZKI PRESS

TELEBISTA > HAMAIKA TELEBISTA HEDATZEKO TALDEA SA AURKEZTU DUTE

Euskarazko tokiko telebistak sortzeko enpresa aurkeztu dute

Euskarazko tokiko telebistak sortzeko enpresa berria aurkeztu dute oraingo astean; Bilbon aurkeztu dute martitzenean, gonbidatu askoren aurrean

ENEKO AZKARATE > BILBO

Euskal Herriko sei eragilek osatu dute enpresa, helburu honekin: tokiko telebista digitalaren erronkari eustea eta, ondorioz, euskarazko toki telebistak sortzea bai hiriburuetan eta baita eskualdeetan ere.

Euskal Herriko sei eragilek osatu dute enpresa: batetik dau-de EKT (*Berria*), EKHE (*Le Jour-*

nal eta *Gara*) eta CMNtv (*Deia* eta *Noticias* taldeko egunkariak). Komunikazio talde bakoitzak enpresaren %20 du enpresa horretan. Bestetik daude Argiñano sukaldariaren Bainen produkzio-etxea eta Elkar argitaletxea -%10na dute-, eta, azkenik, Euskaltelek beste %20 du. Enpresa berriaren izena da Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea SA eta zuzendari nagusia Iñaki Uri izango dela zabaldu da hainbat hedabidetan, datu hori martitzeneko aurkezpen ekitaldian publiko egin ez zuten arren.

"POSIBLE DA, EZ DA EZINEZKO"

Iñaki Altzagak CMNtv taldearen izenean zera esan zuen: "Tokiko telebista digitalen lizentziak banatzen diren lehiaketetara aurkeztea izango da lehen urratsa eta behin telebista batzuk eskualdeetan zabaltzen direnean, orduan

hasiko dira telebista horiek hornitzeko programa eta informatibo komunak ekoizten". Joanmari Larrartek (EKT), ostera, mezu hau bidali zien heritarrei: "Euskaraz telebista egitea posible da. Zaila da, garestia da, denon esfortzua eskatuko du... Baina posible da. Ez da ezinezko".

BARRUTI BAT, KATE BAT

Eusko Jaurlaritzak prestatzen dihardu tokiko telebista digitalak arautuko dituen dekretua. Behin legea onartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan tokiko telebista digitalak ezartzeko lizentziak eskuratzeko aukera izango da eta enpresa berriaren helburua da 15 telebista barrutitan euskarazko kate bana ziurtatzea. Horretarako, eskualdeetako euskalgintza nahiz beste eragile sozial eta kulturekin elkarlanean jardun nahi du.

INTERNET > BLOGAK IRUDI BERRIAREKIN

Blog komunitatea itxura berrituta 'Goiena.net'-en

Bitakora sistema erabiliko dute, besteak beste, spama galarazteko

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Sistemaz aldatu dituzte *Goiena.net*-eko blog guztiak. Hain justu ere, Code&Syntax enpresa eibartarrak garatutako bitakora plataformara aldatu dituzte orain *Goiena.net*-eko blogak. Aldaketa horretan garrantzi handia izan du azkenaldian

jasan duten spam inbasioak. Spamak dira eskatu gabe iristen diren mezuak. Spamatzaileek posta elektronikotik blogetara salto egin dute orain. "*Goiena.net*-eko blogen lehengo plataformak ez zuen spam mezuen aurkako aplikazio garaturik. Oraingo plataformarekin hori konpondu nahi izan dugu", diosku *Goiena.net*-eko Usoa Agirrek.

Beste hobekuntza batzuk ere eragin ditu berrikuntzak: blogariei editatzeko modua errazten die sistema berriak.



BERRITUA Itxuraldatuta agertu zaizkigu blogak *Goiena.net*-en

GOIENKARIA

> INTERNET

Musika doan eskuratzeko aukera eskainiko dute bi musika multinazionalak: Universalek eta EMIk

Universal eta EMI musika konpainiek doan emango dute euren katalogoko musika. Horrekin, aurre egin nahi diete pirateriari eta Apple-ren I-tunes programari. Bi konpainiek munduko musika merkatuaren erdia kontrolatzen dute. Internet bidez eskuratu ahal izango da musika SpiralFrog-en. Baina, horretarako, jais-ten den abestiaren publizitatea entzun beharko da minutu eta erdiz.

> INTERNET

Bideo jokoan gaineko webgune bat da Euskadiko bisitatuena eta 'Sustatu.com' euskarazkoen liderra

Bisita gehien jasotzen dituzten Euskadiko webguneen rankinga egin dute eta bideo jokoan gaineko bat dago gorenean: *JuegosJuegos.com*. Bestalde, *Sustatu.com* da euskarazkoen artean goren dagoena: 30. postuan hain justu ere. *Berria.com* dago 40. postuan eta *Eibar.org* 41.ean. *Goiena.net* dago 126. postuan. Ameriketako Estatu Batuetako enpresa batek, Alexa izenekoak, daroa webguneen bisiten kontrola eta horren arabera egin dute rankinga.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-mail onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza


www.goiena.net/blogak



/4quattro4	/BZ-sistemas	/ezkutuorly	/gutzieder	/multiopticas	/udalax
/argi-plastik	/dragon-oriental	/gallastegi	/irudisport	/ohiak	/udalaitz
/arregi	/dukiena	/ganesha	/korozabaleta	/okipark	/urdeki
/atai	/ego	/garaia	/maulanda	/vitoria	/markiegi
/azkarate	/elejalde	/gorkagarai	/mayte	/pando	/urbiet
/joseba		/gorkataxi	/merkeopari	/richimaier	

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com.



Irailak 22-29

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Txotxongiloak



ARAMAIO

> Denok ikusteko moduko txotxongilo emanaldia izango da gaur, egubakoitza

Txotxongiloak Araban programaren barruan, El Tenderete taldeak *Gazapoen istorioak* izeneko txotxongilo saioa egingo du herriko plazan, 18:00etan. Lagunak egin nahi dituen erbikume bat eta sorgin bat dira protagonistak.

Dantza



BERGARA

> Dantza aske txapelketa jokatu dute San Martin jaiak bukatzeko

San Martin Agirre jaiak bukatzeko, bikote helduendako Moises Azpiazuren oroimenezko 22. dantza aske txapelketa jokatu dute gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 19:30ean. Abarka dantza taldeak antolatzen du.

Antzerkia



ELGETA

> 'Star Trip' komedia zoroa antzetzuko du Yllana taldeak gaur, egubakoitza

Yllana taldearen antzezlanek arrakasta handia izan dute Elgetan. Orain, *Star Trip* ikuskizunarekin datoz. Espazioan 50 urtean dabilzan astronauta batzuk eta euren asmo okerrak dira protagonista. Emanaldia 22:30ean hasiko da.

zuri-beltzean. 200, 150 eta 100 euroko sariak daude.

Urriaren 20a baino lehen utzi behar dira lanak udaletxean edo kultura etxean.

Ikuskizunak

ELGETA

> 'Bideak' ikuskizuna estreina-tuko du Aukeran taldeak

Aukeran dantza taldeak *Bideak* lana estreinatuko du. Debagoieneko estreinaldia izango da. Espaloia antzokian egingo dute emanaldia hilaren 29an, egubakoitza, 22:30ean.

Sarrerak salgai daude Espaloia antzokian bertan.

Erakusketak

BERGARA

> Kirol argazki lehiaketako lanen erakusketa

Bergarako 22. Kirol Argazki lehiaketako lanak erakusketan ipiniko dituzte gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. Urriaren 1era arte izango da zabalik.

Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:30-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:30-21:30; domeketan, 12:00-14:00.

OÑATI

> Oñatiko ermita eta dorretxeen errepliken erakusketa

Joxe Urtzelaik Oñatiko ermiten eta dorretxeen egurrezko erreplikak, erliebezko koadroak eta maketak dauzka erakusketan hilaren 28ra bitartean, kultura etxean.

Bisita ordutegia: egunero, 18:30etik 20:30era.

BERGARA

> Ageriko margo lehiaketako lanen erakusketa dago

33. Ageriko Margo lehiaketako lanak ikusteko parada dago irailaren 30era bitartean kultura etxeko erakusketa aretoan. Beart elkarteak antolatzen du.

Ordutegia: astegunetan, 18:00-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00.

ARRASATE

> Eskolako Agenda 21 proiektuaren gaineko erakusketa

Eskolako Agenda 21 proiektuaren barnean ikasleek sortutako hainbat material erakusketan ipini dituzte.

Harresi aretoan, hilaren 25era arte.

Bestelakoak

ARRASATE

> Bertso bazkaria egingo dute Ikerlaneko langileek

Ikerlan lantegiko euskara batzordeak bertso bazkaria antolatu du gaurko, egubakoitza, Aramaioko Iturrieta sagardotegian, 14:30ean.

Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio bertsolariak izango dira han.

Antzerkia

ELGETA

> 'Star trip' antzezlanaren egingo dute Espaloia antzokian

Ohiko umore garrantzarekin eta ironiarekin, Yllana taldeak *Star trip* ikuskizuna egingo du Espaloia antzokian. Oraingoan, protagonistak astronauta bitxi batzuk dira, misio batekin: unibertsoan bizitza adimenduna aurkitu... eta berau akabatu. Sarrerak salgai daude dagoeneko antzokian bertan, ohiko salneurrian.

Antzerkia hilaren 22an, egubakoitza, izango da.

ARRASATE

> 'Emetik' bertso kabareta egingo dute gaur

Emakume Txokoak ikasturtea hasiko du. Horregatik, *Emetik* izeneko bertso-kabaret emanaldia antolatu dute. Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Oihane Perea bertsolariak antzetzten dute.

Gaur, egubakoitza, herriko plazan, 19:00etan.

ARRASATE

> Talde ez profesional batek antzezlanaren egingo du

Mutrikuko talde ez profesional batek, Goizeko Izarrak, *Kanpokoekin uso, etxeokoekin...* delako antzezlanaren egingo du. Familia baten gorabeherak kontatzen ditu komedia horrek.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan.

Musika

ARRASATE

> 3.60 aretoko eskaintza asteburu honetarako

Honako musika emanaldiak izango dira asteburu honetan: Arkada Sozial, Aggressive

Combat eta Enboskada taldeak (gaur, egubakoitza, 22:30ean) eta Mansillarock-en emanaldia (bihar, zapatua, 03:00etan).

Datorren astean, Anari eta Sorkunen emanaldia izango da.

BERGARA

> Brujeria taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan

Brujeria Mexikoko heavy metal taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan. Hora Zulu taldeak ere joko du. Sarrerak salgai daude 23 eurotan ohiko lekuetan eta txarteldegian.

Gaur, egubakoitza, 20:30ean.

OÑATI

> The Hot Dogs taldeak kontzertua egingo du gaztelekuan

Urretxuko The Hot Dogs rock taldeak musika emanaldia egingo du Oñatiko gaztelekuan.

Bihar, zapatua, izango da kontzertua.

BERGARA

> Dantzarako musika jaialdia izango da Jam aretoan

Bassreaction, Khronic eta Meatakak antolatutako dantzarako musika jaialdia izango da Jamen. Honakoek parte hartuko dute: V. Kanzyani (Eslovenia), Agent (Txekia), Kike Pravda (Gasteiz), Damon Jee (Frantzia) eta Koldo Intermusic (Donostia). Sarrera 20 euro da.

Bihar, zapatua.

Lehiaketak

DEBAGOIENA

> Euskadiko argazki zaharren lehiaketa, KZguneetatik

Euskadiko 1975 aurreko argazki lehiaketa antolatu du Eusko Jaurlaritzak, eta KZguneetatik parte har daiteke horretan. Trolley maletak,

reflex kamera digital bat eta belaunaldi berriko bideo-kamerak dira sariak.

Argibideak: www.kzgunea.net.

DEBAGOIENA

> 'Gomendatzen dizut...' lehiaketan parte har daiteke

Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuek antolatutako gomendio lehiaketan parte har daiteke. Oporren gaineko aholkuak eta argazkiak eskatzen dituzte.

Mugaeguna, irailaren 28a. Argibideak: www.aizue.com.

ARAMAIO

> Aramaioren gaineko argazki lehiaketa deitu du Udalak

Aramaioren gaineko argazkiak behar dituzte udal argitalpenetarako (egutegiak, eskuorriak eta beste batzuk). Norberak nahi adina argazki aurkez ditzake, koloretan edo

PROPOSAMENA

BERGARA

> Astronomiarekin lotutako bi ekintza dibertigarri

Ilatargi Astronomia Taldeak sari asko irabazitako bi ikuskizun antolatu ditu biharko, zapatua. Eguerdian, Esteban Esteban astronomia ikasle seataoarrak berak asmatu eta egindako eguzki-erlojuak erakutsiko ditu, eta zelan dabilzan azaldu.

Arratsaldean, 19:00etan, magia zientifiko saio dibertigarria egingo dute Ivanovich magoak eta bere laguntzaileak. Hau ere Estebanek antolatzen du.

Erakusketa, Seminarioko patioan; magia saioa, Agorrosingoa aretoan.



nire aukera



Iñigo Ramirez de Okariz
Zinegotzia, irakaslea, idazlea
Antzuola

"Piratas del Caribe' ikusten disfrutatu nuen"

Aurreko domekan Aiherran (Behe Nafarroa) egon ginen antzuolarrak, 900 bizilaguneko herrian. Antzuolak 22 urte bete ditu elkartasunean aihertarrek biltzen eta elkar trukatzeko. Iparraldean nahiz hegoaldean bizi garen euskaldunon artean, eta honetako ekintzak gehiago egin beharreko ariketa ona direla pentsatzen dut. Jolasa, musika, dantza, belaunaldi desberdinen arteko harremana, eta, nola ez, kezken trukaketa egiten ere saiatu ginen aurreko domekan.

Zein urtaro duzu gogokoen?
Bat aukeratzekotan, udaberria. Iluntasun, hotz eta isiltasunaren ondoren, argia, beroa eta bizia datozelako. Bepizte bat bezala da udaberria.

Estresaren aurkako zure erremedioa?

Astean edo urtean zehar pertsona asko, proiektu asko eta arazo, nola ez, dezente aurkitzen ditut. Asteburura saturatuta eta desgaste handiarekin iristen naiz, eta ohitura dut etxean egon edo mendian lasai ibiltzeko. Beraz, asteburuetan ez naiz bate-re pertsona soziala izaten.

Nora bidaiatuko zenuke?

Islandiara joan nahiko nuke. Natur-zaleen paradisu da, bertan ura, izotza eta sua direlako nagusi. Baina baita oso garestia ere. Beraz, momentuz, ametsetan jarraitu beharko dut.

Zinema-zalea zara?

Zinema betidanik gustatzen zait, eta ohitura hori berreskuratu nahiko nuke. Seme-alabekin ikusi izan ditut azken filmak. Azkena, *Piratas del Caribe*. Eta, egi esan, disfrutatu egin nuen.

Zinema

ARRASATE MONTERRON PARKEA

La sombra de la sospecha
Egubakoitza: 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Cars

Domeka: 17:00.

BERGARA AGORROSIN

Film laburrak
Martitzena: 19:00.
Eguaztena: 19:00.
Eguena: 19:00.
Egubakoitza: 19:00.

Egunero 5-6 film labur emango dituzte.
Egubakoitzean, hilak 29, Bergarako gazteen lanak emango dituzte.

ELGETA ESPALOA ANTZOKIA

(Zehaztu gabeko zinema emanaldia)
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

El señor de la guerra
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR UNZAGA

El viento que agita la cebada
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

RIALTO

La noche de los girasoles
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena eta martitzena:
19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

Alatriste
17:00, 19:45, 22:30.

La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

La última puerta
17:30, 20:00, 22:30.

Garfield 2
17:00, 18:45.

Algo parecido a la felicidad
20:30, 22:30.

United 93
17:30, 20:00, 22:30.

Monster house
17:00, 19:00.

Piratas del Caribe 2
17:00.

La noche de los girasoles
20:25, 22:35.

La joven del agua
20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

El viento que agita la cebada
17:30, 20:00, 22:30.

El perro mongol
17:30, 20:00, 22:30.

Grizzly man (J.B.A.)
17:30, 20:00, 22:30.

Gracias por fumar
17:30, 20:00, 22:30.

Una casa en el fin del mundo
17:30, 20:00, 22:30.

Salvador
17:00, 19:45, 22:30.

Desayuno en Plutón
17:00, 19:45, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Pequeño pero matón
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Alatriste
17:00, 20:00, 23:00.

Cars
16:30, 19:00.

El mito
16:30, 19:00.

Locos por el sexo
19:00, 22:15, 00:30.

Garfield 2
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Shinobi
16:00, 18:00, 20:00.

A la deriva
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Arena en los bolsillos
22:15, 00:30.

Piratas del Caribe 2
17:00, 20:00, 23:00.

Ciudad sin ley
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Poseidón
22:15, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Alatriste
12:15, 15:45, 18:30, 21:30, 00:30.

Monster house
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

Stay alive
20:05, 22:05, 00:05.

Corrupción en Miami
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

Separados
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Pequeño pero matón
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Piratas del Caribe 2
12:00, 19:00, 22:00.

El viento que agita la cebada
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:25.

Garfield 2
12:15, 16:20, 18:20.

La joven del agua
20:20, 22:35, 00:45.

Ant bully
12:15, 16:05, 18:05.

La noche de los girasoles
22:05, 00:20.

La máquina de bailar
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Mi súper exnovia
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

La última puerta
12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

Piratas del Caribe 2
12:15, 17:30, 20:30, 23:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jai egunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Alatriste
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Monster house
12:10, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Cars
12:00, 17:00.

La máquina de bailar
12:00, 16:00, 18:05, 20:20, 22:30, 00:45.

La joven del agua
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

Garfield 2
12:15, 16:20, 18:20, 20:05.

Corrupción en Miami
12:00, 17:00, 19:45, 22:25, 01:00.

Ant bully
12:00, 16:30, 18:25.

Mi súper exnovia
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:20, 00:45.

Piratas del Caribe 2
12:00, 16:30, 19:15, 22:10, 01:00.

Separados
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Salvador
12:00, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja
12:15, 16:25, 18:10, 20:00, 22:05, 00:30.

El jefe
19:30, 22:10, 00:30.

Clerks 2
22:15, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.



Junebug ***

Zuzendaria: Phil Morrison.
Aktoreak: Embeth Davidtz, Alessandro Nivola, Amy Adams.
AEB, 2005.
107 min. Drama.

Junebug jatorrizko hizkuntzan azpitoluekin estreinatuta da. Filma Ameriketako zinema independentearn barnean dagp: ez du estudio handien aurrekontu izugarriak, aktoreak ez dira izar ezagunak. Junebug ez da gertaera handiak edo ugari kontatzen dituen filma, istorioari dagokionez ezer gutxi gertatzen da; hori bai, badaude istorioari aurrera egiten laguntzen dioten gertakariak, baina garrantzitsuen pertsonaien sentimenduak dira.

Hori dela eta, filmean gautza askorik gertatzen ez denez, ikusleak pentsa dezake hura nahiko geldoa dela, baina ikuspuntu hori ez da onena Junebug-era hurbiltzeko. Ikuslea konturatuko da poliki-poliki eta begirada bidez edo keinu baten bidez pertsonaien sentimenduak helduko zaizkiola, eta sentimendu horiek oso ezagunak egingo zaizkio: bakardadea, besteekin komunikatzeko arazoak (bai asko kostatzen zaigulako sentimenduak agertzea, bai agertzen ditugunean ondokoa ez dagoelako prest horiek ulertzeko), mesfidantza, eguneroko bizitzan benetan garrantzitsuak diren gauzak bazter batean uztea, kultura desberdineko jendea ulertzeko arazoak... Filmean gai horiek ukitzen dira, baina diskurtsorik gabe. Junebug-ek ez du mezu konkretu bat bidaltzen, ikusleak egoerakin eta pertsonaiekin identifikatzea nahi du; pertsonaiak, Ashley alde batera utzita, ez dira onak edo txarrak, ahultasunak dituzte. Horregatik hurbilak egiten zaizkigu, eta hauxe da filma-aren indar nagusia.

Antonio Zabala

ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

www.cinesabaco.com



Promozio baliagarria 2006-09-30, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.



ZINEMA MAILA GORENEAN

Motorzaleen festa Elgetan

KONTZENTRAZIOA Lambretta eta Vespa motorzaleak elkartuko dira domekan Elgetan; 90 lagun inguru batuko dira

IBILBIDEA Eguerdian Elgeta inguruan ibilbidea egingo dute eta arratsaldean erakustaldia egongo da plazan

BETERANOA Fermin Iribarrek 18 urterekin erosi zuen lehen Lambretta, eta orain bi ditu; zaharrena 42 urtekoa

EDU MENDIBIL > ELGETA

Vespa eta Lambretta motorzaleen festa izango da domekan Elgetan. Motor horiek gidatzen dituzten 90 lagun inguru elkartuko dira eguerdian Elgetako plazan. Ondoren, 13:15ean, ibilbidea egingo dute Elgeta, Bergara, Angiozar eta Asentzio artean eta jarraian herri bazkaria izango da. Arratsaldean, 16:00ak aldera, motor historiko horien gidariek erakustaldia egingo dute plazan. Lehen aldia da Elgetan horrelako kontzentrazio bat egiten dutela: Eibarren zale batzuek Lambretta eguna ospatzen dute uztailearen hasieran. Hain zuzen ere, Eibarren egin izan dira Lambretta motorrak urtetan.

KOTIZATUTAKO MOTORRAK

Fermin Iribar dugu domekako jaiaren antolatzaileetako bat. Hark esan digu ideia nola sortu zen: "Gabonetan, koadrilan txikiteoan ginela, alkatean ebidoa bota zigun, ea motorren inguruko zerbaite antolatuko genuen. Eta guk ebidoari aurre egin..."

Ferminek 61 urte dauzka eta 18 urterekin erosi zuen lehen Lambretta. Orain bi dauzka: 1.50ekoa (1964. urtekoa) bata eta 1.25ekoa bestea (1983koa). "Bi horiek Aretxabaletan eta Oñatiko baserri batean eskuratu nituen, eta nahiko ondo daude. Txarrena zera da: pieza bat apurtuz gero, Italiara jo beharra dagoela... Vespak eta Lambrettak kotizatuta daude egun, motor zaharretara jotzea modan dagoelako. Ni beti izan naiz Lambretta-zalea; Vesparen aldean motorra zentratuta dauka eta kurbetan-eta errazago dominatzen da, Vesparekin pisu guztia albo batera joaten delako".

Domekarako eguraldi ona besterik ez dute eskatzen: "Giro polita izango da. Euskal Herri oso-tik 90 bat lagun etortzea espero dugu. Besteak beste, lehenbiziko Lambretta motor bat, *Patinete* modeloa eta beste hainbat altxor izango dira ikusgai". Vespa dotoreak ere izango dira Elgetan, tartean Ferminen lagun diren Sebastian Arantzabal, Jose Luis Zabaleta eta Fernando Errastirenak.



MOTORZALEAK Fermin Iribar eta Sebastian Arantzabal elgetarrek domekako kontzentrazioan hartuko dute parte. GOIENKARIA

ahobero

"Gizonezkoek, oraindik ere, lorontzi-emakumeak dituzte gustuko"

Ana Obregon > Aktorea

Antena 3n estreinatu berri duten *Ellas y el sexo debil* telesailarekin emakumea omen-du nahi izan duela adierazi du Obregonek. Bera moduko lorontzi-emakumei eginiko omenaldia dela zehaztea falta izan zaio. Zorionez, beste garai batekoak dira lorontzi-emakumeak eta Ana bera.

iturri onetik

Jose Luis Korta hurrengo asteburuan joango da oinez Arantzazuraino

Donostiako Bandera irabazi ondoren egindako promesaren lehen zatia bete du Jose Luis Kortak: Donostiatik Castorra arraunean joan da Ortzaiakoa. Hura egin ostean, Oñatitik Arantzazura oinez eta ortozik joango zela agindu zuen Korta polemikoak. Hurrengo asteburuan etorriko da eta amaitutakoa familiartekoekin eta lagunekin bazkaria egingo du. Izango du zer ospatu.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Erromako gizon zuria

Uso bat ba omen du lagun, buru gainean jartzen zaiona gai garrantzitsuetan ez dezan akatsik egin. Usoa oporretan dagoenean, ordea, gizon arrunta bihurtzen da, akasduna. Oraingoan bezala.

Egunotan, Erromako gizon zuriak asaldatu eta sutu egin ditu Asia aldeko gizon bizardunak: haien erlijioak berezkoa omen du biolentzia. Bushen hitzak dirudite. Jakina da, ordea, honek usoa baino zapelatza duela buru gaineko lagun.

Usoa buru gainean izan balu, gizon zuriak gogoan izango zituzkeen gurutze sainduaren izenean bere erlijioek mendeetan zehar isuritako odola, eta agintari odol zaleei emandako babes. Eta, agian, gizon bizardunak salatzen aritu baino, Erromak historian zehar eragin duen biolentziak barkamena eskatuko zukeen.

ai, ene!



Argazkietan argalduta ateratzeko formula

Oporretan kilo batzuk hartu dituzula? Arazorik ez. Argalduta aterako zara HP argazki kameraren argaltze efektuarekin.

<http://tinyurl.com/j3a92>

GRUPO RKUZ
ARETXABALETA 1950-2006 ARRASATE

Electrodomesticos
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIA
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

Cocina Integral
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

Muebles
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Harrituta utzi nahi dituzte zure txikiak?
Har ezazu une bat...
Arkautz etxearekin, amets zoragarriak izango dituzte.

Arkautz zure etxea da.

